

# GIPUZKOAKO POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETARI BURUZKO INKESTA

2012



2013ko maiatza

**Eraitza txostena**



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ingurumeneko eta Lurralde  
Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente  
y Ordenación del Territorio

**Siis** Centro de  
Documentación  
y Estudios  
Dokumentazio  
eta Ikerketa  
Zentroa  
Fundación Egüía-Careaga Fundazioa

# AURKIBIDEA

<b>1. LABURPENA .....</b>	<b>4</b>
1.1. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 lanaren balioa .....	4
1.2. Emaiza nagusiak .....	6
<b>2. AZTERKETAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA .....</b>	<b>12</b>
2.1. Proiektuaren aurrekariak eta helburuak.....	12
2.2. Txostenaren egitura .....	13
2.3. Lanaren oinarritzko ezaugarriak .....	14
2.3.1. Galdesorta.....	14
2.3.2. Laginketaren diseinua .....	15
2.3.3. Landa-lana.....	18
2.3.4. Emaitzak egokitzea .....	19
<b>3. POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA GIZARTE BAZTERKETA EGOERAK GIPUZKOAN .....</b>	<b>21</b>
3.1. Pobreziaren, desberdintasunaren eta gizarte bazterketaren eragina Gipuzkoan .....	21
3.1.1. Pobrezia eta gabezia egoerak .....	21
3.1.2. Gizarte desberdintasuna .....	48
3.1.3. Gizarte bazterketako egoerak .....	51
3.2. Gizarte talde eta etxe ahulenak .....	60
3.3. Gipuzkoaren egoera Europaren testuinguruan .....	72
<b>4. POBREZIA, BAZTERKETA ETA BIZI BALDINTZAK.....</b>	<b>79</b>
4.1. Hezkuntzari eta hizkuntz ezaguerari lotutako alderdiak.....	80
4.1.1. Hezkuntza maila eta prestakuntza jardueretako partaidetza.....	80
4.1.2. Hizkuntzak jakitea .....	82
4.2. Osasun egoera eta mendekotasun egoerak .....	83
4.2.1. Osasun egoera eta tabako kontsumoa .....	83
4.2.2. Mendekotasuna eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza.....	85
4.3. Lan baldintzak.....	88
4.3.1. Lanaldia eta kontratazioa .....	88
4.3.2. Soldatak eta kotizazio sozialak.....	89
4.4. Gastua eta zorpetzea.....	92
4.4.1. Etxebizitzako gastuak .....	92
4.4.2. Aurrezteko ahalmena eta kredituetara jotzea.....	96

4.5. Krisialdiak bizi baldintzetan eta pobreziaren pertzepzioan duen eragina.....	99
4.5.1. Krisiaren eragina.....	99
4.5.2. Pobreziaren pertzepzioa eta epe luzeko eboluzioa .....	102
4.6. Etxebizitzarako aukera eta honen bizigarritasun baldintzak .....	103
4.6.1. Bizigarritasun baldintzak.....	104
4.6.2. Etxebizitzarako aukera.....	105
4.7. Gizarte harremanak eta gizarte partaidetza .....	106
4.7.1. Gizarte harremanak.....	106
4.7.2. Gizarte eta politika arloko partaidetza.....	109
<b>5. GIPUZKOAKO POBREZIAREN KONTRA BORROKATZEKO POLITIKAK. HORIEN GAI NEKO EZAGUERA, ETA HORIEN ERABILERA, ESKAERA ETA ERAGINKORTASUNA .....</b>	<b>112</b>
5.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren gaineko ezaguera .....	113
5.1.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren eginkizunei buruzko ezaguera maila .....	113
5.1.2. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren kokapenaren gaineko ezaguera .....	115
5.1.3. Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den lekuaren gaineko ezaguera .	118
5.2. Zerbitzuen erabilera, laguntza eta prestazioen eskaera eta etorkizuneko beharrak 121	
5.2.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren erabilera.....	121
5.2.2. Laguntza eta prestazio ekonomikoen eskaera .....	124
5.2.3. Etorkizunean laguntza eta prestazio ekonomikoen beharra.....	127
5.2.4. Lehentasunezko zerbitzua behar ekonomikorik izanez gero .....	128
5.3. Gizarte transferentzien sistemaren eta gutxieneko errenta sistemaren eraginaren adierazleak.....	131
5.3.1. Gizarte transferentzien eraginkortasuna pobrezia larria murrizteari dagokionez	131
5.3.2. DBE/EPO/DBL/GLL sistemaren eragina pobrezia larria murrizteko.....	134
5.3.3. Eskatzaile potentziala izaki DBE/EPO/DBL sistemara iristen ez den biztanleria..	137
<b>6. BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>140</b>
<b>I. ERANSKINA: Pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketaren adierazle nagusiak Gipuzkoan</b>	<b>142</b>
<b>II. ERANSKINA: Galdetegia.....</b>	<b>201</b>

## 1. LABURPENA

### 1.1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 lanaren balioa

Gaur egun Euskadik sistema sendoa du pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak jarraitzeko eta neurtzeko, funtsean bi operazio estatistikoren inguruan antolatua, honakoak baitira: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren organo estatistiko espezifikoak lau urtean behin egina, eta Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (Encuesta de Condiciones de Vida-ECV), INEk urtero egina. Sistema honek, baina, baditu muga batzuk:

- INEk egiten duen inkesta ez da egokia Gipuzkoako egoera aztertzeko, zeren eta gure lurraldeari dagokionez lagina oso txikia baita, eta gutxieneko errenten euskal sistematik ondorioztatzen diren sarrerak ere ez ditu bere neurrian zenbatesten.
- Eusko Jaurlaritzak egiten duen inkestak (PGDI) askoz fidagarritasun eta ordezkagarritasun handiagoa du, baina, lau urtean behin egiten delarik, datuek ez dute beti behar duten gaurkotze maila izaten.
- Inkesta biek batez ere gabezia materialarekin eta diru pobreziaekin lotutako adierazleak jasotzen dituzte, ez baina gizarte bazterketa prozesuei buruzko adierazlerik, hauek badira ere izaera integralagoa dutenak eta, esaterako, osasuna, enplegua, etxebizitza, gizarte harremanak edo gizarte eta politika partaidetza jasotzen dituztenak.
- Bestetik, eta INEren inkestak panel izaera badu ere, inkesta bi horietan batek berak ere ez du aukerarik ematen, ez Gipuzkoarako ez Euskadirako, analisi luzerakorik egiteko familia lagin beraren jarraipena eginez eta familia horien egoera, denbora igaro ahala, zein neurritan aldatzen den aztertuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak berak inkesta bat eginez gero, aukera izango da gabezia horietako batzuei erantzuteko. Horixe da Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta, eta honi dagokionez hurrena esan behar da:

- Diru pobrezari zein gabezia materialari eta gizarte bazterketari buruzko adierazleak jasotzen ditu. Ildo honetatik, inkesta beraren bidez gure inguruan erabili ohi diren ikuspegi desberdinak eskaintzen ditu (PGDIren ikuspegi subjektiboa, Eurostat-en hurbilketaren ikuspegi objektiboa, eta FOESSA Fundazioak gizarte bazterketari buruz egiten duen neurketa).
- Lagin txikiagoa eta galdesorta labur samarra izanik, inkesta urtean behin edo, gutxienez, bi urtean behin egin daiteke, eta horrek modua ematen du fenomeno hauen jarraipenerako beharrezko gaurkotze-maiztasuna izateko.
- Hasiera batean, inkesta diseinatzeko unean laginaren parte baten luzerako jarraipena egin ahal izatea begiratu da, panel motako jarraipena egin ahal izateko eta beste hainbat fenomeno ere aztertu ahal izateko, esaterako pobrezia iraunkorra edo pobreziaiko edo bazterketako sarrera eta irteera fluxuak.
- Inkestak, gainera, Gizarte Politikako Departamentuarentzako beste hainbat kontu interesgarri jasotzen ditu, esaterako mendekotasunaren prebalentziari eta esparru honetan laguntza zerbitzuez egiten den erabilerari, gizarte zerbitzuen balorazioari edo pobrezia energetikoari lotuak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako inkesta bat izanik, behar diren datu eta esplotazio espezifikotarako sarrera errazago eta berehalakoagoa da. Gainera, modu puntual edo iraunkorrean sar daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat interesgarriak diren beste kontu batzuei buruzko galderak, bai gizarte politiken esparruan bai beste esparru batzuetan.

GPGBI 2012 laneko datuak interpretatzeko unean, kontuan hartu behar dira, halaber, inkesta orok berez dituen bestelako mugak. Hasieratik beretik, operazio estatistiko arina diseinatzera jo zen, maiz gaurkotzeko moduko batera alegia, arrazoizko kostuen bidetik betiere. Ildo horretatik, lagin txiki samarra egitea aukeratu zen –mila etxe inguru- eta, akats marjina onargarria eta ordezkarritasun maila behar adinako bermatzen baditu ere, aukera apartekorik ez du ematen emaitzak bereiz edo banandurik eman nahi izanez gero. Kontuan hartu behar da, gainera, inkestak aztertzen dituen fenomenoak (hala nola pobrezia, bazterketa, prestazio ekonomikoak jasotzea, etab.) minoritario samarrak direla biztanleriarekiko oro har, eta azterketa horretarako abiapuntua, beraz, erregistro edo kasu kopuru mugatua dela. Horregatik guztiagatik, azpimarratu behar da ezen, beste edozein inkestatan bezala, garrantzitsuena ez dela modu isolatuan edo bakarka hartutako adierazleen balio zehatza, baizik eta ikusten diren joera orokorrak, bai eboluzioaren analisari dagokionez bai arrisku faktoreak aztertzeke unean.

Bestetik, adierazi behar da GPGBIko lehen datuak bat datozela, funtsean, lehendik eskura zeuden estatistika-iturriek emandakoekin eta, batez ere, hilabete batzuk lehenago EAE osoan egindako PGDIk jasotakoekin. Ikuspegi horretatik, pentsatzekoa da GPGBIko lehen entrega honetan lehendik Gipuzkoarako jasotzen ez ziren adierazleei buruz soilik ematen duela informazio berria, gizarte bazterketarekin edo pobrezia energetikoarekin lotuen kasuan esaterako. Izan ere, 2012an egindako inkestaren balioa gehiago dago tresna sortzean eta martxan jartzean, 2012rako datu berriak eskura jartzean baino, eta erabilgarritasuna irabazten joango da finkatzen doan eta Gipuzkoan pobrezia eta bazterketa duen bilakaerari buruzko datuak beharrezko aldizkakotasunez emateko gai den neurrian. Beraz, aurreko guztiaren konklusio gisa, garrantzitsua da azpimarratzea inkesta honen balio nagusia denboran zeharreko jarraitasunetik etorriko dela, eta Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketa egoeren gaineko urteko edo, behintzat, bi urtez behingo jarraipena egin ahal izateko aukeratik.

## 1.2. Emaidza nagusiak

### 1.2.1. Egoera orokorra

- 2012an, gipuzkoar biztanleriaren % 16,8 pobrezia erlatibo edo sarrera txikiko arriskuko egoeran dago (sarrera baliokideen erdiko balioaren % 60koaren adierazlea erabiliz gero), hau da, ia-a 120.000 pertsona dira. Biztanleriaren % 4,3 -30.000 pertsona pasatxo- pobrezia larriko egoeran dago (sarrera baliokideen erdiko balioaren % 40ren azpitiko sarrerak). Pobrezia erlatibo edo sarrera txikien atalasea 842,5 eurokoa da -hilean-, pertsona baliokideko, eta pobrezia larriarena 561,7koa.
- Gipuzkoar biztanleriaren % 5,2 gabezia material larriko egoeran dago, eta zailtasunak ditu batez ere ustekabeko gastuei (biztanleriaren % 21,7) edo urtean behin oporretara joatekoie (% 34,4) aurre egiteari dagokionez.
- Biztanleriaren % 22,7ri eragiten dio Europa mailan pobrezia eta bazterketa arrisku esaten dieten egoerek (ARPE), eta biztanleria okupatuaren % 7ri enpleguko pobrezia deituak eragiten dio. 65 urtez azpiko biztanleriaren % 11 bizi den etxeetan, gutxienez pertsona okupatu bat izan arren sarrerek, guztira, ez dute aukerarik ematen pobrezia erlatiboko egoera gainditzeko.
- Pobrezia erlatiboaren tasa, etxebizitzako gastuak kendu ondoren, biztanleriaren % 21,1era iristen da, eta pobrezia larriarena % 9,3koa da (hala, ia-ia bikoiztu egiten dira hasieran kontuan hartutako pobrezia larriaren tasak). Datu honek agerian jartzen du izan badela pobrezia buruzko estatistiketan agertu ohi ez den baina, etxebizitzako gastuak ordaindu ondoren, pobrezia atalasetik beherako sarrerak dituen kolektibo bat.
- PGDI hurbilketa dagokionez, pobrezia arriskuaren tasa % 7,8koa da, eta ongizaterik ezarena % 11,4koa. PGDI adierazlearen arabera, gipuzkoar biztanleriaren % 80 ongizate egoera batean bizi da, dituen sarreren ikuspegitik.
- Inklusio edo gizarteratze eta bazterketa egoerei dagokionez, eta FOESSA Fundazioaren ikerkuntza-lantaldeak diseinatutako adierazleak erabiliz, gipuzkoar biztanleriaren % 55,9 erabateko gizarteratze egoeran dago; % 30,9 gizarteratze prekarioko egoeran; % 6,4 bazterketa moderatuko egoeran, eta % 6,8 bazterketa larriko egoeran. Beraz, gipuzkoar biztanleriaren % 13 dagoke bazterketa moderatu edo larriko egoeran.
- Desberdintasun adierazleei dagokionez, Gini koefizientea 27,2koa da, eta s20/80 erlazioa 3,8koa; hau da, biztanleria aberatsenaren % 20ren sarrerak sarrera txikieneko biztanleriarenak baino 3,8 aldiz handiagoak dira.
- Gipuzkoar biztanleriaren % 10 eta % 13 bitarte dago pobrezia energetikoko egoeren eraginpean; horiek, oro har, etxeen ezintasuna adierazten dute, oinarritzko beharrak asetzeko gutxienezko energi zerbitzu batzuk izateari dagokionez (elektrizitate eta berokuntza, funtsean).

### 1.2.2. Arrisku faktoreak eta indarra hartzen ari diren arazoak

- Atzerriko nazionalitatea duten pertsonak buru diren etxeetan bizi direnek askoz pobrezia arrisku handiagoa dute, espainiar nazionalitateko pertsonak buru dituztenetan bizi direnek baino. Hala, adierazle esanguratsuenei dagokionez, pobrezia larriaren tasa % 21,9koa da

biztanleriaren zati honi dagokionez, bertako biztanleen artean % 3,2koa denean; gabezia larriaren tasa % 36,8koa da, eta bertakoen artean % 3,1koa; eta enpleguko pobrezia tasa % 28,5koa, eta bertakoen artean % 5,5koa. Immigranteetatik % 33 besterik ez da sarreren ikuspegitik ongizate egoeran dagoena; bertakoen artean, aldiz, % 90koa da proportzioa. Bazterketa adierazleei dagokienez, atzerriko pertsonak buru dituzten etxeetatik % 51 bazterketa larri edo moderatuko egoeran dago; bertako pertsona bat buru duten etxeen kasuan, aldiz, portzentajea % 10,8koa da. Kolektiboaren banaketaren ikuspegitik, bazterketa egoeran dauden pertsona guztietatik % 26,5 atzerriko nazionalitatea duen pertsona bat buru den familietan bizi dira.

- Generoaren ikuspegitik pobrezia tasak, erabiltzen den adierazlea dena dela, oso antzekoak dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Egoera aldatu egiten da, baina, etxearen sostengu nagusia den pertsonaren generoaren ikuspegitik aztertuz gero datuak. Pertsona hori emakumezkoa denean, pobrezia tasak askoz handiagoak dira sostengu nagusia gizonezkoa denean baino: hala, gizonezkoak buru diren familietan bizi den biztanleriaren artean mantentze pobrezia tasa % 6,4koa delarik, emakumezkoak buru diren familietan bizi direnen artean % 12,6ra iristen da portzentajea. Bazterketa adierazleei dagokienez, bazterketa larri edo moderatuak emakumezkoak buru diren etxeetan bizi diren pertsonetatik % 20ri eragiten dio, baina % 10ri soilik sostengu nagusia gizonezkoa den etxeetan bizi direnen artean.
- Oso alde garrantzitsuak ikusten dira, halaber, adinaren ikuspegitik, eta berretsi egiten da azken urteotan inkesta guztietan agerian geratzen ari dena: pobrezia arriskua biztanleria nagusitik haur eta gazte biztanleriara aldatzen ari da, hainbat faktoreen eraginez, horien artean baitira enplegua gero eta prekarioagoa izatea batetik, eta pentsio sistemak eskaintzen duen babes gero eta handiagoa bestetik. Hala, mantentze pobrezia dagokionez, 18 urtez azpikoentzako tasa % 12,3koa da, 18 eta 64 urte bitarteko biztanleentzat % 7,9koa, eta pertsona nagusientzat % 3,7koa. Pobrezia larriaren kasuan, 18 urtez azpikoen arteko eragina 2,2 aldiz handiagoa da 65 urtetik gorako artekoa baino. Datu hauek agerian jartzen dute, beraz, haur pobrezia (edo, hobeto esanda, seme-alabak dituzten familien pobrezia) gero eta larritasun maila handiagoko arazotzat ari dela agertzen.
- Enpleguak nahiko ondo babesten gaitu pobreziatik, ez baina hain ondo bazterketatik eta, zalantzarik gabe, enplegurik ezak askoz pobrezia eta bazterketa tasa handiagoak dakartza berekin. Hala, bere aktibo guztiak lanean dituzten familien artean pobrezia tasa % 1koa da, eta aktibo guztiak langabezia dituztenen % 33koa. Bazterketaren ikuspegitik, aktibo guztiak lanean dituzten familietatik % 6 bazterketa moderatu edo larriko egoeran dago; eta portzentajea % 48koa bada ere aktibo guztiak lanik gabe dituztenen artean, kolektibo bi hauen arteko aldea txikiagoa da pobrezia tasa ikusten dena baino.
- Lurralde ikuspegitik, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen zirriborroaren arabera etorkizunean Lurraldean bereiziko diren sektoreetako bakoitzeko pobrezia tasak aztertzerako jo dugu. Alabaina, emaitzek ez dute aukerarik ematen konklusio argirik ateratzeko, ikusitako aldeak oso txikiak direlako, eta inolako nagusitasunik ere ez da ikusten aztertutako adierazleek batean bestean baino eragin maila handiagoa izateari dagokionez. Bakar-bakarrik gabezia material larriaren kasuan ikusten da ekialdeko sektorean prebalentzia handixeago bat.

### 1.2.3. Konparazio analisia

- Inkesta honek ematen dituen datuak Espainia eta Europa mailan eskura ditugunekin alderatuz gero, egoera positiboa ikusten da oro har (dena den, gogoratu behar da estatuko eta Europako datu berrienak 2011ko urteari buruzkoak direla). Hala, pobrezia erlatiboaren tasa EB-15ean dagoenaren berdina da ia-ia, eta estatuan oro har denaren ia-ia % 20 txikiagoa.

- Hobexegoa da egoera pobrezia larriari dagokionez, ezen Gipuzkoako tasa (% 4,3) EB-15ekoa baino txikiagoa da, puntu batetik gora aldeaz. Gipuzkoako tasa, gainera, ez da estatuko tasaren % 50era iristen (% 10,1); hau, izan ere, EB osoko handiena da kontu honi dagokionez. Aitzitik, gabezia material larriaren tasa, EBko batez bestekoaren azpitik badago ere, 2011n estatuan oro har zegoena baino handiagoa da.
- Estatuko errealitatearekiko aldeak are agerikoagoak dira bazterketa adierazleak aztertuz gero (kontuan hartuta estaturako daturik berrienak 2009koak direla): estatu mailako gizarteratze tasa % 37koa da, eta Gipuzkoan portzentajea % 55era iristen da. Bazterketa larriaren tasa handixeagoa bada ere, Gipuzkoan kontuan hartutako bazterketaren edozein dimentsioren eragina txikiagoa da estatuan oro har ematen dena baino.
- Osterantzean, desberdintasunari buruzko adierazleak positiboagoak dira Gipuzkoan –eta EAEn oro har- Europar Batasunean oro har ematen direnak baino. Gipuzkoari dagokionez, esaterako Gini koefizientea 27,2koa da, EBn 30ekoa, eta Suedian 24koa.
- Gizarte transferentzien aurretiko pobrezia larriko arriskuaren tasa ere nabarmen baxuagoa da Gipuzkoan EBn baino (% 14,5 honetan, eta % 10 Gipuzkoan). Zahartzaroko pentsioez aparteko prestazio ekonomikoek pobrezia murrizteko duten ahalmena, alabaina, txikixeagoa da Gipuzkoan EBn baino (% 57 Gipuzkoan, eta % 62 EBn).
- EAeri dagokionez eta, zehatzago esanda, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) ematen dituen datuekin alderatuta, GPGBIk ematen dituen datuak txarragoak dira, eta horren atzean metodologi kontuak egon daitezke (PGDIk atalase komuna erabiltzen du EAE osorako, eta GPGBIk lurralde-atalase propio bat), edota inkesta bien artean egoerak berak okerrera egin izana. Edonola ere, aldeak txikiak dira: PGDI adierazleei dagokienez, esate baterako, mantentze pobrezia arrisku egoeren eraginaren tasa % 7,3koa zen EAerentzat, eta % 7,8koa Gipuzkoarentzat. Pobrezia larriari dagokionez aldeak handixeagoak dira (% 3,5 erkidego mailan, eta % 4,3 lurralde mailan).

#### 1.2.4. Bizi baldintzak eta krisiaren eragina

Pobrezia eta bazterketa adierazle nagusiei buruzko datuekin bat, egindako inkestak datu interesgarriak ematen ditu gipuzkoar biztanleriaren bizi baldintzei dagokienez, hezkuntzarekin eta hizkuntz erabilera eta ezaguerarekin, osasunaren egoerarekin, mendekotasunarekin, etxebizitzarako aukera eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzekin, krisialdiaren eraginarekin edota gizarte harremanekin lotutako alderdietan. Analisi horretatik ondorioztatzen den konklusio nagusia bi ideiatan laburtu dezakegu:

- Pobrezia eta bazterketa egoeran dauden pertsonak dira, eta normalean arrisku tasa handienak dituztenak, egungo egoera ekonomikoak gehien kaltetu dituenak. Ildo horretatik, krisialdi ekonomikoak gipuzkoar biztanleriaren pobretze orokorra ekarri duelako ideia aurrean, berriro azpimarratu behar da biztanleriaren parte oso garrantzitsu batek bakar-bakarrik neurri batean jasan duela krisiaren eragina, eta inpakturik serioena tradizionalki pobrezia arrisku handiagoa izan duten taldeetan bildu dela (immigranteak, langile ez egonkorak eta seme-alabak dituzten edota pertsona gazteak buru dituzten familiak).
- Pobrezia edo bazterketa egoera batean bizi izatea, egoera hori neurtzeko erabiltzen den adierazlea dena dela, bizi baldintza kaxkarragoekin lotzen da argi eta garbi, partaidetza politikoaren tasa txikiagoekin, gizarte harreman ahulagoekin eta mota guztietako zailtasun osagarriekin, eta hauek ez daude beti sarrera mailarekin lotuta.



Ikuspegi zehatzago batetik, alderdi honetatik inkestak agerian lagatzen dituen datu nagusiak honakoak dira:

- Gipuzkoan ikasten ari ez diren eta lanik ere egiten ez duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentajea % 11,7koa da, EBko batez bestekoaren oso antzekoa. Pobrezia egoeran dauden familietan bizi diren gazteen artean, portzentajea askoz handiagoa da, aukeratzen den adierazlearen arabera % 16tik (pobrezia erlatiboa) % 29ra bitartekoa (mantentze dimentsioko pobrezia).
- Biztanleria pobreen % 63k gaztelania du ama hizkuntza, % 14k euskara, eta % 17k beste hizkuntza batzuk. Ongizate egoeran dagoen biztanleriaren artean, ia-ia % 40k euskara du ama hizkuntza, eta % 2,3k soilik beste hizkuntza batzuk. Pertsona pobreetatik % 40k gaztelaniaz hitz egiten du bakarrik; aldiz, ongizate egoeran daudenen artean % 27 dira.
- Erabateko gizarteratze egoeran dauden pertsonen artean % 13k dio osasun egoera halamoduzkoa, txarra edo oso txarra duela. Pobrezia egoeran dauden pertsonen artean portzentajea % 24koa da, eta bazterketa egoera larrian dauden pertsonen artean % 37koa. Tabako kontsumoaren eragina ez da oso desberdina pertsona pobreen eta ez pobreen artean, nahiz handiagoa den erabateko gizarteratze egoeran ez dauden pertsonen kasuan.
- Gipuzkoar biztanleria okupatuaren % 26,5, asko jota mileurista da, lanetiko sarrera garbiak 1.050 eurotik beherakoak dituela. Multzo horren barnean erdia ia-ia (guztira 40.000 pertsona inguru) 750 eurotik beherako sarrerak dituzten pertsonak dira; horiek, normalean, lanaldi partzialei daude lotuta. Biztanleria okupatuaren % 27,9k 1.050 eta 1.500 euro bitarteko soldatak ditu. Multzo nagusiak –biztanleria okupatuaren % 37,6 edo, kopuru absolutuak emanez, ia-ia 80.000 pertsona dira- 1.500 eta 2.100 euro arteko soldatak ditu. Azkenean, biztanleriaren % 19ren lanetiko sarrera garbiak 2.100 eurotik gorakoak dira.
- Gipuzkoar etxeetatik % 55ek ez du etxebizitza-gasturik, mantentze-lanetatik datozenetatik aparte, zeren eta erabat ordainduta dagoen etxebizitza batean bizi baitira. Gipuzkoar etxeetatik % 31k, aldiz, hipoteka bat ordaindu behar du, eta % 13,2 errentan bizi dira. Pobrezia egoeran dauden etxeen artean, errentan bizi direnen proportzioa nabarmen handiagoa da, eta kopuru hori % 28ren eta % 42ren artean kokatzen da, aukeratzen den adierazlearen arabera. Etxebizitza-gastuak dituzten etxe pobreek bere sarreretatik % 36 bideratzen dute, batez beste, hipoteka ordaintzera, etxebizitzaren jabetza erosi dutenen kasuan, eta % 44 errenta erregimenean bizi direnen kasuan. Etxe ez pobreen artean, portzentajea % 21ekoa eta % 24koa da, hurrenez hurren.
- Gipuzkoar etxeetatik % 65ek halako aurrezki maila bat du; beste % 35ak dio ez duela inolako erreserba ekonomikorik. Kontsulta egindako pertsonen adieraziaren arabera, aurrezki erabilgarriek etxe horiei aukera emango liekete beste sarrerarik ezean egungo gastua ia-ia urte eta erdiz mantentzeko, batez beste.
- Etxeen bizi-mailak duela hiru urtekoarekiko izan duen bilakaerari dagokionez, biztanleriaren % 16k dio okerrera egin duela nabarmen, eta % 43k pitin bat egin duela txarrerantz. % 34k dio berdin mantendu dela, eta % 5ek hobetu egin dela. Hondatze egoera orokorra bada ere, pobrezia egoeran eta bazterketa egoeran dauden etxeak dira bizi-mailan atzerapena izan dutela maizen diotenak. 64 urtetik gorako pertsonak buru dituzten etxeak, ez-pobreak eta erabateko gizarteratze egoeran daudenak dira bere bizi-maila egonkor mantendu delako erantzuna gehien ematen dutenak.
- Bizi baldintzek okerrera egin dutelako pertzepzioa, ikusi dugun bezala etxeetako askok eta askok –eta bereziki pobreenek- adierazi baitute, eguneroko bizimoduarekin lotutako adierazleetako hondatze errealaren ondorio zuzena da. Ildo horretatik, aisialdiko gastuen murrizketa da arazorik komunen edo ohikoena, eta etxeetatik % 36,4ri eragiten dio.

Hurrenak energia-gastuen eta etxebizitza edo oinetako gastu oinarrizkoen murrizketa datoz. Dagoeneko esan moduan, eragina nabarmenagoa izan da familia pobreetan: pobrezia egoeran dauden etxeetatik % 45ek dio oinarrizko janari-gastuak murriztu behar izan dituela; ongizate egoeran dauden etheen kasuan, aldiz, portzentajea % 3,3koa da.

- Pobrezia lotu egiten zaio, halaber, etxeetan buru diren pertsonen gizarte eta politika partaidetza txikiago bati. Hala, esate baterako, hauteskundeetako partaidetzari dagokionez, pertsona guztietatik % 11k adierazten duelarik inoiz ez duela parte hartzen hauteskundeetan, % 8,7k batzuetan, eta % 80k beti edo ia beti, mantentze dimentsioko pobrezian daudenen kasuan botorik inoiz ematen ez dutenen proportzioa % 31ra iristen da. Era berean, ez-pobreetatik % 83k beti edo ia-ia beti parte hartzen duelarik hauteskundeetan, pertsona pobreetatik % 66k bakarrik hartzen du parte.
- Gizarte partaidetzari dagokionez, inkestako datuek erakusten dute gipuzkoar etxeetan buru diren pertsonetatik % 36k elkarte edo erakunde motaren batean behintzat parte hartzen duela, horien artean sarturik erlijiosoak, kirol arlokoak, sindikalak, politikoak, auzoari lotuak, artistikoak, hezkuntzakoak, gazteenak, aisiakoak edo profesionalak. Aztertutako beste adierazleekin gertatzen den moduan, elkarteetako partaidetza nabarmen txikiagoa da bazterketa egoeran dauden pertsona pobreen artean, egoera eroso edo gizarteratze egoeran daudenen artean baino.

#### 1.2.5. Politiken eraginkortasuna eta tresnen gaineko ezaguera

- Gipuzkoar biztanleriaren % 22,2 pobrezia erlatibo edo sarrera txikiko egoeran dago bakar-bakarrik familien sarrera propioak (soldadak eta kapital-errentak) eta zahartzaroko eta biziraupeneko pentsioak (alarguntasuna, etab.) hartuz gero kontuan. Sarrerak bermatzeko diren prestazioen ordainketak (langabezia eta DBE sistemari lotutako laguntzak, funtsean) % 16,8raino murrizten du pobrezia, hau da, % 24ko murrizketa sortzen da, eta 40.000 pertsona inguru pobreziatik ateratzea lortzen.
- Pobrezia larriaren kasuan, prestazio horiek lortzen duten pobrezia murrizketa % 57koa da, biztanleriaren % 10 izatetik % 4,3 izatera jaisten baita, 39.000 pertsona inguru ateratzen dira eta pobrezia larritik. Eta bakar-bakarrik gutxieneko errenten euskal sistema hartuta (honen osagaiak DBE/EPO, DBL eta GLL dira), esan behar da honek % 31,5 murrizten duela pobrezia larria Gipuzkoan. Ikuspegi horretatik, zalantzarik ez dago DBEn oinarritutako sistemak eginkizun zeharo garrantzitsua betetzen duela Gipuzkoan pobrezia egoerak bridatzeari dagokionez.
- Kalkuluen arabera, sarrerak bermatzeko euskal sistemako laguntzak jasotzen dituztenetatik ia-ia heren bat ez da pobrezia larritik ateratzen, laguntza horiek jaso arren; dena den, laguntza horiek jasotzeak nabarmen murrizten du familia horiek dituzten baliabide erabilgarrietatik pobrezia atalasea dagoen tarte.
- Bestetik, eta orientagarri moduan, pentsatzekoa da ezen 17.300 pertsona inguru – biztanleria osoaren % 2,4 eta eskatzaile potentziala den biztanleriaren % 38,2- bizi direla laguntza horiek jasotzen ez dituzten edota horietarako baldintzak bete arren eskatu ez dituzten familia-unitateetan. Datu hau bat dator DBEk tradizionalki Gipuzkoan izan duen estaldura txikiagoarekin (baita konparatuz gero baxutzat jo behar diren Gipuzkoako pobrezia mailak kontuan hartuta ere), eta agerian jartzen du, gure inguruko beste herrialde batzuetarako adierazi moduan, arazo serioa dagoela eskatzaile potentziala izakin biztanleriaren parte bat sarrerak bermatzeko prestazioetara ez iriste horretan.
- Horren adibide ditugu honako datuok:
  - Kontsulta egin zaien eta pobrezia larriko egoeran dauden familietan bizi diren pertsonetatik % 48k, eta gizarte bazterketako egoeran dauden familietan bizi

direnetatik % 69k ez daki Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta Lanbiden eskatzen dela. Biztanleriarentzat oro har, portzentajea % 80tik gorakoa da. Datu honek agerian uzten du oraindik ere eskasa dela sarrerak bermatzeko sistemaren inguruan biztanleriaren parte handienak –eskatzaile potentzialak diren kolektiboak barne- duen informazioa.

- Pobrezia larriko egoeran dauden etxeetatik % 54 ez da azken hamabi hilabeteetan joan oinarrizko gizarte zerbitzuetara, eta % 26 ez da Lanbidera joan.
- Pobrezia larriko egoeran dauden etxeetatik % 53k azken hamabi hilabeteetan ez du sarrerak bermatzeko euskal sistemako prestazioetatik bat bera ere eskatu.

## 2. AZTERKETAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

### 2.1. Proiektuaren aurrekariak eta helburuak

Gaur egun, Euskadik sistema sendoa du pobrezia egoerak jarraitzeko eta neurtzeko. Sistemak bi eragiketa estatistiko ditu erdigune: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (PGDI), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-erakunde espezifikoak lau urtean behin egina, eta Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (*Encuesta de Condiciones de Vida-ECV*), Estatistika Institutu Nazionalak (INE) urtero egiten duena bera.

Kasu biotan pobrezia eta prekarietatea neurtzeko zeharo tresna finkatu eta fidagarriak badira ere, sistemak baditu gabezia garrantzitsu batzuk, eta horiei erantzun egin behar zaie, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatzen diren pobrezia eta gizarte bazterketa egoeren jarraipen egokia egin ahal izatearren. Gabezia edo muga horietako batzuk ondoko puntuotan datoz laburturik:

- *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (PGDI) lau urtean behin egiten da, eta hori, batez ere egungo zertzeladetan, denbora-epe luzeegia da, eta askotan erabat desfasatuta egon daitezkeen datuak erabiltzea ekar dezake berekin.
- INEren Bizi Baldintzei buruzko Inkestari (ECV) dagokionez, esan behar da sarriago egiten dela, urtean behin zehazki. Alabaina, Euskadi osorako erabiltzen duen azpi-lagina txiki samarra da (960 etxebizitza inguru), eta horrek ez du modurik ematen probintzia mailan fidagarritasun maila onargarriko zenbatespenik egiteko.

- Gainera, eta Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (ECV) panel motakoa den arren, horrelakoek ematen duten informazioa estatikoa da, eta ez dago luzera begirako informaziorik eskaini eta, horren bidez, etxeei buruzko jarraipena ikuspegi diakroniko batetik egiteko modurik.
- Errentari eta bizi baldintzei buruzko ohiko inkesten beste mugetako bat jorratzen duten ikuspegi ia-ia monetario hutsa izaten da. Hau da, batez ere pobrezia alderdi ekonomikoetan eta, gehienez ere, gabezia materialean biltzen diren operazioak dira. Une honetan, Euskadin behintzat ez da behar beste garatu adierazle sistema integralagorik; izan ere, horrelakoak izanez gero aukera egongo litzateke gizarte bazterketa egoerak, bazterketa dimentsio anitzeko fenomeno dela kontuan harturik, ez bakarrik kontsumorako aukerarekin lotuta, baizik eta osasun, etxebizitza, enplegu, gizarte harreman edota partaidetza publikoarekin ere lotuta ebaluatzeko.

Gabezia hauei gehitzen zaie inkesta hauetako datuetarako sarrera –*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren* (PGDI) emaitza nagusietatik edo INEk interneteko orrian ematen duen informaziotik haratago- zail samarra izatea, eta datu-baseen edo ustiatze espezifikoaren eskuragarritasuna beti ez egotea behar bezala bermatuta.

Aurreko guztia kontuan harturik, eta adierazitako gabeziak konpontzeko bidean, beharrezko iritzi zaio azterketa espezifiko bat egiteari; horren metodologi diseinuan, gainera, jaso egin beharko dira azken urteotan zehar pobrezia eta gizarte bazterketa egoeren neurketaren esparruan garatzen joan diren ekarpen edo ikuspegiak.

Beraz, aurrekariok harturik abiapuntu, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta eginez lortu nahi diren helburuak honakoak dira:

- Gipuzkoan pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak neurtzeko eta jarraitzeko sistema propioa sortzeko oinarriak finkatzea, horren bidez aldizkakotasun egoki batez lortu ahal izatearren gure inguruko herrialdeetan errealitate horien jarraipena egiteko erabiltzen dituzten adierazle nagusiak.
- Informazio xehatua eta lurraldeka bereizia ematea, Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketa egoerei buruz, eta egoera horiek ezaugarri pertsonalen (sexua, adina, jarduera, jatorria, etab.) edo etxeen arabera duten eraginari buruz.
- Bildutako informaziotik abiatu, eta Gipuzkoan pobrezia eta gizarte bazterketaren esparruan lanean ari diren erakunde publiko eta pribatuaren partaidetzaz, gomendio edo orientazioak planteatzea, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren esparruan Euskadin garatzen diren politikak hobetu ahal izatearren.

## 2.2. Txostenaren egitura

Txosten honen edukia sei kapitulu eta bi eranskinetan dago antolatuta.

Lehen kapitulan laburpena dator, eta bertan aurreratzen dira *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012* laneko emaitza nagusiak.

Bigarren kapitulu sarrera gisakoa da, eta lanaren helburuak aurkezten dira, izan dituen aurrekariak azaltzarekin batera. Ondoren, lanaren ezaugarri teknikoak eta inkesta egiteko unean erabilitako metodologia zehazten dira.

Hirugarren kapituluan, hauxe da guztietan luzeena, Gipuzkoan gertatzen diren pobrezia ekonomiko, gabezia materialeko eta gizarte bazterketako egoeren irismenari buruzko ikuspegi orokor bat ematen da, horrelakoak neurtzeko gaur egun erabiltzen diren adierazle nagusietatik abiatuta. Gure lurraldean dagoen gizarte desberdintasun maila ere aztertzen da bertan, aipatutako egoera horiek gizarte taldeetan duten eragin desberdina, eta Europako beste herrialde batzuekiko alderaketak egiten dira.

Laugarren kapituluan gipuzkoar biztanleria osoaren bizi baldintzak aztertzen dira, hainbat arlo ukituz horretarako, hala nola hezkuntza, lan baldintzak, aurrezte eta zorpetzea, osasuna eta mendekotasuna, krisialdiaren eragina, etxebizitzarako aukerak eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak, gizarte harremanak edota partaidetza soziala. Eta azpimarratu egiten dira gipuzkoar biztanleriaren barnean oinarritzko aldagai soziodemografiko batzuen arabera ikusten diren aldeak, batez ere pertsonen eta etxeen pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren edo horien gizarteratze mailaren arabekoak baitira.

Bosgarren kapituluan Gipuzkoan pobreziaaren kontra borrokatzeko jorratzen diren politikak jasotzen dira, eta horretarako abiapuntu nagusia galdesortan jasotako modulu tematikoetako batean bildutako erantzunen analisia da. Hainbat zerbitzu eta prestazioren gaineko ezaguerari eta erabilerari buruzko datuak ematen dira, eta eraginkortasun adierazle batzuk ere aztertzen dira, gure lurraldeko gutxieneko errenta sistemari eta, oro har, gizarte transferentzia edo transferentzia sozial dituen sistemari dagokionez.

Amaitzeko, txosteneko azken kapituluak erabili diren bibliografiako erreferentziak ematen ditu.

Osagarri gisa, txosten honek bi eranskin ditu. Lehenean, fitxa bidez sistematikoki jasotzen dira gure inguruan pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasuna neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusiak, horietako bakoitzari dagokionez inkesta honek eman dituen datuekin batera. II. eranskinak, bere aldetik, *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta* lanean erabilitako galdesorta jasotzen du.

### **2.3. Lanaren oinarritzko ezaugarriak**

Atal honetan, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012-ren ezaugarri tekniko eta metodologiko nagusiak zehazten dira.

#### **2.3.1. Galdesorta**

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren lehen edizio honetan erabilitako galdesortak 126 galdera ditu guztira, hamar modulu tematikotan banatuta. Galdesortaren egiturak ongi bereizitako bi zati ditu: lehen zatian, 61 galdera dira, etxean diren pertsona guztiei buruzko datu soziodemografikoak jasotzen dira eta, bigarrenean, etxeen egoerarekin eta etxebizitzaren baldintzekin lotutako kontuei buruzko 65 galdera biltzen dira. II. eranskinen, inkestaren lehen edizio honetan erabilitako galdesorta azaltzen da.

Galdesorta diseinatzeko unean, pobrezia eta gizarte bazterketaren gaineko dimentsio anitzeko ikuspegi bat izan da abiapuntua. Horregatik, etxeen alderdi ekonomiko eta materialei buruzko galderez eta etxean diren pertsonen buruzko gaitz gain, gizarte bazterketaren eragina neurtzera zuzendutako beste batzuk ere sartu dira galdesortan, hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte harremanekin edota partaidetza politiko eta sozialarekin lotutako dimentsioak ere aintzat hartuta. Ondoren, eta argigarri gisa, galdetegiak dituen modulu tematikoen zerrenda aurkezten da:

- A. *Etxebizitza eta bertan bizi diren pertsonen ezaugarri demografikoak:* P1 - P16 galderak.
- B. *Hezkuntza-maila, ikasketak, ama hizkuntza eta hizkuntza-ikasketak:* P17 - P22 galderak.
- C. *Osasuna eta autonomia:* P23 - P34 galderak.

- D. *Jarduera, enplegua eta prestakuntza*: P35 - P48 galderak.
- E. *Etxebizitzako ekonomia-sarbideak*: P49 - P62 galderak.
- F. *Gastuak eta etxebizitzako egoera ekonomikoa*: P63 - P88 galderak.
- G. *Etxebizitza nagusiaren ezaugarriak*: P89 - P99 galderak.
- H. *Harreman sozialak eta gizarte- eta politika-partaidetza*: P100 - P105 galderak.
- I. *Pobreziaren kontra egiteko politikak*: P106 - P116 galderak.
- J. *Etxebizitzako energiaren erabilera*: P117 - P126 galderak.

Galdetegia bi zatitan antolatuta dagoela -lehenean etxeko kide bakoitzari zuzendutako galderak eta bigarrenean etxebizitzari buruzko galdera komunak daude-, lehen sekzioak A, B, C, D eta E moduluak hartzen ditu, eta bigarrenak, berriz, besteak.

Azkenik, galdesorta prestatzeko eta diseinatzeko erabili diren erreferentziei dagokienez, berariaz aipatu behar dira erabili diren honakoak:

- *Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta*<sup>1</sup> (PGBI 2012), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoak prestatua.
- *Bizi Baldintzei buruzko Inkesta*<sup>2</sup> (*Encuesta de Condiciones de Vida-ECV* 2011), Estatistika Institutu Nazionalak (INE) egina.
- *Encuesta sobre Integración Social y Necesidades Sociales*<sup>3</sup> deitua, FOESSA Fundazioak 2007-08 eta 2009-10 epeetan egina.

Aipatutako inkestez gain erreferentziako beste tresna batzuk ere erabili dira galdetegia diseinatzeko unean, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoak prestatutako *Gizarte Zerbitzuen Eskeraren Estatistika – Gizarte Beharrei buruzko Inkesta* (EDSS); *Panel de Desigualdades Sociales en Cataluña* (PaD), Jaume Bofill Fundazioarena; *Censo de Población y viviendas 2001* eta *Encuesta de Hogares y Medio ambiente 2009*, Estatistika Institutu Nazionalak eginak; *Biztanleria Jarduerearen arabera Sailkatze Inkesta* (PRA), Euskal Estatistika Institutu EUSTATEk egina; eta, azkenik, 2011ko abenduko iritzi barometroa, Ikerkuntza Soziologikoen Zentroarena.

### 2.3.2. Laginketaren diseinua

*Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestan* erabilitako lagina Euskal Estatistika Institutu EUSTATEk diseinatu zuen 2012ko irailean, SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eskatuta. Ondoren laburtzen dira horien ezaugarri nagusiak.

#### **Laginaren esparrua**

Lagina aukeratzeko erabilitako esparrua Gipuzkoako Lurralde Historikoko etxebizitza okupatuek osatzen dute. Laginaren esparrua finkatzeko abiapuntua 2010eko Etxebizitza Direktorioa izan da; Eustat-en *Biztanleria Erregistroaren* arabera gutxienez pertsona bat bizi zen famili etxebizitzak bakarrik aukeratu dira.

#### **Laginketaren diseinua**

Eta biko lagin bat da, lehen etapan estratifikazioa eta bigarren etapan laginaren neurri finkoa dituen (8 edo 10 etxebizitza, sekzio motaren arabera). Gainera, lagina orekatuta dago sexu, adin,

<sup>1</sup> Eskuratzeko lekua: <[http://es.eustat.es/estadisticas/tema\\_136/opt\\_o/tipo\\_8/ti\\_Indicadores\\_de\\_pobreza/temas.html](http://es.eustat.es/estadisticas/tema_136/opt_o/tipo_8/ti_Indicadores_de_pobreza/temas.html)> [Kontsulta: 2013ko apirilak 23]

<sup>2</sup> Eskuratzeko lekua: <<http://www.ine.es/metodologia/t25/t2530453cues.htm>> [Kontsulta: 2013ko apirilak 23]

<sup>3</sup> LAPARRA, M. eta PÉREZ ERANSUS, B. (coords.)(2010). *El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España*. Colección de Estudios, nº 32, Madril: FOESSA Fundazioa, Cáritas Española Editores. 504.-519. or.

herritartasun eta famili neurriari dagokienez Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta baita etxebizitza kopuruari dagokionez ere eskualdeetan.

### **Lagin-unitateak**

Inkesta-unitatea famili etxebizitza izan da, eta erreferentziako biztanleria-oinarria 2010eko biztanleriaren erregistro administratiboa izan da, lagina ateratako unean daturik eguneratuenak zituena alegia.

### **Laginaren neurria**

Laginak 1.190 inkesta-unitate izan ditu, eta laginean sartutako etxebizitza titular bakoitzak ordezkoa eta erreserbakoa izan ditu.

### **Lehen etapa: Sekzio lagina**

Lehen etapan, Gipuzkoako erroldako 547 sekzioen zozketa estratifikatua egin da.

#### o **Estratifikazioa:**

Lehen etapako unitateak estratifikatzeko, honako aldagai hauek gurutzatu dira:

##### ▪ Eskualdeak:

01 = Bidaso Beherea; 02 = Debarrena; 03 = Debagoiena;

04 = Donostialdea (hiriburua gabe); 05 = Donostia;

06 = Goierri; 07 = Tolosaldea; 08 = Urola Kosta

##### ▪ Tipologiak:

Osagai Nagusien Analisia egin ondoren, Gipuzkoako sekzioak, estratifikaziora begira, 6 tipologiatan banatu dira.

##### ▪ Pertsona gazteen nagusitasuna:

45 urtez azpiko pertsonen presentzia erlatibo handia duten sekzioetan laginaren adierazgarritasuna areagotzearen, sekzioak bi taldetan sailkatu dira.

1 = Gazteak nagusi diren sekzioak (48 sekzio)

0 = Gainerakoak (499 sekzio)

#### o **Esleipena:**

Etxebizitzak zozketatzeko, honako esleipen hauen arabera jardun da:

1. Eskualdeko etxebizitza kopuruaren erro koadroarekiko banaketa proportzionala.
2. Tipologia eta sekzio mota ("gaztea" / "ez-gaztea") bakoitzeko etxebizitza kopuruaren proportzioarekiko banaketa.

Irizpide horien bidez lortutako esleipenaren emaitzak honakoak izan ziren:

Eskualdea	Etxebizitzak	Sekzioak	Lagineko etxebizitzak	Lagineko sekzioak
01. Bidaso Beherea	29.304	54	142	17
02. Debarrena	21.993	45	124	15
03. Debagoiena	23.578	48	124	15
04. Donostialdea (hiriburua gabe)	54.519	109	202	24
05. Donostia	73.541	141	216	26

06. Goierrri	26.189	55	132	16
07. Tolosaldea	17.829	46	116	14
08. Urola Kosta	26.316	49	134	16
<b>GUZTIRA</b>	<b>273.269</b>	<b>547</b>	<b>1.190</b>	<b>143</b>

○ **Zozketa:**

Banaketa teorikoa egin ondoren, erroldako sekzioen zozketa probabilitateen arabera izan da, eta sekzioen neurriarekiko proportzionala, okupatutako famili etxebizitzaren kopuru gisa neurturik azken hau.

○ **Oreka:**

Lagina aukeratzeko, Kuboaren Metodoa erabili da. Intuizioari jarraiki, metodo honek oreka-aldagai batzuetan mantentzen ditu jatorrizko biztanleriaren proportzioak laginean, horretarako kontuan harturik diseinuak proportzio horiek jasotzeko dituen probabilitateak.

Lagina orekatzeko, aldagai hauek erabili dira:

- *Gizabanakoak:* Gizabanako kopurua eskualde bakoitzean.
- *Sexua:* Gizonezko eta emakumezko kopurua.
- *Adina:* 34 urtez azpiko gizabanako kopurua, 35-44 urte bitartekoa, 45-54 urte bitartekoa, 55-64 urte bitartekoa eta 65 urtetik gorakoa.
- *Herritartasuna:* Bertako eta atzerriko pertsona kopurua.
- *Familia-tamaina:* Egoiliar 1, 2 egoiliar, 3-4 egoiliar edo 5 egoiliar baino gehiagoko etxebizitza kopurua.

**Bigarren etapa: Etxebizitza lagina**

Bigarren etapan, azkenean inkesta egingo zitzaien etxeak aukeratu ziren, ondoko irizpide hauei jarraiki.

○ **Esleipena:**

Laginaren lehen etapan aukeratutako sekzio bakoitzeko, 8 edo 10 etxe aukeratu ziren, kasuan kasuko sekzio motaren arabera (“ez gaztea” / “gaztea”).

○ **Zozketa:**

Etxebizitzaren zozketa ausazko sinplea izan zen, sekzio bakoitzaren barnean.

○ **Oreka:**

Berrito ere etxebizitza-lagina aukeratu zen, Kuboaren metodoari jarraiki, eta lagina orekatzeko lehen etapako aldagai berberak baliatuta.

**Ordezkoak**

Lagina osatzeko, ordezko eta erreserbako bat aukeratu zen etxebizitza titular bakoitzarentzat. Ordezkoak eta erreserbak lehen etapan aukeratutako errolda-sekzio bakoitzaren barnean atera ziren, eta oreka lortzeko Kuboaren metodoa erabili zen, etxebizitza titularren kasuan erabilitako aldagai beretan oinarrituta.

**Laginaren akats maila**

Laginketa ausazko sinplearen kasuan, % 95eko konfiantza-mailako eta bariantza maximoko tarteentzat ( $P = Q$ ) laginketaren akatsa  $\pm \% 2,84$ koa da lagin osorako. Definitutako lurralde sektore bakoitzarentzat eta balizko berberetan, laginketaren akatsak  $\pm \% 4,14$  eta  $\pm \% 3,90$  dira ekialdeko eta mendebaldeko sektoreentzat, hurrenez hurren.



### 2.3.3. Landa-lana

Landa-lana EMAIKER –Azterketa Soziologikoen Kabinetea- enpresak egin du. Bera izan da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoak lau urtean behin egindako *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (PGDI) delakoaren edizio guztietan landa-lana egiteko arduraduna.

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestari dagokion informazio bilketa 2012ko urriaren 8an hasi eta azaroaren 17an amaitu zen, eta landa-lanak berak sei aste inguru iraun zuten.

Landa-lanerako taldean arduradun bat, landa-lanaren prozesuaren koordinatzaile bat eta 18 inkestatzaile izan dira.

Galdetegiaz gain -honek euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak izan ditu-, landa-lanaren garapenean zehar erabilitako material nagusiak honakoak izan dira:

- Aurkezpen gutuna. Lana hasi baino hamabost egun lehenago gutuna bidali zen lagineko etxe titular guztietara –guztira 1.190 izan ziren-; horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren izena azaltzen zen, eta jardueraren helburu eta ezaugarri oinarrikoak, landa-lana egiteko ardura zuen enpresa, doako 900 linea bat edozein argibide nahi izanez gero hots egin ahal izateko, eta datuen babesari buruzko beste hainbat kontu halaber.
- Absentzien gutuna. Gutun hau etxe batera hiru bisita egin arren bertako inorekin harremanik izatea lortu gabeko etxe guztietara bidali zen. Gutun horretan berriro aipatzen ziren jardueraren oinarriko ezaugarriak, eta etxeari berriro lankidetzaz eskatzen zitzaion.
- Ukoen gutuna. Hasiera batean inkestan parte hartzeari uko egin zioten etxe guztietara zuzendutako gutun honetan, gogorazi egiten zitzaizkien inkestaren helburuak eta ezaugarriak, eta kasuan kasuko etxeari bere jarrera berriro pentsatzea planteatzen zitzaion.
- Inkestatzailearen kredentziala. Landa-lanean zehar, inkestak egiteko ardura zuten pertsona guztiek txartel plastifikatu bat zeramaten; horretan, lana egiten zuten enpresa eta azterketaren ardura zuen instituzioa azaltzeaz gain, pertsonaren izen-abizenak, NAN eta landa-lanaren iraupen zehatza ageri ziren.
- Kode zerrenda. Inkestatzaileek dokumentu hau erabili zuten, inkesta egindako pertsonak jaio ziren probintzia edo herrialdeari eta, lanean ari ziren pertsonen kasuan, lanbide edo egiten zuten lanari buruz emandako erantzunak kodetzeko.
- Bide-orria. Inkesta egin zuten pertsonak bisitatu eta elkarrizketa egin beharreko etxebizitzak aurkitzeko eta inkesten aurretik izandako gorabeherak jasotzeko erabili zuten dokumentua da.

Inkestak balidatzeko unean hainbat kontrol izan ziren, honakoak:

- Landa-lanaren arduradunek ikuskatzea betetako galdetegi guztiak. Ikuskatze horren barnean, logika eta koherentzia kontrolak, akatsen detekzioa, kontraesanak eta informazio faltak zeuden, eta alderdi horiek guztiak informazioa bildutako pertsonekin erkatu ziren.
- Telefono bidezko kontrolak. Guztira 295 etxetara hots egin zen, hau da, inkesta egindakoetatik % 24,8ra.

- Informatika-kontrolak, datuak grabatu ondoren horien koherentzia balidatzeko.

Guztira 1.191 etxetan egin zen inkesta -laginean jasotakoak baino bat gehiago izan ziren-. Horietatik guztietatik, % 50 etxebizitza titularrak izan ziren, % 27,4 ordezko etxebizitzak, eta % 22,6 erreserbako etxebizitzak. Etxebizitza titularren artean, erantzuteari uko egindakoak % 29 izan ziren; beste % 21ean gorabeherak batez ere etxean denbora luzez inor ez egotearekin edo etxea hutsik egotearekin egon ziren lotuta.

#### 2.3.4. Emaitzak egokitzea

Egokitzailak kalkulatzeko prozedurak bi fase izan ditu:

Lehen fasean Eustat-ek, Raking Ratio doitze metodoaren bidez, gizabanako zein etxebizitza kopuruen egokitzapena egin zuen aldi berean, etxebizitza bakoitzeko pertsona guztiei pisu bera emanaz. Doikuntzarako aldagaiak honakoak izan ziren:

- Sexua.
- Adina. Zazpi adin-tarte bereizi ziren, 0-15, 16-24, 25-35, 35-44, 45-54, 55-64 eta 65 urte eta gehiagokoak.
- Etxebizitzaren eskualdea. Kontuan hartutako eskualdeak honakoak izan ziren: Bidaso Beherea, Debarrena, Debagoiena, Donostialdea (hiriburua gabe), Donostia, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta.
- Herritartasuna. Kontuan hartu zen lurraldean dagoen herritartasun espainiarreko pertsonen eta atzerritarren banaketa.
- Familia-tamaina. Doikuntza egiteko, kontuan hartu zen familia bakoitzak Gipuzkoan duen pisu erlatiboa. Familia motak honakoak ziren: pertsona bat, bi pertsona, 3 eta 4 pertsona artekoa, eta 5 pertsona edo gehiagokoa.

Hurrengo fase batean, egokitzapenaren ondoren doikuntzan hainbat arazo detektatu eta gero, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-organo espezifikoak beste ponderatzaile bat proposatu zuen, aurrekotik abiaturik prestatutako bat; hau lortzeko planteamenduak honakoak izan ziren:

- Jatorrizko egokitzapenaren oinarri demografikoa onartzea.
- Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta/Etxebizitzaren Prestazio Osagarria jasotzen duten etxeak doitzea, printzipio hauei jarraiki:
  - Lurraldea bi zonatan bereizirik: Donostialdea (Urola Kosta, Donostia, Donostialdea eta Bidaso Beherea) eta gainontzekoa (Tolosaldea, Goierri, Debagoiena eta Debarrena).
  - Erreferentziazko pertsonaren herritartasunaren araberako banaketa: nazionala/atzerritarra.

- Beste etxeak jardueraren arabera doitzea, egokitzapenerako erreferentzia hartuz *Censo del Mercado de Trabajo* (CMT) laneko eta beroni egokitutako *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (PGDI) laneko datuak. Kontuan hartu ziren:
  - Egitura, etxean lanean ari zen pertsona kopuruaren arabera (0, 1, 2, 3 edo gehiago); datu hori CMT/PGDItik ateratzen da.
  - Jarduera eta langabezi mailetan ikusitako aldeak zirela eta, aurreko datuak doitu egin ziren pertsona aktiboak zeuzkaten etxeen kasuan, jatorrizko egokitzapenean detektatutako tipologiarekin bat, eta ondoko bi etxebizitza motak hartuz aintzat: aktibo guztiak lanean ari diren etxebizitzak, eta aktiboetako bat behintzat langabezian dagoenak.
  - Azkenean langabeziari buruzko datuak doitu ziren, langabezia erregistratuari buruz *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (PGDI) lanean jasotako aldagaiekiko hurbileneko adierazlearen arabera.
- Bere pertsona guztiak aktibo zituzten etxebizitzaren kasuan, pentsiodunei buruzko datuen doikuntza bat egin zen geroago, PGDIren egiturarekin bat, eragiketa honek modu zehatzago batez jasotzen baitu kolektiboaren guztirako bolumena. Doikuntzarako erreferentzia pentsioa zuen pertsona kopurua izan zen.
- Azkenean, atzerriko biztanleriaren bolumenaren doikuntza egin zen, 2011ko Zentsutik eta 2012ko Erroldatik ondorioztatutako biztanleriari buruzko zenbatespenarekin bat. Doikuntza horretan kontuan hartu zen etxeko atzerritar kopurua.

### 3. POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA GIZARTE BAZTERKETA EGOERAK GIPUZKOAN

Kapitulu honen helburu nagusia da gure lurraldean pobrezia ekonomikoaren, gabezia materialaren, desberdintasunaren eta gizarte bazterketaren egoerek duten eraginari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzea, horiek neurtzeko gure inguruneko ikuspegi ezagunenetatik abiatuta. Ikuspegi horiek, funtsean, Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasuneko Estatistiketatik (EU-SILC), Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestatik (PGDI) eta FOESSA Fundaziotik, gizarte bazterketaren azterlanari dagokionez, eratorritakoak dira.

Horretarako, kapitulua hiru atal handitan egituratuta dago. Lehenengoan, eta zabalenean, gure lurraldean pobrezia ekonomikoaren eta gabezia materialaren egoerek duten eragina aztertzen da, baita energia-pobreziak duen eragina ere. Era berean, diru-sarbideen banaketan oinarritutako adierazle batzuetatik abiatuta, gizarte desberdintasuna eta, azkenik, gizarte bazterketaren eragina aztertu dira, azken hau FOESSA Fundazioak garatutako adierazle batzuetatik abiatuta. Bigarren atalean, arreta pobrezia edota bazterketa arriskua handiagoa den gizarte taldeetara edo sortzen ari diren egoeretara bideratu da. Azkenik, hirugarren atalean Gipuzkoan lortutako emaitzen ikuspegi bat ematen da Europako beste herrialde batzuekin alderatuta.

Kapitulu honetan aurkezten diren datuak Gipuzkoako biztanleriari nahiz etxeei buruzkoak dira; horregatik eskaintzen ditu adierazle batek balio desberdinak azterketa-unitatearen arabera. Kontuan izanik inkestak lagin murriztu samarra duela, datuak neurritz bereiztea aukeratu da. Erabili diren aldagai independente nagusiak sexua, adina, herritartasuna (bai biztanleriarena, bai etxeen buru diren pertsonena), sektore geografikoa eta etxearen okupazio maila izan dira. Kapitulu honetan aztertzen diren adierazle guztiak, hemen aztertzen diren beste batzuekin batera, azterlan honen I. Eranskinean sartu dira. Eranskin horrek horietako bakoitzarentzat banako fitxak jasotzen ditu eta horietan, beren ezaugarri metodologikoez gain, 2012an Gipuzkoarentzat ematen dituzten emaitza nagusiak zehaztu dira.

#### 3.1. Pobreziaren, desberdintasunaren eta gizarte bazterketaren eragina Gipuzkoan

##### 3.1.1. Pobrezia eta gabezia egoerak

###### 3.1.1.1. Pobrezia eta gabezia egoerak EU-SILC metodologiatik abiatuta

Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasunaren Estatistikak, ingelesezko siglekin EU-SILC (*Statistics on Income and Living Conditions*) gisa ezagunak, 2004an hasi ziren martxan, *Europar Batasunaren Etxebizitza Panela*, POGHE deituaren ordean, europar esparruan pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borrokan dauden aurrerapenak ikuskatzeko helburuarekin, eta gaur egun Europar Batasuneko kide guztiak biltzen dituzte, Islandia eta Norvegiarekin batera. Oro har eta ikuspegi metodologiko batetik, estatistika hauek pobreziaren fenomenora gerturatzen dira, funtsean horren alderdi monetarioak eta materialak kontuan hartzen dituen hurbilketa batetik abiatuta.

###### 3.1.1.1.1. Pobrezia erlatiboa eta pobrezia larria

Pobrezia erlatiboaren tasa, diru-sarrera txikiko edo pobrezia arriskuko tasa gisa ere ezaguna dena, ikuspegi honen adierazlerik ezagunenetakoa bat da, eta duela gutxi arte Europar Batasunean pobrezia aztertzeko erreferentziazko adierazle ofiziala ere izan da. Izaera erlatiboa duen neurri objektiboa da; horretan pobrezia baliabide maila bati lotzen zaio, hau da, sarrera garbi

erabilgarrietatik portzentaje jakin bat joera zentraleko neurri bati, kasu honetan erdiko balioari, aplikatuz lortzen den zenbatekoaren azpitik dagoen baliabide mailari. Pobrezia erlatiboaren tasa, beraz, honela definituko litzateke: kontsumo-unitateko errenta baliokidearen erdiko balioaren % 60 baino txikiagoa den errenta garbi baliokidea duten pertsona edo etxeen proportzioa<sup>4</sup>.

Pobreziaren adierazle horretaz gain, modu egokiagoan ongizaterik ezaren edo errenta baxuaren adierazle gisa zehaztu daitekeena, pobrezia ikuspegi honetatik aztertzen duten azterketa gehienek pobrezia larriaren adierazlea ere badarabilte. Hori, EU-SILC metodoa jarraituz kalkulatzen da, errenta baliokidearen erdiko balioaren % 40an finkatutako atalasetik abiatuta. Kasu batean nahiz bestean, hurbilketa honi dagozkion atalase espezifikoak, metodo hori Gipuzkoako etxeen diru-sarreraren egiturari aplikatu ondoren, ondokoak izango lirateke:

### 1. taula. Diru-sarrera txikien eta pobrezia larriaren atalaseak Eurostat metodoaren arabera.

#### Gipuzkoa 2012 (euro/hil)

	Pobrezia erlatiboa	Pobrezia larria
1 pertsona	842,50	561,67
2 pertsona	1.263,75	842,50
3 pertsona	1.516,50	1.011,00
4 pertsona	1.769,25	1.179,50
5 pertsona	2.022,00	1.348,00

Oharra: Kalkuluak egiterakoan kontuan hartu da bigarren kasuan bi pertsona helduk osatutako etxea dela eta, hurrengo kasuetan, bi pertsona helduk gehi 14 urtetik beherako pertsonen osatutako etxeak direla.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren emaitzek erakusten dute 2012an Gipuzkoako biztanleriaren % 16,8 diru-sarreraren erdiko balioaren % 60aren azpitik dagoela, hau da, 120.000 pertsona inguru daude pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera txikien egoeran. Aldi berean, horien guztien laurdenak, gutxi gorabehera, biztanleria osoaren % 4,3k eta 30.000 pertsona baino gehiagok, diru-sarreraren erdiko balioaren % 40tik beherako diru-sarrera baliokideak ditu. Horrenbestez, ikuspegi honen arabera, pobrezia larriko egoeran daude.

### 2. taula. Etxeen eta biztanleriaren pobrezia erlatiboaren eta larriaren tasak. Gipuzkoa 2012

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Pobrezia erlatiboa	16,8	119.124	17,6	47.232
Pobrezia larria	4,3	30.589	4,0	10.811

Oharra: pobrezia larriko egoeran dauden pertsonak pobrezia erlatiboaren adierazlean sartuta daude.

<sup>4</sup> Metodologiaren ikuspegitik, adierazle horren ezaugarrietako bat da etxeako errenta errenta pertsonal bihurtzerakoan, kontsumo-unitate baliokideak lortzeko xedearekin, etxeako kide bakoitzari pisu desberdina esleitzen dion baliokidetasun eskala bat erabiltzen duela. Horrela, etxe batean kontsumo-unitateen kopurua kide bakoitzari esleitzen zaion pisuaren batura gisa kalkulatzen da: 1, etxeako lehenengo pertsona helduari; 0,5 gainerako pertsona helduei eta 0,3 14 urtetik beherako pertsonen. Argitu egin behar da, halaber, adierazlea hobeto ulertzearren, etxeak eragina duela adierazle hau eratzekoan, etxeako kide guztiei diru-sarrera bera esleitzen zaien neurrian. Diru-sarrera hori, etxeako sarrera guztiak lehen aipatu baliokidetasun eskala aplikatuz lortzen den kontsumo-unitateen kopuruaz zatitzean lortzen dena da. Ez da posible, beraz, etxe batean pertsona pobreak eta ez pobreak egotea; horrela, etxearen elkartasun osoaren hipotesia hartzen da kontuan, errenta bere kideen artean hainbanatzen den neurrian.

Pobrezia erlatiboaren eta pobrezia larriaren tasaren eragina oso desberdina da gizarte talde batzuetan eta besteetan. Pobrezia tasa handienak, kasu batean nahiz bestean, adin txikiko pertsonen artean ematen dira eta, bereziki, pertsona atzerritarren artean. Pertsona horien pobrezia erlatiboaren tasa Gipuzkoako batez besteko tasaren hirukoitza da. Pobrezia larriak, aldiz, talde honetan hamar pertsonatik biri baino gehiagori eragingo lioke. Era berean, 18 urtetik beherako biztanleriaren artean, pobrezia larriaren tasa, adibidez, % 6,1ean egongo litzateke, eta horrek biztanleria osorako erregistratutako tasa baino 1,8 portzentaje-puntu gehiago esan nahi du.

**3. taula. Biztanleriaren pobrezia erlatiboaren eta larriaren tasak, hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera Gipuzkoa 2012**

		Pobrezia erlatiboaren tasa		Pobrezia larriaren tasa	
		Tasa (%)	Eragindakoen kop.	Tasa (%)	Eragindakoen kop.
Sexua	Gizonezkoa	16,7	57.679	4,5	15.353
	Emakumezkoa	16,9	61.445	4,2	15.236
Adina	<18 urte	21,1	26.323	6,1	7.624
	18-44 urte	16,0	39.413	4,6	11.381
	45-64 urte	13,0	25.096	4,1	7.825
	65 urte eta gehiago	19,8	28.291	2,6	3.758
Herritartasuna	Bertakoak	14,5	96.010	3,2	21.027
	Atzerritarrak	52,8	23.113	21,9	9.561
Sektorea	Ekialdea	16,5	65.640	4,4	17.710
	Mendebaldea	17,3	53.484	4,2	12.879
Guztira		16,8	119.124	4,3	30.589

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Ez da desberdintasun handirik antzeman, ordea, Gipuzkoako lurraldea zatitu den bi sektore geografikoei dagokienez, ezta pertsonen generoari dagokionez ere. Zentzu horretan, ezinbestekoa da gogoraraztea pobrezia neurtzeko metodo honek etxea osatzen duten pertsona guztiei diru-sarrera baliokide bera esleitzen diela, eta horrek, bereziki generoaren kasuan, soldatako diru-sarrerari dagokiena bezalako esparru espezifikoetan dauden desberdintasun ekonomikoak ezkutatzea dakar<sup>5</sup>.

Nolabait, muga hori zuzendu egiten da pobreziaren tasak etxeen buru diren pertsonen ezaugarrien arabera aztertzen direnean<sup>6</sup>. Zentzu horretan, esan daiteke, emakume bat buru duten etxeen artean, pobreziaren eragina, erreferentziarako pertsona gizonezko bat duten etxeei dagokiena

<sup>5</sup> Generoaren araberako soldata desberdintasunen kontua xehetasun handiagoz landu da bizi baldintzei buruzko hirugarren kapituluari, zehazki, Gipuzkoako biztanleriaren lan baldintzei buruzko idazpuruan.

<sup>6</sup> Zehazki, ikuspegi ekonomikotik edo etxebizitzaren titulartasuna izatearen ikuspegitik etxea osatzen duten pertsonen erreferentziakotzat jotzen dituzten pertsonak dira.

baino askoz ere handiagoa dela<sup>7</sup>. Hain zuzen ere, Gipuzkoako emakumeen pobrezia tasa %16,9koa bada, emakumezkoak buru dituzten etxeetan bizi den biztanleriaren pobrezia tasa % 23,9koa da.

**4. taula. Etxeen pobrezia erlatiboaren eta larriaren tasak, etxeko erreferentziazko pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Pobrezia erlatiboaren tasa		Pobrezia larriaren tasa	
		Tasa (%)	Eragindako en kop.	Tasa (%)	Eragindako en kop.
Sexua	Gizonezkoak	15,0	28.261	3,7	6.935
	Emakumezkoak	23,9	18.972	4,9	3.876
Adina	<45 urte	16,8	13.548	4,8	3.842
	45-64 urte	14,7	14.786	4,7	4.688
	65 urte eta gehiago	21,7	18.898	2,6	2.281
Herritartasuna	Bertakoak	15,6	39.284	2,9	7.344
	Atzerritarrak	49,1	7.949	21,4	3.468
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	7,1	10.148	1,3	1.827
	Aktiboren bat lanean	20,1	6.289	4,8	1.495
	Aktiborik ez lanean	62,8	13.164	29,0	6.068
	Aktiborik ez	24,1	17.631	1,9	1.422
Guztira		17,6	47.232	4,0	10.811

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Adina eta herritartasuna –kasu honetan, etxeen buru diren pertsonena- pobrezia erlatiboarekin eta pobrezia larriarekin lotuta daude, halaber. Azken honi dagokionez, eragina % 21,4koa da atzerritarra den pertsona bat buru duten etxeen artean, eta % 4,9koa, erreferentziazko pertsona 45 urtetik beherako pertsona bat dutenen artean. Taula honetan, halaber, gauza berezi bat antzematen da. 64 urtetik gorako pertsona bat buru duten etxeek batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa den pobrezia larriaren tasa duten arren, pobrezia erlatibo handiagoa dute, aldiz, eta horren zergatia gizarte transferentzien eragina (funtsean pentsioena) izan daiteke, pobrezia larriaren murrizketan zalantzarik gabeko eragina baitute, baina askoz ere txikiagoa diru-sarrera txikiarekin lotutako pobrezia murrizteari dagokionez.

Orain arte antzemandako desberdintasunek berekin dakarte pisu kuantitatibo handiagoa egoera horien banaketan -batez ere, pobrezia larriarekin lotutakoetan- pertsona atzerritarren artean, lanean ari den aktiborik gabeko etxeetan bizi direnen artean eta, neurri txikiagoan, adingabeen artean.

**5. taula. Pobrezia erlatiboak eta pobrezia larriak eragindako biztanleriaren banaketa, hainbat**

<sup>7</sup> Ikuspegi soziologiko batetik, etxe horiek Gipuzkoako etxe guztien % 29,6 dira eta oso ezaugarri desberdinak bizi dituzte: etxe horien % 41 pertsona bakarrekoak izango lirakeke –horietako % 62,2an, 65 urtetik gorako emakumezkoa izango litzateke, normalean alarguna-; % 26 guraso bakarrekoak –horien laurdenak soilik izango luke buru gisa 45 urtetik beherako emakumezkoa-; % 19, seme-alabadun edo gabeko senar-emazteak edo bikoteak izango lirakeke, non erreferentziazko pertsona emakumezkoa den; azkenik, gainerako % 13an, nukleorik gabeko familia motako etxeak izango lirakeke. Hainbat pertsona bizi diren etxeak izango lirakeke, non, gutxienez horietako bi elkarren ahaideak diren, baina ez dago senar-emazte edo seme-alabadun edo gabeko bikote edota seme-alabadun ama edo aita motako familia talderik.

## ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012

(Portzentaje bertikalak)

		Pobrezia erlatiboko egoeran dagoen biztanleria	Pobrezia larriko egoeran dagoen biztanleria	Biztanleria guztira
Sexua	Gizonezkoa	48,4	50,2	48,7
	Emakumezkoa	51,6	49,8	51,3
Adina	<18 urte	22,1	24,9	17,6
	18-44 urte	33,1	37,2	34,9
	45-64 urte	21,1	25,6	27,3
	65 urte eta gehiago	23,7	12,3	20,2
Herritartasuna	Bertakoak	80,6	68,7	93,8
	Atzeritarrak	19,4	31,3	6,2
Sektorea	Ekialdea	55,1	57,9	56,4
	Mendebaldea	44,9	42,1	43,6
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	31,2	15,1	59,7
	Aktiboren bat lanean	18,5	18,7	16,0
	Aktiborik ez lanean	28,3	56,5	7,2
	Aktiborik ez	21,9	9,7	17,0
Guztira		100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.1.1.2. Gabezia material larria

Diru-sarrera txikiekin batera, gabezia materialeko egoerak –hau da, zailtasun ekonomikoak direla- eta oinarrizko ondasun edo ekipamenduak ez edukitzea edo funtsezkotzat jotzen diren zerbitzu edo prestazio jakin batzuk jaso ezin izatea- pobrezia-aren funtsezko beste alderdi bat dira. Zentzu horretan, diru-sarrera txikiak eta gabezia materialak ez dute batera joan beharrik; hau da, diru-sarreraren ikuspegitik pobreak diren pertsona guztiek ez dute pobre izan beharrik bizi baldintza materialen ikuspegitik, edo alderantziz. Zentzu horretan, EU-SILC ikuspegia beste adierazle batzuekin osatzen da, esaterako, gabezia materialaren ikuspegi honekin; horien bidez asmoa da pobrezia-aren definizioa jasotzen den diru kopurutik haratago doan definizioa zehaztea, baita errentak bizi baldintzetan dituen inplikazioetan sakontzea ere.

Ikuspegi honetatik diseinatutako gabezia material larriaren adierazlea, zailtasun ekonomikoak direla-eta, ondoko bederatzita itemetatik lau, gutxienez, izateko aukera ez dutela aitortzen duten pertsonak edo etxeak biltzen dituen neurria da:

- atzerapenik gabe ordaintzea alokairua edo etxebizitzaren letra eta etxebizitza nagusiaren mantentzearekin lotutako ordainagiriak (argia, gasa, zerga, etab.);
- etxea behar bezain bero mantentzea;
- 800 euroko ustekabeko gastuari aurre egitea;
- haragi, oilasko edo arrain (edo horien baliokide begetarianoen) otordu bat, gutxienez astean 3 bider;



- urtean behin astebeteko oporrak ordaintzea;
- auto bat;
- garbigailua;
- kolorezko telebista;
- telefono bat (finkoa edo sakelakoa).

Gipuzkoako etxeen % 6,1, non biztanleriaren % 5,2 bizi den, 2012an, gabezia material larriko egoeran egongo litzateke. Guztira, eragindako pertsonen kopurua 36.000tik gorakoa da. Hurrengo taulan antzeman daitekeen bezala, gabezia materialak batez ere urtean astebete oporretan joatearen aukerarekin (biztanleriaren % 34,4) eta ustekabeko gastuei aurre egiteko ezintasunarekin (%21,7) lotzen dira.

**6. taula. Etxeen eta biztanleriaren gabeziaren eta gabezia material larriaren adierazleak. Gipuzkoa 2012**

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Atzerapenak fakturretan	5,9	41.912	6,0	16.008
Tenperatura egokia	6,1	43.489	7,4	19.819
Ustekabeko gastuak	21,7	153.692	23,9	64.193
Dieta egokia	1,9	13.764	2,4	6.391
Urteko oporrak	34,4	243.208	36,5	97.804
Autoa	12,7	89.699	17,6	47.142
Garbigailua	0,2	1.216	0,1	174
Kolorezko telebista	0,4	2.854	0,9	2.499
Telefonoa (finkoa edo sakelakoa)	0,2	1.709	0,5	1.241
Gabezia material larria [4 item edo gehiago]	5,2	36.516	6,1	16.252

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Aukeratutako aldagai soziodemografikoen ikuspegitik, atzerritarrak diren pertsonen % 36,8 eta lanean ari den pertsona aktiborik gabeko etxeetan bizi direnen % 22,1, gabezia material larriko egoeran bizi dira. Gabeziaren eragina ere handiagoa da etxeeko pertsona aktiboetako bat gutxienez lanean ez den etxeetan bizi diren pertsonen artean (% 8) eta adingabekoen artean (% 8,1). Biztanleria osoaren ezaugarriak aztertzen direnean gizon eta emakumeen artean ia desberdintasunik egon ez arren, pertsonen ordeztu hartzen badira etxeak, emaitzek adierazten dute erreferentziako pertsona emakume bat dutenen artean gabezia materiala % 10,2koa dela, eta gizon bat buru duten etxeena, aldiz, % 4,3koa. Aldiz, mota horretako gabeziak neurri txikiagoan jasango lituzketenak 65 urteko eta hortik gorako pertsonak (% 2,1), aktibo guztiak lanean dituzten etxeetan bizi direnak (% 3) eta bertakoak (% 3,1) izango lirateke. Desberdintasunak oso handiak izan ez arren, inkestaren datuek adierazten dute gabezia egoera horien eragina ekialdean (Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldea) handiagoa dela mendebaldean erregistratzen diren egoerena baino.

**7. taula. Biztanleriaren pobrezia material larriaren tasa, hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Tasa (%)	Eragindako pertsonak
--	----------	----------------------

Sexua	Gizonezkoa	5,0	17.328
	Emakumezkoa	5,3	19.188
Adina	<18 urte	8,1	10.068
	18-44 urte	5,7	14.002
	45-64 urte	4,8	9.261
	65 urte eta gehiago	2,2	3.185
Herritartasuna	Bertakoak	3,1	20.420
	Atzerritarrak	36,8	16.096
Sektorea	Ekialdea	5,8	23.139
	Mendebaldea	4,3	13.376
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	3,0	12.668
	Aktiboren bat lanean	8,0	9.107
	Aktiborik ez lanean	22,1	11.301
	Aktiborik ez	2,9	3.439
Guztira		5,2	36.516

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Eurostat-en gabezia material larriko adierazle sintetikoak jasotako gabezia egoeretako batzuk xehetasunez aztertzen direnean, antzeman daiteke zein neurritan talde edo kolektibo sozial batzuek ez duten behar adinako bizi-maila izateko beharrezkoak diren zerbitzu edo ondasun jakin batzuek gozatzeko aukera: atzerrikoak diren pertsonen % 29,3k eta lanean ari den aktiborik gabeko etxeetan bizi direnen % 26k adierazten dute atzerapenak dituztela alokairuko edo hipotekako fakturretan eta horietako % 19 eta % 15, hurrenez hurren, elikadura arazoak jasaten daudekeen etxeetan bizi dira.

**8. taula. Biztanleriaren pobrezia materialaren adierazleak, hainbat ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Atzerapena fakturretan	Temperatura egokia	Ustekabeko gastuak	Dieta egokia
Sexua	Gizonezkoa	6,1	5,9	21,7	2,1
	Emakumezkoa	5,8	6,4	21,8	1,8
Adina	<18 urte	10,7	6,8	24,8	2,5
	18-44 urte	7,1	6,5	22,6	1,9
	45-64 urte	5,0	6,0	20,5	2,2
	65 urte eta gehiago	1,0	5,2	19,3	1,1
Herritartasuna	Bertakoak	4,4	4,8	19,4	0,8
	Atzerritarrak	29,3	26,3	56,5	18,8
Sektorea	Ekialdea	6,9	7,2	22,4	2,4

	Mendebaldea	4,7	4,8	20,9	1,3
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	3,5	3,4	14,6	0,9
	Aktiboren bat lanean	10,8	9,6	31,2	1,2
	Aktiborik ez lanean	25,9	21,2	58,0	14,6
	Aktiborik ez	1,4	6,1	22,4	,9
Guztira		5,9	6,1	21,7	1,9

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.1.1.3. Lan intentsitate baxua

Lan intentsitatea pobrezia azterketetan berriki sartutako kontzeptua da. Etxearen okupazio maila neurtzen du ondoko datuetatik abiatuta: berau osatzen duten pertsona potentzialki aktiboen kopurua, eta horietako bakoitzak lan egindako hilabete kopurua eta egindako jardunaldia azken urtean zehar. Dimentsio horrek zuzenean eragiten dionez etxe baten diru-sarreraren mailari, lan intentsitatea pobrezia egoeran dauden etxeen sarrera eta irteera fluxuetan funtsezko elementuetako bat da. Ideia horretatik abiatuta, EU-SILC ikuspegiak adierazle bat proposatzen du, lan intentsitate oso baxuko etxeetan bizi diren pertsonena, diru-sarrera txikiak (edo pobrezia erlatibo) eta gabezia material larria bezalako aztertutako adierazleekin batera dauden pobrezia eta bazterketa egoeren ikuspegi orokorra osatuko lukeena<sup>8</sup>.

Lan intentsitate baxuak, zehaztu den moduan, gure lurraldean biztanleriaren % 9,3ri eragingo lioke, eta horrek esan nahi du gutxi gorabehera lan intentsitatea oso baxua den etxeetan bizi diren 60 urtetik beherako 65.500 pertsona daudela. Etxeen ikuspegitik, esan daiteke, halaber, Gipuzkoan gutxienez % 20tik beherako lan intentsitatea duen potentzialki aktiboa den pertsona batek osatutako 34.800 etxe inguru daudela.

9. taula. Etxeen eta biztanleriaren lan intentsitate baxuaren tasa. Gipuzkoa 2012

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Lan intentsitate baxua	9,3	65.531	13,0	34.834

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Neurri hori ezaugarri soziodemografiko desberdinen arabera aztertzen denean, atzerrikoak diren pertsonak beste behin nabarmendu egiten dira, pertsonen proportzio handiagoa dutelako lan intentsitate baxuko etxeetan. Datu horretaz gain, adierazle honek ematen dituen emaitzek,

<sup>8</sup> Ulertzen da lan intentsitate baxua duten etxebizitzak direla lan egin dezaketen denbora guztiaren % 20 baino gutxiago lan egin duten 18 eta 59 urte bitarteko pertsonak dituztenak (ez dira kontuan hartu ikasleak diren eta 18 eta 24 artean dituzten pertsonak). Proposatutako adierazleak zentzu honetan adieraziko luke biztanleria osoaren gainean 0 eta 59 urte bitarteko pertsonen proportzioa, lan intentsitate baxuko etxeetan bizi direnak. Proportzio hori kalkulatzeko kontuan hartu behar da bai azken urtean lan egindako hilabete kopurua, bai egindako lanaldia. Horrela, adibidez, urte guztian lanaldi osoan lan egin duten bi pertsona heldu dituen etxe batean lan intentsitatea % 100ekoa izango da; aldiz, urte guztian lan egin badute baina horietako batek soilik lanaldi erdian egin badu, intentsitatea % 75ekoa izango da. Adierazle horrek bilduko lituzke, adibidez, kide aktibo guztiak langabezia dituzten etxeak edo lanaldi partziala edo baterako kontratuak, errotazio maila altukoak, dituzten etxeak, edo egoera horien konbinazio bat.

edonola ere, pobrezia beste adierazle batzuetan agertzen direnak baino desberdintasun txikiagoak erakusten dituzte ezaugarri pertsonalen arabera.

**10. taula. Biztanleriaren lan intentsitate baxuaren tasa, hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Tasa (%)	Eragindako pertsonak
Sexua	Gizonezkoa	9,7	33.545
	Emakumezkoa	8,8	31.986
Adina	<18 urte	10,8	13.494
	18-44 urte	12,2	30.045
	45-64 urte	11,4	21.991
	65 urte eta gehiago	0,0	0
Herritartasuna	Bertakoak	8,5	56.161
	Atzerritarak	21,4	9.370
Sektorea	Ekialdea	8,5	34.077
	Mendebaldea	10,2	31.454
Guztira		9,3	65.531

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Lan intentsitate baxuaren eragina, EU-SILC ikuspegiak zehaztu duen moduan, halaber, aztertu daiteke, ez kontuan hartuz biztanleria lanari dagokionez ez oso intentsiboak diren etxeetan bizi den edo ez, baizik eta etxe bakoitzaren batez besteko lan intentsitatea eta beronen erdiko balioa. Zentzu horretan, ondoko taularen datuak gutxienez pertsona aktibo bat lanean duten etxeetan bizi den 0 eta 59 urte bitarteko biztanleriari buruzkoa da. Emaitzek erakusten dute, adibidez, atzerriko pertsonak zein puntutaraino duten lan intentsitate baxuagoa, izan ere, aktibo guztiak lanean dituzten etxeetan bizi direnen kasuan ere batez besteko lan intentsitatea % 63,5ekoa da, 0 eta 59 urte bitarteko bertako pertsonen % 81,4ren aurrean.

**11. taula. Gutxienez lanean ari den pertsona aktibo bat duten etxeetan dauden 0 eta 59 urte bitarteko biztanleak, etxe motaren eta etxearen lan intentsitatearen arabera (%), hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Pertsona aktibo guztiak lanean		Soilik pertsona aktibo batzuk lanean		Guztira	
		Batez beste	Erdiko balioa	Batez beste	Erdiko balioa	Batez beste	Erdiko balioa
Sexua	Gizonezkoa	81,7	90,5	47,1	50,0	77,0	73,9
	Emakumezkoa	79,1	86,9	43,5	50,0	78,6	72,4
Adina	<18 urte	79,8	85,1	47,5	50,0	81,1	75,0
	18-44 urte	80,0	87,5	45,3	50,0	77,0	72,4
	45-59 urte	81,4	90,5	44,7	50,0	77,0	72,9

Herritartasuna	Bertakoak	81,4	90,5	44,3	50,0	78,6	74,1
	Atzerritarrak	63,5	50,0	54,0	58,6	50,0	60,1
Sektorea	Ekialdea	79,7	87,5	47,7	50,0	77,0	73,0
	Mendebaldea	81,1	87,8	42,5	50,0	77,8	73,4
Guztira		80,3	87,8	45,5	50,0	77,0	73,1

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

#### 3.1.1.1.4. Pobrezia eta bazterketa arriskua (AROE tasa)

Europar Batasunak 2010etik pobrezia neurtzeko adierazle berri bat du, Europa Estrategia 2020 delakoaren esparruan sortua. Horren asmoa da diru-sarreretan oinarritutako pobrezia adierazleek baino modu osatuago batean islatzea pobrezia eta gizarte bazterketaren azpian dauden faktoreen ugaritasuna. Adierazle berri horrek, AROPE tasa gisa ezagutzen da ingelesez dituen siglengatik (*At Risk Of Poverty and Exclusion*), horrela, pobrezia eta gizarte bazterketa arriskua neurtzen du ez soilik diru-sarreraren atalase espezifiko batetik abiatuta, baizik eta pobrezia beste bi dimentsio gehigarri sartuz, gabezia materialarena eta lan intentsitatearena. Zehazki, pobrezia eta gizarte bazterketaren tasak gutxienez ondoko egoeretako batek eragindako biztanleriaren proportzioa adierazten du:

- Diru-sarrera baxuak edo pobrezia erlatiboa, hau da, pobrezia atalasearen azpitik dauden diru-sarrera baliokideak izatea. Atalase hori biztanleriaren errenta garbi erabilgarri baliokidearen % 60an zehazten da.
- Gabezia material larria, hau da, etxe batean bizitzea non, zailtasun ekonomikoengatik, ondoko egoeretako lau edo gehiagoren kasuan gabezia gertatzen den: alokairua edo hipoteka ordaintzea, etxebizitza tenperatura egokian mantentzea, ustekabeko gastuei aurre egin ahal izatea, haragi edo arrain otordu bat egin ahal izatea gutxienez astean hirutan, etxetik kanpo oporretara joatea gutxienez urtean astebete, auto bat, garbigailu bat, kolorezko telebista bat eta telefono bat (finkoa edo sakelakoa).
- Lan intentsitate oso baxua edo, gauza bera dena, hirurogei urte baino gutxiago eduki eta etxe batean bizitzea non bertako kide aktiboek aurreko urte osoan zehar euren lan ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egin duten.

Laburbilduz, aipatu kalkulu metodologiaren arabera, pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan egongo lirake beren diru-sarreraren maila pobrezia erlatiboaren atalasearen azpitik duten pertsonak edota gabezia material larriak jasaten dituztenak edo enplegu intentsitate baxuko etxeetan bizi direnak. AROPE tasaren eragina gure lurraldean % 22,7koa da, eta hori termino absolutuetan 160.500 pertsona inguru eta ia 70.000 etxe dira.

**12. taula. Biztanleriaren eta etxeen pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuaren tasa (AROE). Gipuzkoa 2012**

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Pobrezia arriskua edo diru-sarrera baxuak	16,8	119.124	17,6	47.232

Gabezia material larria	5,2	36.516	6,1	16.252
Lan intentsitate baxua	9,3	65.531	13,0	34.834
AROPE tasa	22,7	160.572	26,0	69.665

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Kontuan izanik adierazle horren irismena nahiko zabala dela –hau da, kontuan hartutako alderdietako bat soilik ematen duten egoerak nahiz hiru neurriak dituzten egoerak biltzen ditu-, bere eragina nahiko altua da, bereziki, lehen ikusi dugun bezala, pobrezia erlatiboaren, gabezia materialaren edo lan intentsitate baxuaren arrisku handiagoa duten taldeen artean. Horrela, atzerriko pertsonen kasuan, pobrezia eta gizarte bazterketaren tasak hamar pertsonatik zazpiti eragingo lioke eta lanean ari den aktiborik gabeko etxeetan bizi diren hamar pertsonatik bederatziti. Era berean, adinaren eta pobrezia eta bazterketa arriskuaren artean harreman garbia antzeman da; eragina handiagoa da, hain zuzen ere, biztanleria gazteagoaren artean.

**13. taula. Biztanleriaren pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuaren tasa (AROPE), hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Tasa (%)	Eragindako pertsonak
Sexua	Gizonezkoa	22,5	77.634
	Emakumezkoa	22,9	82.938
Adina	<18 urte	26,6	33.213
	18-44 urte	23,4	57.634
	45-64 urte	20,6	39.725
	65 urte eta gehiago	21,0	30.001
Herritartasuna	Bertakoak	19,5	129.210
	Atzeritarrak	71,7	31.362
Sektorea	Ekialdea	23,2	92.389
	Mendebaldea	22,1	68.183
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	11,5	48.391
	Aktiboren bat lanean	30,1	34.131
	Aktiborik ez lanean	87,3	44.615
	Aktiborik ez	27,8	33.435
Guztira		22,7	160.572

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Dena den, adierazlearen ikuspegi murriztaileago bat aplikatzen bada eta aldi berean hiru arazoak biltzen dituzten pertsonak batzen badira –hau da, errenta baxuak, gabezia material larria eta lan intentsitate baxuko etxeetan elkar biltzea-, arazoaren eragina nabarmen murrizten da: kasu horretan, biztanleriaren % 1,5 inguru (10.700 pertsona) eta etxeen % 2 (5.000 pasatxo) pobrezia eta bazterketa egoera larrian daudeke.

**14. taula. Etxebizitzetan AROPE tasan sartutako hiru egoerak batera ematea, etxe-ko erreferentziako pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Tasa (%)	Eragindako pertsonak
Sexua	Gizonezkoa	1,3	2.458
	Emakumezkoa	3,5	2.786
Adina	<44 urte	4,0	3.216
	45-64 urte	2,0	2.028
	65 urte eta gehiago	0,0	0
Herritartasuna	Bertakoak	1,0	2.578
	Atzerritarrak	16,5	2.666
Sektorea	Eki alde	2,1	3.290
	Mendebaldea	1,7	1.954
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	0,3	383
	Aktiboren bat lanean	0,0	0
	Aktiborik ez lanean	20,0	4.197
	Aktiborik ez	0,9	665
Guztira		2,0	5.245

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Egoera horien eragina minimoa izan arren eta datuen adierazgarritasuna, beraz, txikia izan daitekeen arren, emaitzek adierazten dute pobrezia eta bazterketa larriko egoera horiek, batez ere, atzerritarrak diren pertsonak buru dituzten etxeetan (% 16,5) eta lanean ari den aktiborik ez dutenetan (% 20) pilatzen direla. Era berean, eragin hori handiagoa izango litzateke, halaber, emakume bat buru duten etxeetan (% 3,5) eta buru gisa 45 urtetik beherako pertsona bat duten etxeetan (% 4).

### 3.1.1.1.5. Biztanleria okupatuaren diru-sarrerara baxuak

Biztanleria okupatuaren diru-sarrerara baxuen edo pobrezia arriskuaren tasaren adierazlearen bidez hurbiltzen da EU-SILC ikuspegia langile pobreen fenomenora; ingelesezko literatura zabalean *working poors* deritze. Adierazle horrek 18 urte eta gehiago dituzten pertsona okupatuaren proportzioa adierazten du –gutxienez datu hau jaso aurreko urtean zazpi hilabetez-, pobrezia erlatiboko egoeran dauden etxeetan bizi direnak. Adierazle horrek azken urteotan areagotuz doan egoera neurtzea ahalbidetzen du, lan merkatuan gertatu diren aldaketetatik eratorria. Honetan, nahiz eta enplegua den oraindik pobreziaaren aurrean babesteko tresna nagusia, langile pobreak, hau da, enplegua eduki arren pobreziaaren atalase jakin batzuk gaintzen ez dituzten langileak agertzeak, horren ahalmen integratzailea zalantzan jartzea eragin du.

Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren Inkestatik Gipuzkoarako lortutako datuek adierazten dute gure lurraldean 18 urtetik gorako pertsona okupatuaren % 7k diru-sarrerara baxuak dituela edo, gauza bera dena, ez duela pobrezia erlatiboa zehazteko finkatutako diru-sarreraren atalasea gaintzen.

**15. taula. Biztanleria okupatuaren diru-sarrera baxuen tasa. Gipuzkoa 2012**

	Tasa (%)	Eragindako pertsonak
Diru-sarrera baxuak	7,0	19.322

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Zein faktore lotzen dira langileen arteko pobrezia-ekin? Banako mailatik, emaitzek erakusten dute fenomeno honek neurri handiagoan eragiten diela atzerritarrak diren pertsona lanpetuei (% 28,5), baita beren lan zikloaren erdialdean dauden pertsoneri ere (% 8,3 35 eta 44 urte bitartekoen artean). Datuek erakusten dute, era berean, desberdintasunak txikiak direla gizonen (% 7,1) eta emakumeen (% 6,7) artean, nahiz eta horiek handiagoak diren emakume bat buru duten etxeak (% 7,9) eta gizon bat buru duten etxeak (% 7,9) alderatzerakoan.

Ezinbestekoa da, edonola ere, kontuan hartzea adierazle horrek ez duela zertan lotuta egon soldata baxuekin, izan ere, horren gainean eragina dute bestelako aldagaiek ere, oro har familiaren osaketa edo neurriarekin zerikusia dutenek. Azalpena erraza da pobrezia familia eskalan neurtzen dela kontuan hartzen bada. Adibidez, pertsona bakar batentzako adinako soldata, pobrezia soldata izan liteke jasotzen duenaren, bere bikotekidearen eta bere seme-alaben biziraupena bermatzeko; era berean, behar adinakoa ez den soldata batek ez du pobrezia-ara eramaten ondo ordaindutako norbaitekin bizi den pertsona bat. Azalpen horrek, adibidez, balio du hobeto ulertzeko zergatik 18 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuek (% 3,6), horietako asko oraindik emantzipatu gabek, 35 eta 44 urte bitartekoek (% 8,3) baino tasa txikiagoa erregistratzen duten; edo zergatik langile pobreen eragina handiagoa den familia ugarietan bizi diren pertsona okupatuen artean.

Etxearen neurri handiagoarekin (neurri handi batean seme-alaba kopuru handiagoarekin lotuta) eta pertsona aktibo okupatuen proportzioarekin batera, guraso bakarreko familia izatea da fenomeno honetan eragin garbiena duten faktoreetako beste bat. Hain zuzen ere, lan egiten duten eta guraso bakarreko familien buru diren pertsonen artean diru-sarrera baxuen tasa, % 28,7, Gipuzkoako pertsona aktibo guztiei dagokiena (% 7) baino lau bider handiagoa da.

**16. taula. Biztanleria okupatuaren diru-sarrera baxuen tasa, pertsonen eta etxeen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Tasa (%)	Eragindako pertsonak	
Ezaugarri pertsonalak	Sexua	Gizonezkoa	7,1	10.584
		Emakumezkoa	6,7	8.738
	Adina	18-34	3,6	2.396
		35-44	8,3	7.061
		45 edo gehiago	7,9	9.865
	Herriartasuna	Bertakoak	5,5	14.229
Atzerritarrak		28,5	5.093	
Etxeen ezaugarriak	Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	5,5	12.997
		Aktiboren bat lanean	15,1	6.325
	Erreferentziazko pertsona ren sexua	Gizonezkoa	6,7	14.621
		Emakumezkoa	7,9	4.700
	Etxearen neurria	1 pertsona	4,4	899



		2 pertsona	6,3	3.072
		3 pertsona edo gehiago	7,4	15.351
	Familia osaketa	Pertsona bakarrekoa	4,8	899
		Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea	4,1	869
		Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea	9,5	7.927
		Guraso bakarrekoa	28,7	2.379
		Bestelako familiak edo egoerak	7,7	376
	Sektorea	Ekialdea	6,8	11.086
		Mendebaldea	7,1	8.236
	Guztira		7,0	19.322

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Nahiz eta, adierazi den bezala, biztanleria okupatuaren arteko diru-sarrera baxuko egoera guztiek ez duten zertan egon kasu guztietan soldata bereziki baxuekin lotuta, kontua da langile pobreen eta soldata baxuen arteko lotura oso garbia dela. Biztanleria okupatuaren batez besteko soldata, pobrezia erlatiboaren atalasearen azpitik kokatzen diren ala ez diren kontuan hartuz ezartzen bada, antzeman daiteke langile pobreen soldataren batez besteko zenbatekoa pobreak ez direnen soldataren ia erdia dela.

**17. taula. Lanetik datorren batez besteko diru-sarrera garbia eta beronen erdiko balioa, lanean ari den biztanleriaren diru-sarrera baxuen tasaren arabera. Gipuzkoa 2012**


	Batez besteko diru-sarrera garbia (euro/hil)	Diru-sarrera garbien erdiko balioa (euro/hil)
Diru-sarrera baxuko biztanleria okupatua	848,9	750,0
Diru-sarrera baxurik gabeko biztanleria okupatua	1.622,9	1.500,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Bestalde, biztanleria okupatuaren artean diru-sarrera baxuen tasaren eragina enpleguarekin lotutako hainbat ezaugarriren arabera aztertzen bada, inkestak erakusten du autonomo gisa lan egiten duten, aldi baterako kontratua duten edo lanaldi partziala burutzen duten pertsonen % 13 eta % 14 inguruk pobrezia erlatiboko egoerak bizi dituztela. Aldiz, kontratu mugagabea edukitzeak, lanaldi osoz lan egiteak eta, batez ere, sektore publikorako lan egiteak<sup>9</sup> arrisku hori nabarmen murrizten duke.

**1. grafikoa. Biztanleria okupatuaren diru-sarrera baxuen tasa, enplegu ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2012**

<sup>9</sup> Maila honetan sartu dira Herri Administrazio edo enpresa publikoetako soldatapeko langile guztiak, baita kooperatibetako bazkideak ere, horiengan guztiengan antzeko ongizate mailak antzeman direlako diru-sarrerei dagokienez.



Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.1.1.6. Pobreziaren arraila

Pobreziaren fenomenoak behar bezala ezagutzeko ezinbestekoa da, bere eragina aztertzeaz gain, erakusleren bat zehazten saiatzea, horren intentsitatea ezartzea ahalbidetzen duen bat, horrela larritasun maila ezagutzeko. Pobreziaren intentsitatea neurtzeko neurririk ezagunena, Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasuneko Estatistikek (EU-SILC) ere eskaintzen dutena, pobreziaren arrail<sup>10</sup> gisa ere ezagutzen dena da.

Neurri hori azterlan honetarako lortutako laginari aplikatuz, batez beste, Gipuzkoan, pertsona pobreen edo, hobeto esanda, diru-sarrera baxuak dituztenen diru-sarrerak pobrezia arriskuaren atalasea baino % 25,9 baxuagoak izango lirarteke.

18. taula. Pobreziaren arraila. Gipuzkoa 2012

	Diru-sarrera baliokideen erdiko balioaren % 60aren gaineko %
Pobreziaren arraila	25,8
Diru-sarreraren erdiko balioa	1.404,17
Pobreziaren atalasea	842,50
Biztanleria pobreen diru-sarreraren erdiko balioa	669,87

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.1.1.7. Hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasuna

<sup>10</sup> Pobreziaren arraila edo, halaber, pobreziaren intentsitate (ingelesez, *poverty gap*) deritzonaren adierazlea pobreziaren atalasearen (gizarte transferentzien ondoren diru-sarrera baliokideen erdiko balioaren % 60tik aurrera neurtua) eta atalase horren azpitik dauden pertsonen kontsumo unitateko diru-sarreraren erdiko balioaren artean dagoen desberdintasuna azaltzen duen adierazlea da, pobrezia atalasearen portzentaje gisa adierazia. Beste modu batera esanda, adierazle honek pobreziaren atalasearen eta pertsona pobreen diru-sarreraren erdiko balioaren artean dagoen distantzia edo zuloa neurtuko luke.

Hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasuna aldagai subjektibo bat da eta horren bidez etxeak eta hauek osatzen dituzten pertsonak sailkatu daitezke, etxearen egungo diru-sarrerak kontuan hartuz hilabete bukaerara iristeko adierazitako zailtasun mailaren arabera. Aldagai hau oso lotuta dago pobrezia mailekin, beraz, ohikoa da pobrezia beste adierazle bat bezala erabiltzea.

Gipuzkoan, hamar etxetik lauk baino zertxobait gehiagok, zehazki, % 43,1ek, zailtasunen bat adierazten du hilabete bukaerara iristeko. Horietatik guztietatik, hala ere, soilik etxe guztietatik heren batek, hau da, %14,8k, adierazten duke zailtasun maila larriagoak. Etxeen % 17,5ek, aldiz, ulertzen du hilabete bukaerara erraz edo oso erraz iristen dela, eta % 39,4k nolabaiteko erraztasunarekin. Termino absolutuetan, datu horiek iradokitzen dute Gipuzkoan 99.500 pertsona inguru izango lirakeela hilabete bukaerara zailtasun maila handi batekin iristen direla adierazten dutenak.

**19. taula. Biztanleriaren eta etxeen banaketa, hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasunaren arabera.**

Gipuzkoa 2012

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
[1] Ia ezinean	6,2	43.844	6,4	17.215
[2] Nekez	7,9	55.666	8,4	22.577
[3] Zailtasunez	27,4	194.044	28,3	75.790
[4] Erraz antzean	39,4	278.581	39,4	105.567
[5] Erraz	16,8	118.810	15,5	41.588
[6] Oso erraz	2,3	16.331	2,0	5.497
Guztira	100,0	707.276	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Talde soziodemografiko desberdinei dagokienez, hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasunaren eragina oso handia da pertsona atzerritarren artean (% 44,2) eta, batez ere, pertsona aktiboetako inork ere enplegurik ez duen etxeetan bizi diren pertsonen artean (% 52,8). Proporzio hori zertxobait handiagoa da, halaber, emakumeen artean (% 14,7) eta, adinari dagokionez, alderantzizko erlazio oso deigarria adierazten du. Lortutako emaitzen arabera, antzeman daiteke zailtasun ekonomikoko egoerak murriztu egiten direla adinaren arabera; horrela, proporzio hori ia % 18koa da pertsona adingabeen kasuan eta soilik % 10,5ekoa 64 urtetik gorako pertsonen artean.

**20. taula. Biztanleriaren banaketa hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasuna kontuan hartuta, hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Ia ezinean	Zailtasunez	Erraz antzean	Oso erraz
	[1]+[2]	[3]	[4]	[5]+[6]

Sexua	Gizonezkoa	13,4	27,1	39,6	19,9
	Emakumezkoa	14,7	27,7	39,2	18,4
Adina	<18 urte	17,9	27,9	36,1	18,1
	18-44 urte	15,9	26,4	39,1	18,6
	45-64 urte	11,9	25,9	39,6	22,7
	65 urte eta gehiago	10,5	30,9	42,6	16,1
Herritartasuna	Bertakoak	12,1	27,2	40,6	20,2
	Atzerritarrak	44,2	31,7	21,1	3,0
Sektorea	Ekiialdea	14,3	26,7	37,5	21,5
	Mendebaldea	13,8	28,3	41,8	16,0
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	9,7	20,3	46,6	23,5
	Aktiboren bat lanean	14,3	50,7	20,1	14,9
	Aktiborik ez lanean	52,8	24,2	19,7	3,3
	Aktiborik ez	12,8	32,0	40,7	14,5
Guztira		14,1	27,4	39,4	19,1

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Neurri subjektibo bat izan arren, galdera honetan lortutako emaitzak orain arte aztertutako pobrezia eta gabeziaren adierazle objektiboekin gurutzatzen badira, antzeman daiteke horien arteko asoziazioa oso argia dela. Pobrezia larriko egoerak eragindako hamar pertsonatik ia bederatzik eta lan intentsitate baxua jasaten duten pertsonen proportzio berak dute zailtasunen bat hilabete bukaerara iristeko. Gabezia material larriko egoerak jasaten dituzten pertsonen kasuan proportzio hori ia % 100ekoa da, eta horrek erakusten du lotura estua dagoela aldagai horren eta etxeen gabezia materialen artean.

**21. taula. Biztanleriaren banaketa hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasuna kontuan hartuta, hainbat pobrezia egoeraren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Nekez edo zailtasunez	Erraz antzean edo erraz
		[1]+[2]+[3]	[4]+[5]+[6]
Pobrezia erlatiboa	Bai	84,2	15,8
	Ez	34,3	65,7
Pobrezia larria	Bai	89,6	10,4
	Ez	41,1	58,9
Gabezia material larria	Bai	97,4	2,6
	Ez	39,6	60,4
Lan intentsitate baxua	Bai	89,7	10,3
	Ez	38,9	61,1
Pobrezia eta bazterketa arriskua (ARPE)	Bai	83,9	16,1
	Ez	31,0	69,0

Guztira	Guztira	43,1	56,9
---------	---------	------	------

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.1.2. Pobrezia egoerak eta ongizaterik gabeak, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) metodologiak abiatuta

Gure lurraldeko pobrezia egoeren irismenari buruzko azterlana Eusko Jaurlaritzaren *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI)* ikuspegia erabiliz osatu daiteke. Inkesta hau esparru honetan fenomeno hau aztertze dagoen tresna finkatuenetako bat da.

Biztanleriaren behar-pertzepzio subjektiboetan oinarritutako pobrezia objektiboaren adierazleak eraikitze metodologiatik abiatuta, ikuspegi honek bi dimentsio desberdin hartzen ditu kontuan –eta hau da bere ekarpenik nagusienetako bat- pobreziaren errealitateak aztertzerakoan: mantentze pobrezia eta metatze pobrezia. Lehenengo dimentsioa, epe laburrean, oinarritzko beharren estaldurari aurre egiteko baliabide ekonomikoen urritasunari buruzkoa da -bereziki elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetako gastuekin lotutakoak-, bigarrenak, aldiz, epe ertain eta luzeko kontsumo modalitateekin lotutako eskasia egoeretan, eta beraz, horiek gainditzeko etxeen baliabide mailan egoeraren arabera aldaketan hain mende ez daudenetan, jartzen du arreta.

Idazpuru honetan azterketak lehenengo dimentsioan jartzen du arreta eta proposamen alternatibo bat eskaintzen du Eurostat-ek behar adinako diru-sarrerak edo kontsumo ahalmena lortzeko terminoetan neurtutako pobreziaren azterketarako proposatzen dituen izaera erlatiboko adierazle objektiboan aurrean. Proposamen honen ezaugarri nagusietako bat da diru-sarrera baxuko edo pobrezia egoera baten adierazle gisa proposatzen dituen atalaseak ez direla oinarritzen erreferentziako portzentaje arbitrario batean, baizik eta eragindako biztanleriaren beraren pertzepzioetan. Zehazki, PGDIk darabilen metodoa SPL (*Subjective Poverty Line*) metodoaren egokitzapen batean oinarritzen da, non pobreziaren ideia hilabete bukaerara iristeko gutxieneko diru-sarreraren pertzepzio sozialarekin lortzen den. Zehazki, PGDI bi adierazle desberdin erabiltzen dira: hilabete bukaerara iristeko beharrezko gutxienekoa eta oinarritzko beharrak estaltzeko beharrezko gutxienekoari buruzkoa; horrela, lehenengoa ongizaterik ezaren kontzeptuarekin lotuta geratuko litzateke, eta bigarrena, pobreziarekin, zentzu zorrotzean.

Horrenbestez, PGDIk pobreziaren errealitatearen aurrean etxeen egoera aztertzerakoan, hiru egoera desberdin hautemango lituzke: ongizate egoera, ongizaterik ezaren egoera baina ez pobrezia egoera eta, azkenik, pobrezia egoera. Bakoitzaren definizioa jarraian adierazten da:

- Pobrezia: Pobrezia larriko arriskuan daude, erreferentzia aldi jakin batean, oinarritzko behar horiei aurre egiteko adierazitako atalasearen azpitik dauden diru-sarrerak dituzten etxeak eta pertsonak.
- Mota honetako pobrezia neurtzeko egiten dena da elikadura, arropa, etxe eta oinetakoen oinarritzko gastuei aurre egiteko gutxieneko errenta zenbatekoa den kalkulatu.
- Ongizaterik eza: ongizaterik ezaren arriskuan daude, erreferentzia aldi jakin batean, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate maila horiek lortzeko adierazitako atalasean azpitik dauden diru-sarrerak dituzten etxeak eta pertsonak. Kasu honetan, egiten dena da kalkulatu zenbateko errenta den beharrezkoa gizarte horren bizimoduan, ohituretan eta jarduera arruntetan parte hartzeko –gutxieneko baldintzetan bada ere-. Errenta hori ez dutenek ongizaterik ezaren arriskua bizi dute.
- Ongizatea: egoera honetan daude mantentze dimentsioko pobrezia arazorik edo ongizaterik eza ez duten pertsonak, familiak edo etxeak. Horien ezaugarria da ez dutela bizi, epe

laburrean, baliabide eskasiarik oinarrizko beharren estaldurari aurre egiteko, ezta ongizate egoerara iristeko beharrezkoak diren gutxieneko gastuei aurre egiteko ere.

Aipatutakoez gain, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren beste ezaugarri espezifiko bat da pobreziaren eta ongizaterik ezaren atalaseen kalkulua bereizitako hiru adin taldeetarako, bizitza zikloarekin lotutako behar ekonomiko desberdinak jasotzeko xedearekin. Horrela, behar eta pobrezia atalaseak lortzen dira etxearen erreferentziatzko pertsonaren adinaren arabera; hiru talde nagusi bereizten dira: 45 urtetik beherakoak, 45 eta 64 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak<sup>11</sup>.

**22. taula. Mantentze pobreziaren eta ongizaterik ezaren atalaseak, PGDI metodoaren arabera.**

2012 (Datuek euro/hil dira)

Kide kop.	<45 urte		45-64 urte		65 urte edo gehiago	
	Pobrezia	Ongizaterik eza	Pobrezia	Ongizaterik eza	Pobrezia	Ongizaterik eza
1	855,7	1.164,5	855,0	1.198,7	677,4	927,0
2	1.132,6	1.514,7	1.078,5	1.592,3	915,8	1.272,7
3	1.334,4	1.766,6	1.235,5	1.880,1	1.092,4	1.531,8
4	1.499,0	1.970,3	1.360,5	2.115,3	1.238,0	1.747,1
5	1.640,6	2.144,3	1.466,1	2.317,8	1.364,2	1.934,7
6	1.766,1	2.297,8	1.558,4	2.497,5	1.476,8	2.102,9
7	1.879,7	2.436,2	1.641,1	2.660,4	1.579,3	2.256,4

Iturria: Enpleguaren Europar Behatokia. Enplegu eta Gizarte Politiketako Departamentua. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012.

PGDI adierazleen arabera, 2012an pobrezia arriskuak gure lurraldean biztanleriaren % 7,8ri eragiten dio, eta horrek esan nahi du 55.100 pertsona inguru eta ia 23.400 etxe daudela beren oinarrizko beharrak estaltzeko adina baliabide ez dutenak. Bestalde, ongizaterik eza biztanleriaren % 11,4ra iristen da, hau da, 80.900 pertsona inguru eta 36.000 etxe baino gehiagotara. Hauek, oinarrizko beharrak estali ahal izan arren ez dute beharrezkotzat jotzen ditugun bizimoduan, ohituretan eta jardueretan parte hartzeko adinako diru-sarrerarik. Azkenik, datuek erakusten dute, halaber, biztanleriaren ia % 81, hamar pertsonatik zortzi, ongizate egoera batean egongo lirakeela mantentze dimentsioaren barruan. Horrenbestez, ez lukete jasango epe laburrean oinarrizko beharrak estaltzeko edo sozialki oinarrizkotzat jotako bestelako ondasun edota zerbitzu motak lortzeko beharrezko gutxieneko gastuei aurre egiteko baliabide eskasiako egoerarik.

**23. taula. Pobreziaren, ongizaterik ezaren eta ongizate egoeren gailentasuna mantentze dimentsioan. Gipuzkoa 2012**

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Pobrezia	7,8	55.112	8,7	23.383
Ongizaterik eza	11,4	80.870	13,5	36.127

<sup>11</sup> Arrazoi metodologikoengatik, eta bi inkeston lagin-neurria kontuan hartuz, txosten honetan erabilitako pobrezia eta ongizaterik ezaren adierazleak ezartzerakoan PGDI bertatik EAE osorako eratoritzen diren atalaseetara jo da, ez Gipuzkoako PGBItik eratoritzen direnetara.

Ongizatea	80,8	571.293	77,8	208.725
Guztira	100,0	707.276	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzetatik eta Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) metodologiatik abiatuta guk geuk eratu.

Datu horiek berak talde desberdinetan duten eraginaren arabera aztertzen direnean, berriro ere antzematen da zein neurritaraino lotzen den herritartasuna pobrezia egoeren gailentasun handiagoarekin. Hain zuzen ere, lehen aipatzen bazen hamar pertsonatik 8, mantentze dimentsioaren barruan, ongizate egoera batean zeudela, atzerriko pertsonen kasuan proportzio hori soilik % 44koa da, ia erdia. Antzemandako datuen arabera, atzerriko herritartasuna duten pertsona guztien herena pobrezia egoera batean egongo litzateke eta ia laurdena ongizaterik ezaren egoera batean.

Adinari dagokionez ere lotura argia da, batez ere, pobreziaren eragina aztertzen denean. Horrela, antzematen da 18 urtetik beherako biztanleriaren pobrezia tasa biztanleria osorako erregistratzen dena baino 1,6 bider handiagoa dela eta hirukoiztu egiten du 65 urte eta gehiago dituzten pertsonen dagokiena.

**24. taula. Biztanleriaren pobrezia eta ongizaterik ezaren tasa mantentze dimentsioan, hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Pobrezia		Ongizaterik eza	
		Tasa (%)	Pertsonak	Tasa (%)	Pertsonak
Sexua	Gizonezkoak	7,6	26.252	10,2	35.216
	Emakumezkoak	8,0	28.860	12,6	45.654
Adina	<18 urte	12,3	15.284	10,7	13.361
	18-44 urte	8,4	20.832	10,9	26.934
	45-64 urte	7,1	13.732	9,5	18.331
	65 urte eta gehiago	3,7	5.264	15,6	22.244
Herritartasuna	Bertakoak	6,2	41.113	10,6	70.205
	Atzerritarrak	32,0	14.000	24,4	10.665
Sektorea	Ekialdea	7,5	30.109	11,5	45.719
	Mendebaldea	8,1	25.004	11,4	35.151
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	3,2	13.441	6,6	27.810
	Aktiboren bat lanean	7,5	8.528	18,5	21.026
	Aktiborik ez lanean	51,4	26.264	19,4	9.933
	Aktiborik ez	5,7	6.879	18,4	22.102
Guztira		7,8	55.112	11,4	80.870

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Adierazle hauen beren azterketak emaitza esanguratsuak ematen ditu, halaber, biztanleria ezaugarri soziodemografiko jakin batzuetatik abiatuta kontuan hartu beharrean, etxeak eta horien osaketa aztertzen direnean. Zentzu horretan, antzeman daitekeen bezala, lehen adierazitako datu batzuk baieztatzen dira –hain zuzen ere, atzerriko pertsonak buru diren etxeen pobrezia arriskua bertakoek dutena baino 5 bider handiagoa da, eta erreferentziazko pertsona gisa pertsona gazte bat dutenen arriskua 65 urte eta gehiago dituzten pertsonak buru dituzten etxeena baino 3,6 bider handiagoa da-, baina beste batzuk ere antzematen dira. Zentzu horretan, adieraz daiteke, EU-SILC adierazlearen kasuan ere antzeman zitekeen bezala, pobrezia eragina nabarmen handiagoa dela emakume bat buru duten etxeetan (% 12,3; pertsona nagusi gisa gizon bat duten etxeetan, aldiz, % 7,2), baita ongizaterik eza ere. Etxeak enpleguarekin lotzea ere oso argigarria da, erakusten baitu zein neurritaraino dauden zabaldua pobrezia egoerak lanean ari den pertsona aktiborik ez duten etxeetan edo, beste ikuspegi batetik, ongizaterik ezaren egoerak etxe batean non aktibo guztietatik parte batek bakarrik duen enplegua.

**25. taula. Pobrezia eta ongizaterik ezaren tasa mantentze dimentsioan eta eragindako etxeetan, etxeko erreferentziazko pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Pobrezia		Ongizaterik eza	
		Tasa (%)	Pertsonak	Tasa	Pertsonak
Sexua	Gizonezkoak	7,2	13.579	10,4	19.665
	Emakumezkoak	12,3	9.804	20,7	16.462
Adina	<45 urte	12,6	10.186	11,0	8.864
	45-64 urte	10,1	10.160	10,4	10.452
	65 urte eta gehiago	3,5	3.038	19,3	16.811
Herritartasuna	Bertakoak	6,9	17.350	13,0	32.748
	Atzeritarrak	37,2	6.033	20,9	3.379
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	3,5	5.067	7,1	10.130
	Aktiboren bat lanean	8,1	2.533	20,3	6.326
	Aktiborik ez lanean	53,7	11.246	18,7	3.914
	Aktiborik ez	6,2	4.536	21,6	15.757
Guztira		8,7	23.383	13,5	36.127

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.1.3. Pobrezia energetikoa

Pobrezia energetikoaren kontzeptua (*fuel poverty*) hirurogeita hamargarren hamarkadan jaio zen Europako esparru anglosaxoian, testuinguru batean non etxeek, egungoarekin alderatuta errenta maila baxuagoa zuten, energia-kostu handiagoei aurre egin behar zieten, hein batean petrolioaren krisialdiaren ondorioz, baina baita eraikin eta etxeen baldintza desegokiengatik ere. Pobrezia energetikoaren lehenengo definizioa Lewis-en eskutik azaldu zen<sup>12</sup> 1982an, lehenengoz gai hau jorratu zuen azterlan batean; bertan etxebizitza bat tenperatura egokian mantentzetik eratorritako gastuari aurre egiteko ezintasuna aipatzen zen. Ondoren, definizio hori beste egile batzuek

<sup>12</sup> Lewis P. (1982). *Fuel poverty can be stopped*. Bradford: National Right to Fuel Campaign.



berrikusi zuten, esaterako, Brenda Boardman-ek<sup>13</sup> (1991) eta geroago J. Peter Clinch eta John D. Healy-k<sup>14</sup> (2001); hauek eskaini zuten definizioan pobrezia energetikoa etxebizitzan tenperatura egokia mantentzeko ezintasunarekin lotzen zuten, diru-sarrera baxuen eta etxearen baldintza txarren (energia eraginkortasunik eza) ondorioz.

Gaur egun, eta sortu zenetik hiru hamarkada igaro diren arren, pobrezia energetikoaren kontzeptuak garapen desberdina izan du europar esparruan, eta esan daiteke oraindik ez dagoela argi eta garbi definituta herrialde gehienetan, eta soilik Europar Batasuneko bi herrialdek, Irlandak eta Erresuma Batuak dituztela definizio ofizialak. Hala ere, haziz doan kontzeptua da eta geroz eta arreta handiagoa eskaintzen zaiona, ez soilik ikerketatik<sup>15</sup>, baita politika publikoen diseinutik ere.

Oro har, pobrezia energetikoa etxeko beharrak asetzeko adinako energia-zerbitzuak (gasa, elektrizitatea, etab.) ordaintzeko gai ez diren edo euren diru-sarreraren gehiegizko zati bat beren etxeen energia-faktura ordaintzeko erabiltzera behartuta dauden etxeek jasaten dituzten egoerekin lotzen da. Garrantzitsua da aipatzea, halaber, pobrezia energetikoa diru-sarrera baxuko etxeekin lotu ohi den arren, ez dela ahaztu behar horren eraginean zerikusia dutela, diru-sarrerez gain, etxebizitzaren energia-eraginkortasunik edo energiaren prezioak.

### 3.1.1.3.1. Pobrezia energetikoa etxeen pertzepzioan oinarrituta

Pobrezia energetikoaren eraginaren neurketara egin daitekeen lehenengo hurbilketetako bat adierazle sintetiko batean oinarritzen da –aldi berean beste hiru adierazlek osatutako oso formula errazetik abiatuta egindakoa-, 2004an Jonathan D. Healy eta John Linch ikerlari irlandarrek proposatu zutena. Adierazle hori pobrezia energetikoaren fenomenora hurbiltzen da etxebizitzaren egoerari eta etxearen bizi baldintzei buruzko inkesta egin zaion biztanleriaren adierazpenetan oinarritutako ikuspegi subjektibo batetik. Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoa eraikitzeko beharrezkoak diren hiru adierazleak ondoko galderei buruzkoak dira:

- Esan zertarako ahalmena duzuen etxebizitzan: [...] Etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzeko hilabeterik hotzenetan.
- Joandako 12 hilabeteetan, eta zailtasun ekonomikoak medio, izan al duzu atzerapenik etxea mantentzearekin loturiko erreziboak ordaintzeko (ura, gasa, elektrizitatea, komunitatea, etab.)?
- Hurrenez hurren azaldutako arazoren bat al du zure etxebizitzak? [...] Itoginak, hezetasunak hormetan, lurzoruan, sabaian edo zimenduetan, edo usteltasunak lurzoruetan, leiho edo ate markoetan?

Adierazle honek dituen mugen artean adierazi behar da izaera subjektiboa duela, batez ere, etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ahalmenari buruzko galderaren kasuan eta, zertxobait zehaztugabea dela, funtsean hezetasunen kontuari dagokionez. Aldiz, indar bat du: Eurostat-en datu basetik abiatuta Europar Batasuneko herrialdeen artean pobrezia energetikoaren irismena alderatzea ahalbidetzen duen pobrezia energetikoaren adierazle bakarra da.

Pobrezia energetikoaren ikuspegi horretatik abiatuta, 2012an Gipuzkoarako lortutako emaitzek adierazten dute etxeen % 7,4k aitortzen duela ez dela gai bere etxea hilabete hotzetan tenperatura egokian mantentzeko eta % 4,1ek azken urtean zehar atzerapenen bat izan duela energiarekin

<sup>13</sup> Boardman B. (1991). *Fuel Poverty: From Cold Homes to Affordable Warmth*. London: Belhaven Press.

<sup>14</sup> Clinch J.P. eta J.D. Healy (1999). "Alleviating fuel poverty in Ireland: A programme for the 21st century", in *International Journal for Housing Science*, 23(4):203-15

<sup>15</sup> Estatuaren esparruan, ezinbestekoa da aipatzea 2012an argitaratu zen *La Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas* txostena, txosten honen bibliografian aipatzen dena, izan ere, Espainiako energia-pobrezia xehetasunezko lehenengo azterketa da. Halaber, nabarmendu daiteke Espainiako Iraunkortasunaren Behatokiak kontzeptu hau lehendabizikoz sartu izana 2012an, bere urteko txostenean. Bertan adierazten da energia-txostenak etxebizitzaren errentan egun dagoen krisiaren eragina jasateaz gain, etxeko energiaren etxebizitzaren gastuaren gehikuntzaren ere jasan duela, neurri handi batean elektrizitatearen etxeko tarifen gehikuntzatik eratorria.

lotutako ordainagiriaren ordainketan. Gainera, etxean % 9,2k adierazten du itoginak, hezetasanak edo usteltasunak izan dituela etxean. Hiru adierazle horietatik abiatuta, pobrezia energetikoaren adierazle konposatuak Gipuzkoarako % 13ko balioa ematen du, biztanleriaren kasuan, eta % 14koa, etxean kasuan.

**26. taula. Etxeen eta biztanleriaren pobrezia energetikoaren tasa. Gipuzkoa 2012**

	Etxeak		Pertsonak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
[1] Temperatura egokia	7,4	19.819	6,1	43.489
[2] Atzerapenak ordainagiriak ordaintzerakoan	4,1	10.899	4,5	31.909
[3] Hezetasanak	9,2	24.642	9,1	64.638
Hiru itemak daude	0,5	1.236	0,4	2.652
Gutxienez item bat dago	17,2	46.101	16,0	113.136
Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoa	14,0	--	13,0	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Aurreko taularen emaitzetatik abiatuta adieraz daiteke, halaber, soilik etxean zati txiki batek, % 0,5ek, dituela, aldi berean, hautatutako adierazleek aipatutako hiru arazoak; gutxienez horietako bat gutxi gorabehera Gipuzkoako 46.100 etxetan ematen da, eta hori horien guztien % 17,2 da.

**27. taula. Etxeen pobrezia energetikoaren tasak, etxeko erreferentziako pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera.**

Gipuzkoa 2012

		Adierazleak			Adierazle sintetikoa
		Temperatura desegokia	Atzerapenak fakturretan	Hezetasanak etxebizitzan	Pobrezia energetikoa
Sexua	Gizonezkoak	5,5	3,9	8,9	11,9
	Emakumezkoak	11,8	4,5	9,9	19,1
Adina	<45 urte	7,9	7,9	12,8	18,2
	45-64 urte	7,3	3,4	9,5	13,8
	65 urte eta gehiago	7,0	1,2	5,5	10,4
Herritartasuna	Bertakoak	6,3	2,9	9,1	12,3
	Atzerritarrak	24,3	22,5	10,2	40,6
Sektorea	Ekialdeko sektorea	8,8	4,5	10,1	16,0
	Mendebaldeko sektorea	5,4	3,5	8,0	11,2
Etxearen okupazioa	Aktibo guztiak lanean	4,1	2,7	9,4	10,1

maila	Aktiboren bat lanean	10,1	9,3	9,9	19,7
	Aktiborik ez lanean	23,4	15,7	23,2	42,9
	Aktiborik ez	8,1	1,2	4,4	10,9
Guztira	Guztira	7,4	4,1	9,2	14,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Aurreko taulan antzematen den bezala, atzeritarrak diren pertsonak buru dituzten etxeetan eta pertsona aktiborik lanean ez dutenetan pobrezia energetikoa jasateko arriskua nabarmen handiagoa da, izan ere, horren adierazle sintetikoak ia hirukoiztu egiten du Gipuzkoako etxe guztiei dagokiena. Bi taldeetan, desberdintasun handienak etxebizitza bero mantentzeko ahalmenari eta ordainagiriak ordaintzerakoan atzerapenak izateari buruzko adierazleetan ematen dira. Etxe guztietarako 14ko adierazle sintetiko baten aurrean, halaber, balio handiagoak adierazten dituzte, 20 ingurukoak, emakumezkoak buru dituzten etxeek, 44 urtetik beherako pertsonak buru dituztenek eta osatzen dituzten pertsona aktibo guztietatik soilik parte bat lanean dutenek.

### 3.1.1.3.2. Etxeetako gastuen eta diru-sarrereren arteko harremanean oinarritutako pobrezia energetikoa

Etxeetan pobrezia energetikoaren eragina neurtzerakoan beste hurbilketa bat, hau ere baliozkoa, etxearen gastu eta diru-sarreretan oinarritutako ikuspegiak eskaintzen duena da. Batez ere Erresuma Batuan eta Irlandan garatu da ikuspegi hau eta etxeetako energia-kontsumoaren gastuaren eta diru-sarrera guztien artean dagoen harremanean jartzen du arreta. Adibidez, urte askotan zehar, Erresuma Batuan pobrezia energetikoa neurtzeko modu ofizialak pobrezia energetikoaren atalase gisa hartzen zuen diru-sarrereren % 10, nahiz eta tasa hori kalkulatzeko ez zen etxeen benetako gastua kontuan hartzen, energia-gastu teorikoa baizik, hau da, tenperatura egokiaren maila bermatzeko beharrezkoa.

Etxeen gastu eta diru-sarreretatik abiatutako lehenengo hurbilketa honetan pobrezia energetikoaren atalasea % 10ean kokatzea aukeratu da, hau da, pobretzat jotzea diru-sarrera garbien % 10 gainditzen duen etxeko energiaren urteko gastua duten etxeak. Benetan erabaki arbitrario bat da<sup>16</sup>, eta hala ere neurri batean egokitzat jo daiteke. Hain zuzen ere, atalase hori, aurrerago egiaztatu ahal izango den bezala, Gipuzkoan lortzen den batez besteko proportzioaren ia bikoitza da, beraz, ikuspuntu horretatik, diru-sarrera garbi guztien % 10 energiaren ordainagiriak ordaintzeko erabiltzen duen etxe bat benetan neurritz kanpoko gastua egiten ari dela uler daiteke.

Ikuspegi honetatik abiatuta, Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestako datuek erakusten dute, batez beste, Gipuzkoako etxeek beren diru-sarrera garbi guztien % 5,3 elektrizitate, gas edo etxearen esparruan erabilitako beste edozein erregairen ordainagiriak ordaintzeko erabiltzen dutela. Emaitzek halaber erakusten dute, kontuan hartutako atalasearen arabera, 10 etxetatik 9k baino gehiagok bere diru-sarrereren % 10etik gorako energia-gastua dutela, eta horrek esan nahi du Gipuzkoan 25.200 etxe inguru daudela energian neurritz kanpoko gastua dutenak.

## 28. taula. Energia-gastuen eta etxearen diru-sarrera guztien arteko harremana. Gipuzkoa 2012.

<sup>16</sup> Atalase honen ezarpena 1988ko Familia Gastuaren Inkestaren emaitzetatik abiatu zen. Horietan adierazten zen diru-sarrera baxuenak zituzten pertsonen % 30ek energian beren diru-sarrereren % 10 gastatzen zutela; hori dela-eta, datu hori hartu zen gastuen maila gisa, eta horren gainetik ulertzen zen pertsona bat energia-pobreziaren egoeran zegoela, nahiz eta azkenaldian ikuspegi honek oinarri zientifikorik ez duela adierazi zen, ez zegoelako behar adinako oinarririk atalase horretan.

	Etxeak		Pertsonak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Energia-gastua ≤ diru-sarreraren % 5	59,8	160.422	65,8	465.704
Energia-gastua > diru-sarreraren % 5	40,2	107.813	34,2	241.572
Energia-gastua > diru-sarreraren % 10	9,4	25.254	6,9	48.752
Diru-sarreraren gaineko energia-gastuaren %	5,3	--	--	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Ondoko taulan antzeman daitekeen bezala, lortutako emaitzek adierazten dute oso lotura estua dagoela pobrezia monetario erlatiboaren eta pobrezia energetikoaren artean. Hain zuzen ere, 2012rako datuek agerian jartzen dute pobrezia larriak eragindako etxeen artean –beraz, diru-sarrera baliokideen erdiko balioaren % 40ko atalasearen azpitik daudenak- pobrezia energetikoaren egoeran dauden etxeen proportzioa % 57,5ekoa dela. Egoera horretan bi faktorek beren ekarpena izan dezakete. Lehenengoa eta garrantzitsuena: diru-sarrerak etxe batzuetatik beste batzuetara asko aldatzen direnez, antzeman da energia-gastua oso antzekoa dela horietan guztietan, eta horrek iradokitzen du hori ez dagokeela lotuta hainbeste etxearen gastuekin, bai ordea erosotasun onargarriko maila batzuk mantentzeko beharrezko gutxieneko estandar batekin. Bigarrena: kontuan hartu beharoko litzateke halaber, diru gutxien duten pertsonak hein handiago batean gainerakoak baino okerrago egokitutako eta hornitutako etxebizitzetan bizi direla, eta horrek energia-eraginkortasun falta handiagoa dakar, eta beraz, gastu handiagoa bideratzea energia-faktura ordaintzera.

**29. taula. Energia-gastuen eta etxearen diru-sarrera guztien arteko harremana, etxeko erreferentziako pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera.**

**Gipuzkoa 2012**

		Diru-sarreraren % 10etik gorako energia-gastua duten etxeen %	Energia-gastuak diru-sarreretan dakarren batez besteko %
Sexua	Gizonezkoak	5,1	4,7
	Emakumezkoak	19,8	6,7
Adina	<45 urte	5,5	4,6
	45-64 urte	7,0	4,8
	65 urte eta gehiago	15,9	6,6
Herritartasuna	Bertakoak	9,2	5,3
	Atzerritarrak	13,1	5,0
Sektorea	Ekialdeko sektorea	10,0	5,1
	Mendebaldeko sektorea	8,6	5,6
Etxearen okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	3,4	4,2
	Aktiboren bat lanean	6,1	4,9
	Aktiborik ez lanean	26,8	8,0

	Aktiborik ez	17,7	6,9
Etxearen neurria	Pertsona bat	18,6	6,6
	Bi edo hiru pertsona	9,1	5,3
	Hiru pertsona edo gehiago	2,8	4,2
Pobrezia larria	Bai	57,5	10,6
	Ez	7,4	5,1
Guztira	Guztira	9,4	5,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Lortutako emaitzek ere erakusten dute, aurrekoaren haritik, pobrezia energetikoak neurri handiagoan eragiten diela emakume bat buru duten etxebizitzetara eta pertsona aktiborik lanean ez dutenei, hau da, diru-sarrerara baxuen eragina handiagoa duten etxeei. Bitxia da, pertsona atzeritarrak buru dituzten etxeen artean, pobrezia tasa nabarmen handiagoak izan arren, pobrezia energetikoaren tasa ez izatea batez bestekoa baino askoz ere handiagoa, eta horrek esan nahi du etxe hauetan energia-gastua oso txikia dela. Azkenik, adierazi behar da etxeen okupazio mailaren – hau da, etxeak kideen kopurua- eta pobrezia energetikoaren artean dagoen harreman garbia. Horrela, antzeman daiteke pertsona bakarreko etxeetan eragina gainerako etxeen eraginaren bikoitza dela.

### 3.1.2. Gizarte desberdintasuna

Nahiz eta gizarte desberdintasuna eta desberdintasun ekonomikoa ez diren termino parekagarriak -gizarte desberdintasuna, dimentsio anitzeko fenomeno bat izanik, oso esparru desberdinen gainekoa izan daiteke, esaterako, legearen edo hezkuntzaren esparrukoak, eztaba da, eta are gehiago gurea bezalako kontsumo gizarte batean, desberdintasun ekonomikoa gizarte desberdintasunaren zati esanguratsua dela.

Desberdintasun ekonomikoaren azterketaren barruan, errentaren banaketaren desberdintasunari buruzko azterketak, zalantzarik gabe, leku nagusi bat du. Eman daitezkeen arrazoiak hainbat dira<sup>17</sup>. Lehendabizi, errenta pertsonala, bai enplegutik datorrena, bai transferentzia sozialetatik datorrena, gaur egun gizabanakoen kontsumo aukeren oinarritzko mugatzailea da eta, beraz, ongizate materialaren adierazle eztaba da, hau zentzu zabalean hartuta. Bigarren, diru-sarreraren banaketak zuzenean politika ekonomiko eta sozialen ohiko tresnen bidezko eragina jasan dezakeelako, zerga eta transferentzien bidez, funtsean. Eta azkenik, errenta magnitudeari buruz informazio estatistikoa dagoelako, nahiko fidagarria eta aldizka jasotzen dena.

Horregatik guztiatik, eta gure lurraldeko desberdintasun sozialaren panoramika bat eskaintzeko helburuarekin, atal honetan diru-sarreraren desberdintasunaren adierazle ezagunenetako bitan, Gini koefizientearen eta S80/S20 erlazio edo indizean, 2012an Gipuzkoarako lortutako emaitzak aztertu dira.

#### 3.1.2.1. Gini koefizientea

<sup>17</sup> GOERLICH, F.J. eta A. VILLAR (2009). Desigualdad y bienestar social. De la teoría a la práctica. Bilbo: BBVA Fundazioa.

Gini koefizientea lurralde jakin batean diru-sarreraren desberdintasuna edo aberastasunaren desberdintasuna neurtzeko gehien erabiltzen den neurrietako bat da. Halaber, mundu osoan gehien erabiltzen den errentaren desberdintasun neurrietako bat da, Eurostat, ELGE edo Munduko Bankua bezalako erakundeek aldizka eskaintzen dituzten adierazleen barruan dago, eta oso erabilgarria da lurralde jakin baten gizarte desberdintasunaren baldintzak ezagutzeko eta beste batzuekin alderatzeko.

Metodologiaren ikuspegitik, koefiziente honek banatutako biztanleriaren pisu metatuaren eta eskuragarri duten errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa adierazten du. Eraitza, zero eta bat artean dagoen balio bat da, non zerok berdintasun perfektua adierazten duen (pertsonek guztiak diru-sarrera berdina dituzte) eta batek, desberdintasun perfektua (pertsonek batek diru-sarrera guztiak dituzte eta gainerakoek bat ere ez). Azterlan honetan datuak portzentajeetan adierazi dira, beraz, balio txikiaren erreferentzia 0 izango da, eta handienarena, 100. PGBIko datuen arabera, Gipuzkoan, Gini koefizientea 27,2koa da 2012an.

**30. taula. Gini koefizientea. Gipuzkoa 2012**

Gini koefizientea	27,2
-------------------	------


Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Adierazle honen esanahia hobeto ulertzeko argigarria izan liteke grafiko batean irudikatuta ikustea. Izan ere, adierazle hau barne hartzen duten liburu eta artikuluetan aurkitu ohi den definizioa geometrikoa da. Horrela, adieraz daiteke Gini koefizientea zera dela, zatidura bat, hain zuzen ere Lorenz-en kurbak –biztanleriaren portzentaje metatua, biztanleria horrek duen diru-sarreraren portzentaje metatuarekin lortzen duen kurba- eta ekitate osoa irudikatzen duen 45°ko diagonalak batera mugatzen duten eremuaren eta ekitateari eta kontzentrazio sozialari dagozkien irudikapenek tartean hartzen duten eremuaren artekoa<sup>18</sup>.

Hurrengo grafikoan antzematen den bezala, Gipuzkoari dagokion Lorenz-en kurbak diru-sarreraren portzentaje metatuak hartzaileen proportzio metatuarekin lotuta erakusten ditu, pertsona pobreenengandik hasita. Horrela, Gini indizeak Lorenz-en kurbaren eta erabateko ekitatearen lerro hipotetiko baten arteko azalera neurtuko luke, lerroaren azpian gehienezko azalaren portzentaje gisa adierazita. Horrexegatik, 0 Gini indizeak ekitate perfektua irudikatzen du eta 100eko indize batek ekitate ez perfektua irudikatzen du. Lorenz-en kurba erabateko berdintasunaren lerro hipotetikotik aldentzen doan neurrian, horrek esan nahi du diru-sarreraren desberdintasuna handiagoa dela.

## 2. grafikoa. Gini koefizientea. EB-5-15 2011 eta Gipuzkoa 2012

<sup>18</sup> FERREIRA, E. eta A. GARÍN (1997). “Una nota sobre el cálculo del índice de Gini”, *Revista Estadística Española*. .39. lib., 142. zk., 1997, 207. orritik 218.era.



Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.1.2.2. S80/S20 erlazioa

Adierazle hau (ingelesez, *Income quintile share ratio*) diru-sarreretan oinarritutako desberdintasunaren fenomenora hurbiltzen da diru-sarrera baliokide handienak dituzten pertsonen % 20k jasotako diru-sarrera guztien eta diru-sarrera baliokide txikienak dituztenen % 20k jasotako arteko erlazioa adierazten duen neurri baten bidez. Eurostat-ek erabili ohi duen neurria da eta diru-sarreraren desberdintasuna neurtzen du. Koefizienteak adierazten du diru-sarrera handienak dituzten lurren jakin bateko pertsonen % 20k diru-sarrera txikienak dituzten pertsonen % 20k baino X bider errenta handiagoa duela.

Hain zuzen ere, S80/S20 adierazleak –aipatu den bezala, diru-sarrera handienak dituen biztanleriaren % 20aren errenta eta diru-sarrera txikienak dituztenen % 20arena lotzen dituen lurren jakin bateko pertsonen % 20k diru-sarrera txikienak dituzten pertsonen % 20k baino 3,8 bider diru-sarrera handiagoak dituela. Gainera, neurri hori ateratzeko beharrezkoa izanik biztanleria kintiletan zatitzea bere diru-sarrera guztietan oinarrituta, halaber, Gipuzkoaren kasurako zehaztasun handiagoz antzeman daiteke banaketa hori. Horrela, antzematen da errenta txikiena duen biztanleriaren % 20k errenta osoaren % 9 kontzentratzen duela, eta diru-sarrera handiena duen % 20k, berriz, errenta osoaren ia % 34 jasotzen duela<sup>19</sup>.

**31. taula. Kintilen eta 80/20 adierazlearen arabeko diru-sarrera guztien banaketa. Gipuzkoa 2012**

	1. kintila	2. kintila	3. kintila	4. kintila	5. kintila	S80/S20
Gipuzkoa 2012	9,0	14,24	18,70	24,10	33,95	3,77

<sup>19</sup> Garrantzitsua da adierazteko datuok soilik familien diru-sarrerei buruzkoak direla, ez beren ondare higigarri eta higiezinari buruzkoak; horiek sartzeak, zalantzarik gabe, oso datu desberdinak emango lituzke aberastasunaren banaketari dagokionez.

### 3.1.3. Gizarte bazterketako egoerak

Oso zabala den ikuspegi batetik, gizarte bazterketa bizitzaren esparru desberdinetan (ekonomia, lana, materiala, familia, gizarte, politika, etab.) ematen diren zatikatze edo urruntze sozialaren prozesuekin dago lotuta. Gizarte bazterketaren kontzeptuak gizarte zientzien azterketetan nahiko ibilbide zabala duen arren, ezin daiteke gauza bera esan horren neurketari buruz, edo gutxienez, hori aztertze adostasunezko adierazle bat edo batzuk erabakitzeari buruz. Kasu honetan, zalantzarik gabe, pobrezia kasuan baino are gehiago, zailtasuna are handiagoa da fenomenoak berak dimentsio ugari dituelako.

Hori neurtzeko duela gutxiakoak eta ezagunenak diren proposamenen artean pobrezia eta gizarte bazterketaren tasa (AROPE) aipa daiteke, Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasuneko Estatistiken (EU-SILC) esparruan sortua, kapitulu honetan aztertzen dena. Hala ere, adieraz daiteke oso mugatua dela gizarte bazterketa neurtzen saiatzerakoan, soilik mota ekonomiko eta materialeko alderdiak hartzen baititu kontuan.

#### 3.1.3.1. Gizarte bazterketa FOESSA Fundazioaren adierazleen sistemaren bidez

Azken urteotan gizarte bazterketaren neurketaren inguruan egin den hurbilketarik berrienetako bat, espainiar estatuaren esparruan, FOESSA Fundazioarena izan da. Bere abantaila nagusia da alderdi ekonomiko eta materialez gain, bazterketan eragina duten gainerako dimentsioak (osasuna, etxebizitza, parte-hartze politikoa eta soziala) ere kontuan hartzen dituela, fenomeno hau dimentsio eta prozesu anitzeko kontzeptu gisa hartuta.

Horretarako, ereduak gizarte bazterketaren hiru ardatz hartzen ditu kontuan (ekonomikoa, politikoa eta soziala edo harremanezkoa), horietako bakoitzean bi dimentsioekin: besteak beste, produkzioan parte hartzea, soldata-harreman normalizatu batetik bazterketan agertzen dena; kontsumoan parte hartzea, pobrezia ekonomiko eta gabezia gisa agertzen dena; herritartasun politikoa, eskubide politikoak modu eraginkorrean izatearen eta abstentzionismo eta pasibotasun politikoaren bidez neurtua; herritartasun soziala; gizarte eta familia gatazkak; eta harreman sozial eza eta harreman sozial gaiztoen existentzia, “desbideratutako” sare sozialetan emandako gizarteratze gisa ulertuta.

**32. taula. Gizarte bazterketaren adierazleak, dimentsio eta ardatz anitzetan taldekatuta**

Ardatzak	Dimentsioak	Alderdiak	Adierazleak
Ekonomikoa	Produkzioan parte hartzea	Soldata-harreman normalizaziotik baztertzea	I1 etik I6ra
	Kontsumoan parte hartzea	Pobrezia ekonomikoa	I7
		Gabezia	I8
Politikoa	Herritartasun politikoa	Eskubide politikoak modu eraginkorrean izatea	I9
		Abstentzionismoa eta pasibotasun politikoa	I10
	Herritartasun soziala	Hezkuntza modu mugatuan izatea	I11tik I13ra
		Osasungintza modu mugatuan izatea	I22tik I27ra
Soziala	Gizarte gatazka,	Familia gatazkak	I28tik I29ra



(harremane zkoa)	anomia	Portaera asozialak	I30etik I31ra
		Delituzko portaerak	I32
	Gizarte isolamendua	Familia babesik gabe	I33
		Auzokoekin gatazkak	I34
		Instituzionalizazioa	I35

Iturria: RENES AYALA, Victor (koord.) (2008). VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008. Madril: FOESSA Fundazioa. 215. orr.

Kontzeptu-esparru horretatik abiatuta, 35 adierazleko talde bat ezarri da, eta horren ezaugarri nagusia da esparru desberdinetan bazterketa arazo edo egoerak islatzen saiatzen direla, horietako bakoitzean, bazterketa larria dakartenak eta, horrenbestez, etxeen proportzio txiki bati eragiten diotenak. Gipuzkoarako 35 adierazle horietako bakoitzean lortutako emaitzak<sup>20</sup> honela laburbiltzen dira:

<b>33. taula. Gizarte bazterketaren FOESSA adierazleak. Datu erlatiboak eta absolutuak, pertsona eta etxeenak. Gipuzkoa 2012</b>				
	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa	Kop.	Tasa	Kop.
1. Erreferentziako pertsona duela urtebete edo gehiago langabezian dagoen etxeak. Ekonomiaren edo etxebizitzaren titularitatearen ikuspegitik etxea osatzen duten pertsonak nagusizat hartzen duten pertsona da.	5,4	37.929	5,0	13.481
2. Erreferentziako pertsonak bazterketa-enplegu bat (lan kontraturik gabeko bat) duen etxeak. Jatorrizko adierazle sisteman aldagai honen helburua bere edukiagatik bazterketako enplegutzat har daitezkeenak (saltzaile ibiltariak, kartoi-biltzaileak, nekazaritzako aldi baterako peoiak, etab.) dituzten erreferentziako pertsonak identifikatzea bazen ere, Gipuzkoan egindako lanean, horrelako egoerarik detektatu ez denez, adierazlea aldatzera eta bazterketako enplegua eta kontraturik gabeko enplegua parekatzera jo da.	0,3	2.339	0,2	522
3. Erreferentziako pertsonak bazterketako enplegua (Gizarte Segurantzaren estaldurarik gabe) duen etxeak.	1,3	8.884	1,0	2.729
4. Pertsona okupaturik, pentsiodunik zein kotizatu dutenen langabeziagatik prestaziorik gabeko etxeak.	3,4	23.763	4,5	12.124
5. Pertsonak langabezian, eta azken urtean lanbide-prestakuntzarik jaso gabe, dituzten etxeak.	19,3	136.224	15,2	40.839
6. Pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxeak. 16 eta 64 urte bitarteko adinak dituzten kideetako inork okupaziorik ez duen etxeak dira.	1,6	11.429	3,3	8.912
7. Muturreko pobrezia: famili errenta baliokidearen % 30aren azpitiko sarrerak. Adierazle hau prestatzeko, jarraitu egin da sarrera baliokideen erdiko balioa kalkulatzeko Eurostat-en EU-SILC metodologia. Gipuzkoaren kasuan, pertsona bakarrak osatzen duen etxearen kasuan atalase hau 421,25 euro/hil izango litzateke, hau da, 5.055,01 euro/urte.	1,7	11.898	1,8	4.782
8. Ekonomiak aukerarik ematen ez diela eta, gizartearen % 95 baino gehiagorentzat oinarritzakoa den ondasunen bat ez duten etxeak. Ekipamendu hauek sartzen dira: ur korrantea, ur beroa, elektrizitatea,	0,3	1.863	0,2	647

<sup>20</sup> Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012n ez dira kontuan hartu 13, 31 eta 35 adierazleak. 13 eta 31 adierazleei dagokienez, arrazoia izan da ez dela halako kasurik jaso. 35 adierazlearen kasuan, zuzenean ez sartzea erabaki zen, FOESSA Inkestaren 2009-10 ekitaldian egin zen bezala.

hondakin urak ateratzea, bainugela osoa, sukaldea, garbigailua, hozkailua.				
9. Batasunetik kanpoko herritartasuna duen 18 urte edo gehiagoko pertsonaren bat duten etxeak.	7,2	50.718	6,0	16.09 2
10. Hauteskundeetan parte hartzen ez duten -interes faltagatik edo ezertarako balio ez duela uste dutelako- eta inolako herri erakunderen kide ez diren etxeak.	3,4	24.362	4,6	12.255
11. Eskolatu gabeko 3 eta 15 urte bitarteko pertsonak dituzten etxeak.	0,1	918	0,1	230
12. 16 eta 65 urte bitarteko inork ikasketarik ez duen etxeak. 16 eta 44 urte bitartekoak, OHO, DBH edo Eskola Graduatua osatzeko; 45 eta 64 urte bitartekoak, 5 urte baino gutxiago eskolan.	8,1	57.369	7,2	19.278
13. 64 urtetik gorako pertsona analfabetoak dituzten etxeak.	0,5	3.328	0,7	1.821
14. Infraetxebizitzetan bizi direnak: txabola, etxabea, barrakoaia, aurrefabrikatua edo antzekoa*. Gipuzkoaren kasuan ez da mota honetako inolako egoerarik detektatu, batez ere diseinatu den etxebizitzaren laginak ez dituelako mota horretakoak jasotzen.	--	--	--	--
15. Eraikuntzan arazo larriak dituzten edo erortzeko dauden eraikinetan dauden etxebizitzak.	2,9	20.776	3,0	7.917
16. Hezetasuna, zikinkeria eta usainak dauden eraikinetako etxebizitzak. Gipuzkoaren kasuan, adierazle honek itoginak dauden, pareta, zoru, sabai edo zimenduetan hezetasuna dagoen, edo zoru, leiho-marko edo ate-markoak ustelduta dituzten etxe guztiak hartuko lituzke.	9,1	64.638	9,2	24.64 2
17. Pilaketa larria jasaten duten etxeak (<15m2 erabilgarri pertsonako)	5,1	35.880	2,8	7.484
18. Edukitza prekarioko eraikinetako etxebizitzak (doan lagatakoa, berralokatua, okupatua)	0,1	429	0,1	214
19. Oso ingurune degradatuko eraikinetan dauden etxebizitzak. Gipuzkoaren kasuan, adierazle hau eraikitze kontuan hartu da gutxienez ondoko bost egoeretatik lau gertatzea: delinkuentzia edo bandalismoa, kaleen garbitasun eskasa, berdegune gutxi, komunikazio txarrak eta industriak edo trafikoko eragindako kutsadura, zikinkeria edo beste ingurumen arazo batzuk inguruan.	1,5	10.857	1,8	4.895
20. Arkitektura-hesiak dituzten eta elbarritasun fisikoa duten pertsonak dauden etxeak.	2,7	19.416	3,1	8.330
21. Etxebizitza-gastu gehiegizkoak dituzten etxebizitzak (sarrerak - etxebizitzako gastuak < muturreko pobrezia-aren atalasea). Etxebizitzako gastutzat hartu dira bakar-bakarrik hipotekaren letra edo errenta ordaintzetik datozenak.	5,2	36.673	5,3	14.30 8
22. Osasun-estaldurarik gabeko norbait duten etxeak.	0,5	3.363	0,9	2.453
23. Gosea pairatzen duten edo azken 10 urteetan zehar egoera hau sarritan igaro duten etxeak.	0,9	6.280	0,9	2.466
24. Pertsona heldu guztiak ezintasun, gaixotasun kroniko edo osasun arazo larriren bat duten eta arazo horiek pertsonari eguneroko bizimoduko jardueretarako muga eragiten dieten etxeak.	1,3	9.465	2,7	7.147
25. Mendekotasuna duten pertsonak, eguneroko bizimoduko jardueretarako beste pertsona batzuen laguntza eta zaintza behar duten eta hori jasotzen ez duten pertsonak, dauden etxeak.	0,3	2.053	0,2	548
26. Urtebetean osasun zerbitzuak erabili ez dituzten pertsona gaixoak dituzten etxeak. Pertsona gaixotzat hartu dira osasun txar edo oso txarrekotzat jotako osasuna dutenak.	0,6	3.904	0,6	1.608
27. Zailtasun ekonomikoaren eraginez azken urtean botikaren bat erosi ez den, tratamendu medikuren bat jarraitzerik izan ez den, edo norbaitek janari-dieta egokia eramaterik izan ez duen etxeak.	3,9	27.634	4,2	11.322
28. Azken 10 urtean norbaitek tratu fisiko edo psikologiko txarrak jaso edo jasotzen dituen etxeak.	1,2	8.440	0,9	2.469
29. Bere kideen artean oso harreman txarrak, txarrak edo txar samarrak	0,7	4.919	0,7	1.772

dituzten etxeak.				
30. Alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak dituzten edo azken 10 urtean izan dituzten etxeak.	2,0	14.390	1,7	4.618
31. Norbait bikotekiderik gabeko ama nerabea izan den edo izateko dagoen etxeak*. Ez da egoera hau islatzen duen inolako kasurik jaso.	--	--	--	--
32. Justiziarekin arazoak dituzten edo azken 10 urtean arazoak izan dituzten pertsonak (aurrekari penalak) dauden etxeak.	0,8	5.870	0,9	2.540
33. Gaixotasun edo zailtasun egoerarako inolako laguntzarik ez duten pertsonak dauden etxeak.	0,5	3.637	1,4	3.637
34. Bizilagunekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten etxeak.	0,3	1.824	0,3	903
35. Institutuoetan bizi diren pertsonak dituzten etxeak*.	--	--	--	--

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzak eta RENES AYALA, Victorren (koord.) 'VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008' -Madrid: FOESSA Fundazioa- kontuan hartuta.

Biztanleriaren portzentaje handiago bati eragiten dioten adierazleak (nagusiki, % 3 eta % 9 artean) ondokoekin lotzen dira: soldata-harreman normalizatuaren bazterketarekin –etxean prestakuntzarik jaso ez duten pertsona langabeak egotea (% 19,3); urtebete baino gehiago langabezia daraman erreferentziako pertsona duten etxeak (% 5,4) eta lanean ari den pertsonarik, pentsiodunik, eta langabeziarengatik kontribuzio-prestazioa duen pertsonarik gabeko etxeak (% 3,4); etxebizitzaren egoerarekin eta etxearen finantza egoerarekin –hezetasunak egotea (% 9,1), metaketa larria (% 5,1), etxebizitzaren gehiegizko gastuak (% 5,2) eta azken urtean, zailtasun ekonomikoengatik, sendagairen bat erosteari utzi dioten etxeak, tratamendu mediko bat jarraitu ezin izan dutenak edo elikadura dieta egoki bat eraman ezin izan duen norbait duten etxeak (% 3,9); hezkuntzara sartzeko mugekin -erkidegotik kanpoko herritartasuna duen 18 urteko edo gehiago dituen eta, beraz, sufragio aktibo eta pasiboaren eskubidea ez duen pertsonaren bat duten etxeak (% 7,2) eta hauteskundeetan parte hartzen ez duten etxeak, interes ezarengatik edo ezertarako balio ez dutela uste dutelako, eta herritarren entitateren bateko kide ez diren etxeak-.

### 3.1.3.2. Bazterketa arazoaren dimentsio desberdinak

Proposatutako adierazleen taldetik abiatuta, eta hiru ardatz eta sei dimentsiotan antolatuz, neurketa sistema honek gizarte bazterketaren prozesu desberdinak identifikatzea ahalbidetzen du, gutxienez, dimentsio bakoitza osatzen duten adierazleetan deskribatutako egoeretako baten eraginean oinarrituz. Zentzu horretan, hori aplikatzea erabilgarria izan daiteke bazterketa arazoak intentsitate handiagoarekin ematen edo pilatzen dituzten dimentsioak identifikatzeko.

Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestatik abiatuta Gipuzkoarako lortutako emaitzek erakusten dute gure lurraldean gizarte bazterketaren arazoak batez ere agertzen direla enpleguaren alorrean -non biztanleriaren % 23,1ak 1etik 6rako adierazleetan zehazten diren arazoetako bat gutxienez duen- eta etxebizitzaren alorrean, bai honen baldintzei dagokienez, bai horrek dakartzan finantza zamei dagokienez. Kontsumoaren bazterketa, zehazten den bezala, gizarte gatazka eta gizarte isolamendua dira, aldiz, pertsona eta etxeen portzentaje murriztu bati eragiten dioten dimentsioak.

### 34. taula. Gizarte bazterketaren dimentsio desberdinen eragina duten etxeak eta pertsonak.

#### Gipuzkoa 2012

	Pertsonak	Etxebizitzak
--	-----------	--------------

	Tasa (%)	Tasa (%)	Tasa (%)	Kop.
1. Enpleguan bazterketa [11-16]	23,1	163.508	20,2	54.051
2. Kontsumoan bazterketa [17-18]	1,8	12.545	2,0	5.255
3. Bazterketa politikoa [19-110]	10,4	73.373	10,3	27.553
4. Hezkuntzan bazterketa [111-113]	8,7	61.615	8,0	21.329
5. Etxebizitzan bazterketa [114-21]	20,2	143.170	19,9	53.500
6. Osasunean bazterketa [122-27]	6,4	45.304	8,3	22.205
7. Gizarte gatazka [128-32]	3,9	27.481	3,5	9.394
8. Gizarte isolamendua [133-34]	0,8	5.460	1,7	4.539

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzak eta RENES AYALA, Victorren (koord.) 'VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008' -Madril: FOESSA Fundazioa- kontuan hartuta.

Erreferentziako pertsonaren ezaugarrien arabera azterketa-prozesu hauen eragina desberdina izateari dagokionez, adierazi behar da, lehendabizi, aztertutako dimentsio guztietan, arrisku handiagoan daudela pertsona atzerritar bat buru duten etxeak, batez ere bere parte-hartze politikoaren aukerari dagokionez, enplegua lortzeko dituen mugei dagokienez edo etxebizitzaren bazterketa-prozesuekin duen loturari edo, hobeto esanda, baldintza egokietan dagoen etxebizitza bat izateari dagokionez. Emakume bat buru duten etxeen kasuan ere aztertutako bazterketa-prozesu guztien eragina batez bestekoa baino handiagoa da, nahiz eta kasu honetan gailentasuna pertsona atzerritarrek dutena baina nabarmen txikiagoa den. Bestalde, Gipuzkoako lurraldea zatitu den bi sektoreen arteko desberdintasunak ez dira oso handiak, osasunaren bazterketa-prozesuetan eta gizarte gatazkaren eraginean izan ezik; horiek handiagoak dira ekialdean.

**35. taula. Gizarte bazterketaren hainbat dimentsioak eragindako etxeen tasa, etxeak erreferentziako pertsonaren hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera Gipuzkoa 2012**

		1	2	3	4	5	6	7	8
Sexua	Gizonezkoak	19,3	1,9	9,1	7,6	18,7	5,4	3,2	1,1
	Emakumezkoak	22,3	2,2	13,1	8,8	23,0	15,1	4,2	3,1
Adina	44 arte	20,5	3,0	17,2	12,8	27,4	7,8	1,8	0,9
	45etik 64 arte	28,2	2,0	10,4	5,2	17,7	5,7	4,5	1,5
	65 edo gehiago	10,6	0,9	3,6	6,7	15,7	11,7	3,9	2,7
Herritartasuna	Bertakoak	18,1	1,0	5,4	7,1	18,1	6,5	3,0	1,8
	Atzerritarrak	51,7	16,4	85,3	20,6	49,1	35,7	10,8	0,0
Sektorea	Ekialdeko sektorea	20,8	2,1	10,8	8,1	19,8	10,6	4,4	1,7
	Mendebaldeko sektorea	19,3	1,8	9,5	7,7	20,2	5,0	2,3	1,7
Guztira	Guztira	20,2	2,0	10,3	8,0	19,9	8,3	3,5	1,7

Oharra: zutabeen hasieran dauden zenbakiak aurreko taulak jasotzen dituen bazterketaren dimentsio desberdinei dagozkien zenbakiekin bat datoz.

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzak eta RENES AYALA, Victorren (koord.) 'VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008' -Madril: FOESSA Fundazioa- kontuan hartuta.

### 3.1.3.3. Gizarte bazterketaren indizea

Bazterketa arazoak zein dimentsiotan ematen diren identifikatu ahal izateaz gain, FOESSA Fundazioak proposatutako adierazleen sistemak indize edo neurri bakar batean gehitu daitekeelako abantaila du. Gizarte bazterketaren indize hori, gabezia egoerak neurtzen dituzten 35 adierazleren gehikuntzatik abiatuta, gizarte bazterketaren aurrean etxeen edo pertsonen banaketa adieraziko lukeen adierazle sintetiko da<sup>21</sup>.

Adierazle honen emaitzak, 2012rako Gipuzkoako laginari aplikatu beharrekoak, ondoko taulan laburbiltzen dira. Lortutako emaitzek agerian jartzen dute, lehendabizi, Gipuzkoako biztanleriaren erdia baino gehiago (% 55,8) gizarteratze osoko egoeran egongo litzatekeela, adierazitako adierazle bakar baten eragina ere izango ez lukeelako, eta % 31,8 gizarteratze prekarioko gune batean egongo litzatekeela, bi puntu arteko indizeak erregistratuz, hau da, batez bestekoaren bikoitza. Biztanleriaren gainerakoak (% 12,4) neurri handiagoan edo txikiagoan gizarte bazterketaren prozesu desberdinen eragina jasango luke. Bazterketa larriko egoerek –jasotako dimentsioetako zati handi batean eragina izango luketenak- Gipuzkoako biztanleriaren % 6,4ri (termino absolutuetan 45.588 pertsona) eragingo lioke, eta bazterketa moderatuko egoerek –non, alderdi batzuetan, gizarteratzeak beste batzuetan dauden hutsuneak konpentsatuko lituzke- %6ko eragina izango luke (42.290 pertsona).

**36. taula. Biztanleria eta etxeen banaketa, gizarteratze/bazterketa mailaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Gizarteratzea	55,8	394.471	55,9	149.875
Gizarteratze prekarioa	31,8	224.927	30,9	82.824
Bazterketa moderatua	6,0	42.290	6,4	17.267
Bazterketa larria	6,4	45.588	6,8	18.270
Guztira	100,0	707.276	100,0	268.235

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzak eta RENES AYALA, Victorren (koord.) 'VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008' -Madrid: FOESSA Fundazioa- kontuan hartuta

<sup>21</sup> Erabilitako gehikuntza metodoa ondoko premisatik abiatzen da: adierazleek islatzen dituzten gabeziak larriagotzat jotzen dira eragindako etxeak gutxiago direnean, eta beraz, kasu bakoitzari, adierazle bakoitzean eragindako etxeen proportzioaren alderantzizko kopuruaren berbera den pisua esleitzen dio. Behin pisu hori egotzita, adierazleen ezaugarri garrantzitsuena da horien batez bestekoa 1 dela (gutxi gorabehera), eta gutxienekoak eta gehienekoak (banaketaren arabera) ez duela muga teorikorik. Horrenbestez, biztanleria osoarentzako bazterketa-indizearen batez bestekoa (laginaren ponderazioaren arabera) 1 dela kontuan hartuta, ulertzen da gizarte bazterketa erlatibo baten kasuan daudela batez bestekoaren bikoitza baino gehiagoko ( $i > 2$ ) bazterketa-indizea ( $i$ ) duten etxeak. "Baztertutako etxe" horien taldearen barruan, aurreko atalasearen bazterketa-indizearen ( $i$ ) bikoitza dutenak ( $i > 4$ ) bazterketa-egoera larrian daudela ulertuko da. Horren azpitik daudenak ( $2 < i < 4$ ) bazterketa-egoera moderatu baten barruan daudela ulertuko da. Aldi berean, bazterketa-adierazleren baten eragina duten baina batez bestekoaren bikoitza baino txikiagoak diren indizeak ( $0 < i < 2$ ) dituzten etxeak, gizarteratze prekarioko egoeraren barruan sartzen dira, eta azkenik, 0 bazterketa-indizea duten etxebizitzak daude (hau da, aukeratutako 35 adierazleetan deskribatutako egoeretako bakar bat ere ez dutenak), zeintzuen egoera gizarteratze egoeratzat jo daitekeen.

Gizarte bazterketa moderatuaren eta, funtsean, bazterketa larriaren eragina handiagoa da atzerriko pertsonen artean, non erabateko gizarteratzearen eragina soilik % 9,2koa den, eta bertakoena, aldiz, % 58,8koa. Halaber, desberdintasunak antzeman dira Gipuzkoako lurraldea banatutako sektoreen artean. Bazterketaren eragina pixka bat handiagoa da ekialdeko sektorean (% 13,9koa, mendebaldekoa, berriz, % 10,5koa). Biztanleriaren sexuak eta adinak, ordea, ez dute inolako azalpen baliorik ematen integrazio edo gizarteratze/bazterketa mailan biztanleriaren banaketa desberdina aztertzerakoan. Hala ere, garrantzi nabarmena erakusten dute ezaugarri hauek etheen buru diren pertsonengan kontuan hartzen direnean.

**37. taula. Biztanleriaren banaketa gizarteratze/bazterketa mailaren eta hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Gizarteratzea	Gizarteratze prekarioa	Bazterketa moderatua	Bazterketa larria
Sexua	Gizonezkoak	55,2	32,0	6,4	6,3
	Emakumezkoak	56,3	31,6	5,6	6,5
Adina	<18 urte	58,6	30,1	5,3	6,1
	18-44 urte	49,1	37,8	6,0	7,1
	45-64 urte	54,9	32,3	6,8	6,0
	65 edo gehiago	66,0	22,2	5,4	6,3
Herritartasuna	Bertakoak	58,8	31,4	5,2	4,5
	Atzerritarrak	9,2	37,5	17,9	35,4
Sektorea	Ekialdeko sektorea	51,9	34,2	6,3	7,6
	Mendebaldeko sektorea	60,8	28,7	5,6	4,9
Guztira	Guztira	55,8	31,8	6,0	6,4

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzak eta RENES AYALA, Victorren (koord.) 'VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008' -Madril: FOESSA Fundazioa- kontuan hartuta.

Hain zuzen ere, ondoko taulan egiaztatu daitekeen bezala, bazterketa moderatuaren eta larriaren eragina (% 9,6 eta % 11,1, hurrenez hurren) nabarmen handiagoa da erreferentziako pertsona emakume bat duten etxebizitzien artean. Bi kasuetan, eragina erreferentziako pertsona gizonezko bat duten etxeek dutenaren bikoitza da. Erreferentziako pertsonaren adinari dagokionez, aldiz, desberdintasunak bazterketaren dimentsioan kokatu baino, gizarteratze prekarioaren dimentsioan kokatzen dira. Horrela, antzematen da gizarteratze prekarioaren eraginak nabarmen gora egiten duela etxeke erreferentziako pertsonaren adina murrizten doan heinean, eta horren eragina 44 urtetik beherako pertsona bat duten etheen artean (% 37,8) 64 urtetik gorako pertsona bat buru duten etxeena (% 23,7) baino ia % 60 handiagoa da.

**38. taula. Etxeen banaketa gizarteratze/bazterketa mailaren eta etxeke erreferentziako pertsonaren eta etheen hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Gizarteratzea	Gizarteratze prekarioa	Bazterketa moderatua	Bazterketa larria
Sexua	Gizonezkoak	58,7	31,2	5,1	5,0
	Emakumezkoak	49,2	30,1	9,6	11,1
Adina	<44 urte	49,7	37,8	6,3	6,2
	45-64 urte	54,6	31,5	6,2	7,7
	65 edo gehiago	63,1	23,7	6,9	6,3
Herritasuna	Bertakoak	58,5	30,7	5,8	5,0
	Atzerritarrak	14,4	34,4	15,6	35,6
Sektorea	Ekialdeko sektorea	53,5	31,9	6,7	7,9
	Mendebaldeko sektorea	59,2	29,4	6,1	5,3
Etxebizitzaren okupazio maila	Aktibo guztiak lanean	69,4	23,3	3,9	3,5
	Aktiboren bat lanean	7,3	76,8	9,3	6,5
	Aktiborik ez lanean	2,7	46,1	16,6	34,5
	Aktiborik ez	65,5	21,7	7,3	5,5
Familia osaketa	Pertsona bakarrekoa	55,7	27,4	11,2	5,7
	Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea	65,0	27,6	3,4	4,1
	Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea	57,1	33,8	4,9	4,1
	Guraso bakarrekoa	42,9	31,8	9,7	15,5
	Bestelako familiak edo egoerak	32,4	33,5	8,1	26,0
Guztira	Guztira	55,9	30,9	6,4	6,8

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012ren emaitzak eta RENES AYALA, Victorren (koord.) 'VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008' -Madril: FOESSA Fundazioa- kontuan hartuta.

Etxeko erreferentziako pertsonaren herritasunaz gain, etxeko kideek enpleguarekin duten harremanak eta familia osaketak oso eragin nabarmena dute etxeen gizarteratze/bazterketaren mailan. Zentzu horretan, baieztatu daiteke bai aktiborik lanean ez duten etxeek, bai guraso bakarreko familiak edo pertsona bat buru duten etxeek gainerako etxe edo familiak baino ahultasun askoz ere handiagoa dutela bazterketa larriko egoeren aurrean.

Zein neurritan erlazionatzen dira gizarte bazterketako prozesuak pobrezia ekonomikoaren eta gabezia materialaren egoerekin? Gizarte integrazio/bazterketa mailaren arabera erabilitako pobrezia eta gabezia materialaren adierazle desberdinak aztertzen badira, antzeman daiteke, lehendabizi, erlazioa garbia dela, hau da, bazterketa moderatua eta larria nabarmen handiagoak direla pobrezia edota gabezia egoera desberdinak jasaten dituzten pertsonen artean. Bazterketaren eragin handiagoa, zentzu horretan, pobrezia ekonomiko larriren egoerek eragindako pertsonengan ematen da: horien guztien % 46,2 gizarte bazterketa larriko egoeran dago eta % 23,1 bazterketa moderatuko egoeran egongo litzateke, hau da, ia hamarretik zazpik gizarte bazterketaren eragina izango lukete, neurri handiagoan edo txikiagoan. Bazterketa moderatuan edo larrian kokatuko litzateke, era berean, PGDI ikuspegiaren mantentze dimentsioan,

pertsona pobreen erdia baino gehiago (% 53), baita pobrezia material larriko egoerek eragindakoen erdia baino gehiago (% 56,8) eta gainerako adierazleek identifikatzen dituzten pertsona pobreen % 30 eta % 40 inguru ere.

**39. taula. Pobrezia ekonomiko edo gabezia materialeko egoerek eragindako pertsonen arteko gizarteratze/bazterketa maila. Gipuzkoa 2012**

(Bazterketa larriaren eragin handienetik txikienera antolatuta)

	Gizarteratzea	Gizarteratze prekariora	Bazterketa moderatua	Bazterketa larria
Pobrezia larria (diru-sarrera baliokideen erdiko balioaren < % 40)	5,8	24,9	23,1	46,2
Pobrezia mantentze dimentsioan PGDI ikuspegia	9,6	37,5	21,9	31,1
Gabezia material larria Ez du 9 itemetatik gutxienez 4 edukitzeko aukerarik	9,5	33,7	26,1	30,8
Lan intentsitate baxua Enplegu intentsitate baxuko etxeetan 0-59 urte	12,3	47,9	16,4	23,5
Pobrezia erlatiboa (diru-sarrera baliokideen erdiko balioaren < % 60)	29,7	32,4	15,9	21,9
AROPE tasa Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan	26,1	42,4	14,2	17,3
Biztanleria guztira	55,8	31,8	6,0	6,4

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Pobrezia ekonomikoaren eta gizarte bazterketaren artean dagoen harreman nabarmena alde batera utzita, azterlan honetan neurtu diren bezala neurtuta, edonola ere, azpimarratu behar da horien gainjarpena ez dela erabatekoa. Hain zuzen ere, egiaztatu daitekeen bezala, erabateko gizarte integrazioaren eta prekarioraren egoeren eragina, pobrezia ekonomiko larrienaren kasuan ere, % 5,8 eta % 24,9koa da, hurrenez hurren. Are gehiago, lan intentsitate baxuaren, pobrezia erlatiboaren edo AROPE tasak zehazten dituen pobrezia arriskuko eta gizarte bazterketako egoeretan, gizarteratzea edo gizarteratze prekariora pertsona horien % 60 edo % 70era zabalduko litzateke.

### 3.2. Gizarte talde eta etxe ahulenak

Idazpuru honetan, gure lurraldean pobrezia ekonomiko, gabezia eta gizarte bazterketa egoerek gehien eragiten dieten gizarte taldeak identifikatzen dira. Horretarako orain arte erabilitako neurri eta aldagai independente nagusiak erabiliko dira.



3.2.1. Pertsona atzerritarrek eta, batez ere, Euskadin denbora laburragoa daramatenek, pobrezia ekonomikoa, gabezia materiala eta gizarte bazterketa jasateko arrisku handiagoa dute

Pertsona atzerritarrek eta, beraz, pertsona atzerritar bat buru duten etxebizitzek –horietan bizi baita pertsona atzerritar guztien ia % 91- gainerako biztanleriak baino pobrezia arrisku askoz handiagoa dute. Horrela, adierazle esanguratsuenei dagokienez, pobrezia larriaren tasa % 21,9koa da, bertako biztanleriarena, berriz, % 3,2koa. Gabezia material larriaren tasa % 36,8koa da, bertakoena, berriz, % 3,1ekoa. Eta azkenik, 0 eta 59 urte bitarteko pertsonen lan intentsitate baxuaren tasa %21,4koa da, bertako pertsonena, berriz, % 8,5ekoa.

40. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren eragina, herritartasunaren arabera. Gipuzkoa 2012

		Etxeak, erreferentziako pertsonaren herritartasunaren arabera		Biztanleria, herritartasunaren arabera	
		Bertakoak	Atzerritarrak	Bertakoak	Atzerritarrak
Pobrezia erlatiboa	Bai	15,6	49,1	14,5	52,8
	Ez	84,4	50,9	85,5	47,2
Pobrezia larria	Bai	2,9	21,4	3,2	21,9
	Ez	97,1	78,6	96,8	78,1
Gabezia material larria	Bai	4,1	37,2	3,1	36,8
	Ez	95,9	62,8	96,9	63,2
Lan intentsitate baxua	Bai	11,9	29,6	8,5	21,4
	Ez	88,1	70,4	91,5	78,6
Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskua (AROPE)	Bai	19,5	71,7	23,6	63,6
	Ez	80,5	28,3	76,4	36,4
Pobrezia mantentze dimentsioan	Pobrezia	6,9	37,2	6,2	32,0
	Ongizaterik eza	13,0	20,9	10,6	24,4
	Ongizatea	80,1	41,9	83,2	43,6
Gizarteratze/bazterketa eta maila	Gizarteratzea	58,5	14,4	58,8	9,2
	Gizarteratze prekariora	30,7	34,4	31,4	37,5
	Bazterketa moderatua	5,8	15,6	5,2	17,9
	Bazterketa larria	5,0	35,6	4,5	35,4
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gainera, atzerriko biztanleriaren % 43,6 baino ez dago ongizate egoera batean mantentze dimentsioan –eta horrek, behintzat epe laburrean, gure gizartearen bizimoduan eta jardueretan parte hartzeko funtsezko beharren estaldurari eta beharrezko gutxieneko gastuei aurre egiteko baliabide nahikoa ez izatearen egoerak ez bizitzea dakar-, bertako biztanleriaren kopurua, berriz, % 80koa da.

Gizarteratze/bazterketa mailari dagokionez, atzerriko pertsona bat buru duten etxeen erdia baino gehiago (% 51,2) bazterketa larriko egoeran dago (% 35,6) edo bazterketa moderatuko egoeran (% 15,6); bertako pertsona bat buru duten etxeen kasuan berriz, kopuru hori % 10,8koa da. Aldiz, etxe horietan erabateko gizarte integrazioaren eragina (% 14,4) erreferentziako pertsona atzerritarra ez den pertsona bat duten etxeek dutena (% 58,5) baino lau bider txikiagoa da.

Datu horiek erakusten dute zein puntutaraino dauden zabaldua biztanleria atzerritarren artean pobrezia, gabezia eta gizarte bazterketako egoerak. Izan ere, nahiz eta pertsona horiek familia etxebizitzetan bizi diren Gipuzkoako biztanleriaren % 6,2 soilik diren, pobrezia larriak eragindako pertsonen % 31,3 dira eta bazterketa moderatu edo larriko prozesuak jasaten dituztenen % 26,5.

**41. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren banaketa, herritartasunaren arabera. Gipuzkoa 2012 (Portzentaje bertikalak)**

		Etxeak, erreferentziako pertsonaren herritartasunaren arabera	Biztanleria, herritartasunaren arabera
Pobrezia erlatiboa	Bertakoak	83,2	80,6
	Atzerritarrak	16,8	19,4
Pobrezia larria	Bertakoak	67,9	68,7
	Atzerritarrak	32,1	31,3
Gabezia material larria	Bertakoak	86,2	85,7
	Atzerritarrak	13,8	14,3
Lan intentsitate baxua	Bertakoak	85,2	80,5
	Atzerritarrak	14,8	19,5
Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskua (ARPE)	Bertakoak	62,9	55,9
	Atzerritarrak	37,1	44,1
Pobrezia mantentze dimentsioan	Bertakoak	74,2	74,6
	Atzerritarrak	25,8	25,4
Bazterketa larria edo konpentsatua	Bertakoak	76,7	73,5
	Atzerritarrak	23,3	26,5
Guztira	Bertakoak	94,0	93,8
	Atzerritarrak	6,0	6,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Herritartasunetik haratago, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren emaitzek halaber erakusten dute estatutik kanpo jaiotako pertsonek artean, Euskadin 10 urtetik gora erroldatuta daramaten pertsonek (atzerrian jaiotako pertsona guztien laurdena, gutxi gorabehera), arrisku nabarmen txikiagoa dutela erroldatuta urte gutxiago daramatenekin alderatuta.

Desberdintasunak nabarmenak dira pobrezia ekonomiko larriagoko egoerak neurtzen dituzten adierazleei dagokienez –10 urte baino gehiago erroldatuta daramaten pertsonek artean pobrezia larriaren tasa % 9,1ekoa da eta duela gutxiago gure lurraldera iritsi diren pertsonek artean kopuru hori % 22,4koa da-, baita bazterketa larriagoari dagokionez ere.

**42. taula. Biztanleriaren pobrezia, gabezia materialaren eta bazterketa egoera desberdinen eragina, jaiotze-lekuaren eta Euskadin erroldatuta daramaten urteen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Estatuaren barruan		Estatutik kanpo	
		Euskadin	Estatuko beste leku batean	10 urte edo gutxiago erroldatuta	10 urte baino gehiago erroldatuta
Pobrezia erlatiboa	Bai	14,0	16,7	49,9	38,1
	Ez	86,0	83,3	50,1	61,9
Pobrezia larria	Bai	2,7	5,4	22,4	9,1
	Ez	97,3	94,6	77,6	90,9
Gabezia material larria	Bai	2,9	3,5	33,3	30,6
	Ez	97,1	96,5	66,7	69,4
Lan intentsitate baxua	Bai	8,8	7,0	20,9	12,7
	Ez	91,2	93,0	79,1	87,3
Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskua (AROPE)	Bai	18,8	22,1	63,9	66,1
	Ez	81,2	77,9	36,1	33,9
Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	5,9	7,4	33,2	11,6
	Ongizaterik eza	9,9	13,3	20,4	31,9
	Ongizatea	84,2	79,3	46,4	56,6
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratzea	60,1	54,3	10,2	26,6
	Gizarteratze prekarioa	31,3	30,4	36,3	50,2
	Bazterketa moderatua	4,9	6,8	16,4	12,4
	Bazterketa larria	3,7	8,4	37,1	10,9
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Zentzu berean, Euskadiko hiru lurraldeetako batean jaio diren pertsonen egoera, estatuaren gainerakoan jaio direnekin alderatuta, hobe dela esan daiteke, nahiz eta azken hauek adierazten dituzten mailak oso aldenduta dauden, edonola ere, atzerrian jaiotako pertsonak adierazten dituzten mailetatik.

### 3.2.2. Emakume bat buru duten etxeek gainerakoek baino neurri handiagoan jasaten dituzte pobrezia ekonomikoa eta, batez ere, gabezia materiala eta bazterketa egoerak

Pertsonen generoaren ikuspegitik, pobrezia tasak, erabilitako adierazlea edozein dela ere, oso antzekoak dira gizon eta emakumeen artean. Hori, zalantzarik gabe, erabilitako adierazleak eratzekoan etxearen eraginengatik da. Horietan guztietan, etxearen erabateko elkartasunaren hipotesiaren mendean, berau osatzen duten pertsona guztiak diru-sarrera baliokide bera, gabezia material maila bera edo bazterketa maila bera egotzen zaie. Zentzu horretan, etxeen barruan gizonak eta emakumeak antzeko banaketa dutenez, emaitzetan apenas antzematen den bien arteko desberdintasunik.

Egoera aldatu egiten da, hala ere, datuak etxeko erreferentziako pertsonaren generoaren ikuspegitik aztertzen badira. Zehazki, ikuspegi ekonomikotik edo etxebizitzaren jabetzaren ikuspegitik etxea osatzen duten pertsonak nagusiztat jotzen dituzten pertsonak dira. Zentzu horretan, esan daiteke, emakume bat buru duten etxeen artean, pobrezia eragina, erreferentziako pertsona gizoneko bat duten etxeei dagokiena baino askoz ere handiagoa dela. Ikuspegi soziologiko batetik, etxe horiek Gipuzkoako etxebizitza guztien % 29,6 dira eta oso egoera desberdinak bizi dituzte: etxebizitza horien % 41 pertsona bakarrekoak izango lirateke –horietako % 62,2an, 65 urtetik gorako emakumezkoa izango litzateke; % 26 guraso bakarrekoak –horien laurdenak soilik izango luke buru gisa 45 urtetik beherako emakumezkoa; % 19, seme-alabadun edo gabeko senar-emazteak edo bikoteak izango lirateke; azkenik, gainerako % 13an, nukleorik gabeko familia motako etxeak izango lirateke<sup>22</sup>.

**43. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren eragina, generoaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Etxeak, erreferentziako pertsonaren generoaren arabera		Biztanleria, generoaren arabera	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Pobrezia erlatiboa	Bai	15,0	23,9	16,7	16,9
	Ez	85,0	76,1	83,3	83,1
Pobrezia larria	Bai	3,7	4,9	4,5	4,2
	Ez	96,3	95,1	95,5	95,8
Gabezia material larria	Bai	4,3	10,2	5,0	5,3
	Ez	95,7	89,8	95,0	94,7
Lan intentsitate baxua	Bai	10,8	18,3	9,7	8,8
	Ez	89,2	81,7	90,3	91,2
Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskua	Bai	21,9	35,7	22,5	22,9

<sup>22</sup> Hainbat pertsona bizi diren etxebizitzak izango lirateke, non, gutxienez horietako bi elkarren ahaideak diren, baina ez dago senar-emazte edo seme-alabadun edo gabeko bikote edota seme-alabadun ama edo aita motako familia talderik.

(AROE)	Ez	78,1	64,3	77,5	77,1
Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	7,2	12,3	7,6	8,0
	Ongizaterik eza	10,4	20,7	10,2	12,6
	Ongizatea	82,4	67,0	82,2	79,5
Gizarteratze/bazterketa eta maila	Gizarteratzea	58,7	49,2	55,2	56,3
	Gizarteratze prekarioa	31,2	30,1	32,0	31,6
	Bazterketa moderatua	5,1	9,6	6,4	5,6
	Bazterketa larria	5,0	11,1	6,3	6,5
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Honela, egiaztatu daiteke gizonezkoak buru dituzten etxeetan pobrezia tasa %3,7koa dela; emakumezkoak buru dituztenetan, aldiz, %4,9koa da, mantentze dimentsioko pobrezia tasa % 12,3ra iristen da emakume bat pertsona nagusi duten etxeetan, eta gainerako etxeetan % 7,2koa da. Gabezia materialari dagokionez, emakumezkoak buru dituzten etxeek duten arriskua 2,4 bider handiagoa da eta, bazterketa adierazleak antzematen direnean, emaitzek erakusten dute bazterketa larriak edo moderatuak emakumezkoak buru dituzten hamar etxetatik biri eragiten diela, eta erreferentziazko pertsona gizon bat duten hamar etxetatik bakar bati.

**44. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren banaketa, sexuaren arabera. Gipuzkoa 2012 (Portzentaje bertikalak)**

		Etxeak, erreferentziazko pertsonaren sexuaren arabera	Biztanleria, sexuaren arabera
Pobrezia erlatiboa	Gizonezkoa	59,8	48,4
	Emakumezkoa	40,2	51,6
Pobrezia larria	Gizonezkoa	64,1	50,2
	Emakumezkoa	35,9	49,8
Gabezia material larria	Gizonezkoa	58,3	51,2
	Emakumezkoa	41,7	48,8
Lan intentsitate baxua	Gizonezkoa	59,2	48,3
	Emakumezkoa	40,8	51,7
Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskua (AROE)	Gizonezkoa	49,9	47,5
	Emakumezkoa	50,1	52,5
Pobrezia mantentze dimentsioan	Gizonezkoa	58,1	47,6
	Emakumezkoa	41,9	52,4

Bazterketa larria edo konpentsatua	Gizonezkoa	53,7	50,1
	Emakumezkoa	46,3	49,9
Guztira	Gizonezkoa	70,4	48,7
	Emakumezkoa	29,6	51,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Pobrezia egoera bizi duten etheen artean dagoen banaketaren ikuspegitik, adieraz daiteke, halaber, nahiz eta emakumezkoak buru dituzten etxeak soilik etheen % 29,6 diren, pobrezia erlatiboko egoeran dauden etheen % 40,2 direla eta bazterketa larri edo konpentsatuko egoeran dauden % 46.

### 3.2.3. Pobreziaren eragin desberdina, adinaren eta familia osaketaren arabera

Era berean, desberdintasun oso garrantzitsuak antzematen dira adinaren ikuspegitik, eta berretsi egiten da azken urteotan inkesta guztiek adierazten dutena: pobreziaren arriskua biztanleria nagusitik haur eta gazteen biztanleriara aldatuz doa, enplegu prekarizazio handiagoa bezalako faktoreengatik, zentzu batean, eta pentsio sistemak eskaintzen duen babes handiagoarengatik, beste zentzu batean. Faktore horiekin batera, txosten honen beste kapitulu batean adierazten den bezala, euskal gizarte babesaren sistemak haurren pobreziaren tasak murrizteko duen ahalmen txikia aipatu behar da. Hori, EB osoan edo EAEn, biztanleriaren artean oro har edo biztanleria nagusiaren kasuan ematen dena baino askoz ere txikiagoa da.

Honela, pobrezia ekonomikoa zentzu zorrotzago batean neurtzen duten adierazleei dagokienez – pobrezia larria eta pobrezia mantentze dimentsioan-, argi eta garbi nabarmentzen da horren eragina handitzen doala adina murrizten doan heinean. Mantentze pobreziari dagokionez, pertsona adingabeentzako tasa % 12,3koa da, 18 eta 44 urte bitarteko biztanleriarentzat % 8,4koa, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonentzat % 7,1ekoa eta adin nagusiko pertsonentzat, % 3,7koa. Pobrezia larriaren kasuan, horren eragina 18 urtetik beherakoengan, 65 urteko eta hortik gorako pertsonen dagokiena baino 2,3 bider handiagoa da. Pobreziaz gain, pertsona adingabeengan eragin handiagoa dute gabezia material larriko egoerek (% 8,1; 45 eta 64 urte bitartekoengan, % 4,8 eta 64 urtetik gorakoengan, % 2,2), nahiz eta ez den desberdintasun esanguratsurik antzematen aztertutako adin talde desberdinen bazterketari dagokienez.

**45. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren eragina, adinaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Etxeak, erreferentziako pertsonaren adinaren arabera			Biztanleria, adinaren arabera			
		<45	45-64	65+	<18	18-44	45-64	65+
Pobrezia erlatiboa	Bai	16,8	14,7	21,7	21,1	16,0	13,0	19,8
	Ez	83,2	85,3	78,3	78,9	84,0	87,0	80,2
Pobrezia larria	Bai	4,8	4,7	2,6	6,1	4,6	4,1	2,6
	Ez	95,2	95,3	97,4	93,9	95,4	95,9	97,4
Gabezia material	Bai	9,1	5,7	3,7	8,1	5,7	4,8	2,2

larria	Ez	90,9	94,3	96,3	91,9	94,3	95,2	97,8
Lan intentsitate baxua	Bai	13,6	14,7	10,4	10,8	12,2	11,4	0,0
	Ez	86,4	85,3	89,6	89,2	87,8	88,6	100,0
AROE tasa	Bai	25,1	23,0	30,2	26,6	23,4	20,6	21,0
	Ez	74,9	77,0	69,8	73,4	76,6	79,4	79,0
Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	12,6	10,1	3,5	12,3	8,4	7,1	3,7
	Ongizaterik eza	11,0	10,4	19,3	10,7	10,9	9,5	15,6
	Ongizatea	76,4	79,5	77,2	77,0	80,6	83,4	80,7
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratzea	49,7	54,6	63,1	58,6	49,1	54,9	66,0
	Gizarteratze prekarioa	37,8	31,5	23,7	30,1	37,8	32,3	22,2
	Bazterketa moderatua	6,3	6,2	6,9	5,3	6,0	6,8	5,4
	Bazterketa larria	6,2	7,7	6,3	6,1	7,1	6,0	6,3
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Datu hauek agerian jartzen dute, beraz, haurren pobrezia (edo hobeto esanda, seme-alabak dituzten familien arteko pobrezia) larritasuna, geroz eta larriagoa den arazo gisa. Hain zuzen ere, ondoko taulan egiaztatu daitekeen bezala, pobrezia larriaren, mantentze pobrezia eta gabezia materialaren arriskuek bereziki handia den eragina izango lukete 14 urtetik beherako pertsonaren bat duten etxeen artean eta, batez ere, guraso bakarreko familien artean.

**46. taula. Etxeen pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoera desberdinen eragina, familia osaketaren arabera eta 14 urtetik beherako pertsonak dituzten ala ez kontuan hartuta.**

**Gipuzkoa 2012**

		Familia osaketa					Etxean 14 urtetik beherako pertsonaren bat bizi zena	
		Pertsona bat	Seme-alabarik gabeko bikotea	Seme-alabak dituen bikotea	Guraso bakarrekoa	Bestelako familiak edo egoerak	Ez dago	Baten bat
Pobrezia erlatiboa	Bai	23,5	16,9	12,5	31,5	16,2	17,0	19,4
	Ez	76,5	83,1	87,5	68,5	83,8	83,0	80,6
Pobrezia larria	Bai	1,5	2,9	3,9	9,2	10,1	3,5	5,5
	Ez	98,5	97,1	96,1	90,8	89,9	96,5	94,5
Gabezia mat. larria	Bai	8,5	1,9	3,8	17,8	12,5	5,2	8,5
	Ez	91,5	98,1	96,2	82,2	87,5	94,8	91,5
Lan intentsitate baxua	Bai	12,7	2,3	4,8	24,6	16,8	7,3	11,1
	Ez	87,3	97,7	95,2	75,4	83,2	92,7	88,9

AROE tasa	Bai	33,2	20,4	19,5	54,7	27,1	26,2	25,3
	Ez	66,8	79,6	80,5	45,3	72,9	73,8	74,7
Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	11,1	5,0	6,2	22,3	12,8	7,3	12,9
	Ongiz aterik eza	23,5	12,7	8,7	19,5	8,3	14,7	9,9
	Ongiz atea	65,4	82,2	85,1	58,2	78,9	78,0	77,2
Gizareratze/bazterketa maila	Gizareratzea	55,7	65,0	57,1	42,9	32,4	55,2	57,8
	Gizareratze prekariora	27,4	27,6	33,8	31,8	33,5	30,7	31,5
	Bazterketa moderatua	11,2	3,4	4,9	9,7	8,1	7,1	4,4
	Bazterketa larria	5,7	4,1	4,1	15,5	26,0	7,0	6,3
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Etxe guztien gaineko %		19,9	23,2	41,9	8,7	6,4	74,7	25,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Pertsona bakarreko etxeei dagokienez, horien egoera anibalentzetat jo daiteke kontuan hartutako adierazlearen arabera. Etxe hauek, lagineko etxeen % 20 dira, pobrezia tasa oso txikia izango lukete (% 1,5) eta, hala ere, batez bestekoak baino mantentze pobrezia tasa handiagoa (% 11,1); eta horri guztiari gabezia material larriaren eta bazterketa moderatuaren maila handiagoak gehitu behar zaizkio.

### 3.2.4. Ez dago desberdintasun garbirik lurralde banaketari dagokionez, gabezia material larriari dagokionez izan ezik

Lurraldearen ikuspegitik, erabaki da 2013-2016rako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen zirriborroaren arabera etorkizunean lurraldea banatuko den sektore bakoitzeko pobrezia tasak aztertzea. Aipatu maparen arabera, ekialdeko sektoreak Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldea eskualdeak bilduko lituzke, hau da, lurraldeko eremurik hiritarrena, eta mendebaldeko sektoreak, Debagoiena, Debabarrena, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta eskualdeak barne hartuko lituzke. Lortutako emaitzetatik, aldiz, ezin da ondorio garbirik atera, zeren antzemandako desberdintasunak oso txikiak dira -behintzat ez dira esanguratsuak estatistikaren ikuspegitik-, eta ez da sektore bat beste baten gainean gailentzen adierazleen eragin handiagoari dagokionez.

Egin daitekeen salbuespen bakarra gabezia material larriaren adierazleari buruz da, non,  $p < 0,05$ erako khi karratuaren probaren arabera, bi sektoreen artean antzemandako desberdintasunak esanguratsuak diren. Horrela, adieraz liteke ekialdeko sektorean gabezia material larriaren eragina (% 5,8) mendebaldeko sektorean dagoena (% 4,3) baino handiagoa dela.



47. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren eragina, egoitza sektorearen arabera. Gipuzkoa 2012

		Etxebizitzak		Biztanleria guztira	
		Ekialdea	Mendebald ea	Ekialdea	Mendebald ea
Pobrezia erlatiboa	Bai	17,3	18,1	16,5	17,3
	Ez	82,7	81,9	83,5	82,7
Pobrezia larria	Bai	4,5	3,3	4,4	4,2
	Ez	95,5	96,7	95,6	95,8
Gabezia material larria	Bai	7,2	4,4	5,8	4,3
	Ez	92,8	95,6	94,2	95,7
Lan intentsitate baxua	Bai	12,4	13,8	8,5	10,2
	Ez	87,6	86,2	91,5	89,8
AROE tasa	Bai	25,8	26,2	23,2	22,1
	Ez	74,2	73,8	76,8	77,9
Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	8,7	8,7	7,5	8,1
	Ongizaterik eza	13,2	13,8	11,5	11,4
	Ongizatea	78,0	77,5	81,0	80,5
Gizarteratze/bazterketa eta maila	Gizarteratzea	53,5	59,2	51,9	60,8
	Gizarteratze prekariora	31,9	29,4	34,2	28,7
	Bazterketa moderatua	6,7	6,1	6,3	5,6
	Bazterketa larria	7,9	5,3	7,6	4,9
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 3.2.5. Enpleguak nahikoa ondo babesten du pobrezia aurrean, baina ez horrenbeste bazterketaren aurrean

Inkesta honetatik eratorritzen diren datuek, bestalde, erakusten dute enpleguak nahiko ondo babesten duela pobrezia aurrean, baina ez horrenbeste bazterketaren aurrean; dena den, datuek ere garbi erakusten dute enplegu gabeziak pobrezia eta bazterketa tasa askoz handiagoak dakartzala. Horrela, aktibo guztiak lanean dituzten familien artean pobrezia tasa hondar errealitate bat da, % 1,1ari eragiten diolako-, aktibo guztiak langabezia dituztenen artean % 33,8ra iristen da. Bazterketaren ikuspegitik, aktibo guztiak lanean dituzten familien % 6,8 bazterketa moderatu edo larriko egoeran dago; baina portzentajea % 48,4koa da aktibo guztiak langabezia dituztenen artean. Bi taldeen arteko desberdintasun erlatiboa, dena den, pobrezia kasuan baino txikiagoa da.

48. taula. Hainbat pobrezia, gabezia material eta bazterketa egoeraren eragina, etxean okupazio mailaren arabera. Gipuzkoa 2012

			Aktibo guztiak lanean	Aktiboren bat lanean	Aktiborik ez lanean	Aktiborik ez
Etxeak	Pobrezia erlatiboa	Bai	7,1	20,1	62,8	24,1
		Ez	92,9	79,9	37,2	75,9
	Pobrezia larria	Bai	1,3	4,8	29,0	1,9
		Ez	98,7	95,2	71,0	98,1
	Gabezia material larria	Bai	3,3	8,0	27,6	4,4
		Ez	96,7	92,0	72,4	95,6
	Lan intentsitate baxua	Bai	2,9	11,5	93,0	10,5
		Ez	97,1	88,5	7,0	89,5
	Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	3,5	8,1	53,7	6,2
		Ongizaterik eza	7,1	20,3	18,7	21,6
		Ongizatea	89,4	71,6	27,6	72,2
	Gizarteratze/bazterketa eta maila	Gizarteratzea	69,4	7,3	2,7	65,5
		Gizarteratze prekarioa	23,3	76,8	46,1	21,7
		Bazterketa moderatua	3,9	9,3	16,6	7,3
Bazterketa larria		3,5	6,5	34,5	5,5	
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	
Biztanleria	Pobrezia erlatiboa	Bai	8,8	19,4	66,1	21,7
		Ez	91,2	80,6	33,9	78,3
	Pobrezia larria	Bai	1,1	5,0	33,8	2,5
		Ez	98,9	95,0	66,2	97,5
	Gabezia material larria	Bai	3,0	8,0	22,1	2,9
		Ez	97,0	92,0	77,9	97,1
	Lan intentsitate baxua	Bai	1,8	8,4	77,6	7,4
		Ez	98,2	91,6	22,4	92,6
	Pobrezia, mantentze dimentsioan	Pobrezia	3,2	7,5	51,4	5,7
		Ongizaterik eza	6,6	18,5	19,4	18,4
		Ongizatea	90,2	73,9	29,2	75,9
	Gizarteratze/bazterketa eta maila	Gizarteratzea	71,6	6,9	3,4	68,4
		Gizarteratze prekarioa	21,7	74,3	48,3	20,4
		Bazterketa moderatua	2,9	12,7	18,2	5,4
Bazterketa larria		3,9	6,1	30,2	5,8	

	Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0
--	---------	--	-------	-------	-------	-------

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Logikoki, etxe baten okupazio mailak eragin garbia du, halaber, gabezia material larriko egoeretan. Kasu honetan, egoera hauek okupazio handiko etxeetan bizi den biztanleriaren % 3ri soilik eragiten diote, eta horien eragina, aldiz, % 8koa da okupazio partziala den etxeetan bizi diren pertsonen artean, eta ia % 22,1koa pertsona aktiborik lanean ez duten etxeetan bizi direnen artean.

### 3.3. Gipuzkoaren egoera Europaren testuinguruan

#### 3.3.1. Gipuzkoaren pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera baxuen tasa Europar Batasunekoaren antzekoa da, eta pobrezia larriaren tasa, berriz, % 25 txikiagoa

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012k ematen dituen datuak esparru espainiar edo europarrean dauden datuekin alderatzen badira, oro har, egoera positiboagoa antzematen da<sup>23</sup>. Horrela, Gipuzkoako pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera txikien tasa (% 16,8) EB-15ean erregistratzen denaren ia bera da (% 16,7) eta estatu osoari dagokiona (% 21,1) baino % 20 inguru txikiagoa.

Gipuzkoako gabezia material larriaren tasa (% 5,2), aldiz, nahiz eta EB-25ekoaren eta EB-15ekoaren batez bestekoaren (% 8,8 eta % 6,1, hurrenez hurren) azpitik dagoen, estatu osoan 2011n erregistratu zena (% 3,9) baino handiagoa da. Gipuzkoan adierazle honetarako lortutako emaitzak, bestalde, Euskadi osoan Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak erregistratutakoekin bat datoz.

49. taula. Pobrezia eta gabezia materialaren adierazleak. Europar Batasuna 2011 eta Gipuzkoa 2012

	Pobrezia erlatiboa	Gabezia material larria	Lan intentsitate baxua	Pobrezia eta bazterketa arriskua (AROE)
EB-27 2011 <sup>1</sup>	16,9	8,8	10,0	24,2
EB-15 2011 <sup>1</sup>	16,7	6,1	10,6	22,5
- Alemania	15,8	5,3	11,1	19,9
- Austria	12,6	3,9	8,0	16,9
- Belgika	15,3	5,7	13,7	21,0
- Danimarka	13,0	2,6	11,4	18,9
- Espainia <sup>4</sup>	21,1	3,9	12,2	27,0
- Finlandia	13,7	3,2	9,8	17,9
- Frantzia	14,0	5,2	9,3	19,3
- Grezia	21,4	15,2	11,8	31,0
- Holanda	11,0	2,5	8,7	15,7
- Italia	19,6	11,2	10,4	28,2
- Luxenburgo	13,6	1,2	5,8	16,8
- Portugal	18,0	8,3	8,2	24,4
- Erresuma Batua	16,2	5,1	11,5	22,7
- Suedia	14,0	1,2	6,8	16,1
Euskadi 2012 <sup>2</sup>	15,4	5,8	9,9	19,9
Gipuzkoa 2012 <sup>3</sup>	16,8	5,2	9,3	22,7


Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions). (2) Enpleguaren Europar

<sup>23</sup> Zehaztu egin behar da, dena den, Europar Batasunari buruz eskuragarri dauden datu berrienak 2011. urtekoak direla.

Lan intentsitate baxuaren eragina, hau da, pertsona heldu aktiboen beren lan ahalmen osoaren % 20 baino gutxiago lan egin duten etxeetan bizi diren 0 eta 59 urte bitarteko pertsonen proportzioarena, Gipuzkoan Europar Batasunean 2011n (% 10) eta Euskadi osoan 2012an (% 9,9) erregistratu zena baino pixka bat txikiagoa izan zen.

Egoera pixka bat hobea da pobrezia larriari dagokionez; Gipuzkoaren tasa (% 4,3) EB-15arena (% 5,5) baino puntu bat pasatxo txikiagoa da. Gipuzkoaren tasa, bestalde, ez da estatuaren tasaren (% 10,1) % 50era iristen; azken hau, horri dagokionez EB-15aren buruan dago. Haurren pobrezia larriaren tasari dagokionez ere, 18 urtetik beherako biztanleria barne hartzen du, Gipuzkoan horren eragina (% 6,1) Europar Batasunean eta Espainian (% 14,4) erregistratutakoa baino txikiagoa da. Nabarmendu egin behar da, aldiz, Gipuzkoaren egoera, Europarenarekin alderatuta, askoz ere positiboagoa dela biztanleria osoari dagokionez, haurren biztanleriari dagokionez baino.

### 3. grafikoa. Pobrezia larriaren tasa, biztanleria osoari eta 18 urtetik beherako biztanleriari dagokionez, Europar Batasunean 2011n eta Gipuzkoan 2012an




Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 eta Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions) 2011.

#### 3.3.2. Gipuzkoan biztanleriaren erdia baino gehiago dago erabateko gizarteratze mailan; tasa hori estatu mailan % 37koa da

Gipuzkoaren egoera estatuarenaren oso desberdina da bazterketa adierazleak aztertzen badira eta, gainera, kontuan hartzen bada estaturako daturik berrienak 2009koak direla. Honela, estatu mailan % 37,2ko gizarteratze tasa dagoelarik, Gipuzkoak % 55,9ko portzentajea erregistratu du. Hala

ere, adierazi egin behar da, era berean, erabateko gizarteratze edo integrazioa –metodologia honekin, 35 adierazleetatik abiatuta neurtutako gabezia egoeretako ororen falta gisa definitutagure lurraldean orokorragoa den arren, bazterketa larriaren eragina (% 6,8) 2009an estatu osoan antzemandakoa (% 5,8) baino zertxobait handiagoa dela.

#### 4. grafikoa. Etxeen banaketa gizarte bazterketaren eraginaren arabera.



Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 eta LAPARRA, M. eta PÉREZ ERANSUS, B. (koord.) (2010). El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España. Colección de Estudios, nº 32, Madril: FOESSA Fundazioa, Cáritas Española Editores. 68. orr.

Gipuzkoan lortutako emaitzek erakusten dute, dena den, aztertzen den bazterketaren dimentsioa edozein izanik ere, bere eragina gure lurraldean txikiagoa dela. Egin daitekeen salbuespen bakarra etxebizitzari buruzkoa da; dimentsio horretan Gipuzkoak ematen duen emaitza (% 19,9) Espainian 2009an lortutakoaren parekoa da (% 20,3).

#### 50. taula. Gizarte bazterketaren dimentsio desberdinek eragindako etheen tasa.

**Espainia 2009 eta Gipuzkoa 2012**


	Espainia 2009	Gipuzkoa 2012
Enpleguko bazterketa	32,1	20,2
Kontsumoko bazterketa	8,8	2,0
Bazterketa politikoa	22,2	10,3
Hezkuntzako bazterketa	11,2	8,0
Etxebizitzako bazterketa	20,3	19,9
Osasungintzako bazterketa	11,5	8,3
Gizarte gatazka	6,8	3,5
Gizarte isolamendua	5,0	1,7

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 eta LAPARRA, M. eta PÉREZ ERANSUS, B. (koord.) (2010). El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España. Colección de Estudios, nº 32, Madril:

### 3.3.3. Gipuzkoan gizarte desberdintasuna Europar Batasun osoan erregistratzen dena baino txikiagoa da eta herrialde eskandinaviarren antzeko mailara iristen da

Bestalde, adierazi beharra dago Gipuzkoan desberdintasunen adierazleak Europar Batasun osoan erregistratzen direnak baino positiboagoak direla eta herrialde eskandinaviarretan erregistratzen direneta gerturatu dira. Gini koefizientea, adibidez, -esan den bezala errentaren arabera banatutako biztanleriaren pisu metatuaren eta eskura duen errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa neurtzen du- Gipuzkoan, Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestako datuen arabera, 27,2koa da, EB-15ean berriz, 30,8koa.

5. grafikoa. Gini koefizientea. EB-5-15 2011 eta Gipuzkoa 2012



Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 eta Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions) 2011.

Datu hori, nahiz eta Euskadi osorako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak ematen duena (25,3) baino zertxobait handiagoa den arren, ondo egokitzen da gure erkidegoaren joera izaten ari denera. Inkesta honen arabera, Gini koefizientea egonkor samar mantendu da 2004 (26) eta 2012 (25,3) urteen artean.

Gizarte bazterketaren beste adierazleari dagokionez ere, S80/S20 -diru-sarrera baliokide handienak dituzten pertsonen % 20k jasotako diru-sarrera guztien eta diru-sarrera baliokide txikienak dituztenen % 20k jasotakoen arteko erlazioa adierazten du- Gipuzkoaren egoera positiboagoa da.

#### 51. taula Biztanleriaren diru-sarrera guztien banaketa, kintilen arabera.

##### EB-15 2011 eta Gipuzkoa 2012 (S80/S20 erlazio handienetik txikienera antolatuta)

	1. kintila	2. kintila	3. kintila	4. kintila	5. kintila	5. kintila/

						1. kintila (S80/S20)
Espainia	5,9	12,5	17,6	24,1	39,9	6,8
Grezia	6,7	12,4	17,2	23,3	40,3	6,0
Portugal	7,4	12,2	16,2	22,0	42,2	5,7
Italia	7,0	13,1	17,7	23,1	39,0	5,6
Erresuma Batua	7,7	12,6	16,6	22,3	40,8	5,3
EB-15	7,9	13,2	17,4	22,7	38,8	5,1
Frantzia	8,7	13,2	16,8	21,5	39,9	4,6
Alemania	8,4	13,7	17,7	22,9	37,4	4,5
Danimarka	8,1	14,6	18,5	22,9	36,0	4,4
Luxenburgo	9,1	13,7	17,8	23,1	36,2	4,0
Belgika	9,1	14,1	18,4	23,1	35,2	3,9
Austria	9,4	14,3	18,0	22,5	35,8	3,8
Gipuzkoa	9,0	14,2	18,7	23,1	34,0	3,8
Holanda	9,4	14,6	18,0	22,6	35,3	3,8
Finlandia	9,6	14,3	18,1	22,6	35,4	3,7
Suedia	9,4	14,9	18,8	23,0	33,8	3,6

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 eta Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions) 2011.

Zentzu horretan, 2012rako Gipuzkoarako lortutako emaitzek adierazten badute diru-sarrera handienak dituzten pertsonen % 20k, diru-sarrera txikienak dituzten pertsonen % 20k baino 3,8 bider errenta handiagoa duela, Europar Batasunean tarte hori 5,1ekoa izango litzateke eta Espainian –EB-15ean S80/S20 adierazle handiena duen herrialdea- 6,8koa.

### 3.3.4. Pobrezia energetikoaren adierazlea Gipuzkoan Europar Batasun osoan baino askoz ere txikiagoa da

Pobrezia energetikoari buruzko datuak, etxearen pertzepzio eta adierazpenetan oinarritutako ikuspuntutik abiatuta –funtsean hiru alderdi zehatz kontuan hartzen dituen adierazle sintetiko bat eratzean datza: hilabete hotzetan zehar etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzeko ezintasuna, etxebizitza mantentzearekin lotutako ordainagiriak ordaintzerakoan atzeratzea eta etxebizitzan hezetasunak edo itoginak egotea-, erakusten dute Gipuzkoan fenomeno horren eragina (13) Europar Batasunean (22) edo Espainian (16,2) erregistratzen dena baino txikiagoa dela, eta Alemania (14) edo Danimarka (12,6) bezalako herrialdeetan antzematen denaren oso antzekoa.

52. taula. Pobrezia energetikoaren tasa. Europar Batasuna 2011 eta Gipuzkoa 2012

	Temperatura desegokia	Atzerapenak energia-faktoretan	Hezetasunak etxebizitzan	Pobrezia energetikoaren tasa
EB-27 2011	9,8	8,8	15,5	22,0



EB-15 2011	8,3	6,7	15,6	19,5
- Alemania	5,2	3,9	13,7	14,0
- Austria	2,6	4,1	13,6	11,5
- Belgika	7,1	6,0	21,2	20,7
- Danimarka	2,6	3,9	16,0	12,6
- Espainia	5,9	5,0	15,6	16,2
- Finlandia	1,8	7,8	5,7	8,6
- Frantzia	6,0	7,1	10,9	15,0
- Grezia	18,6	23,3	15,3	37,9
- Holanda	1,6	2,4	14,6	10,1
- Italia	18,0	12,3	23,2	35,8
- Luxenburgo	0,9	2,2	15,5	9,8
- Portugal	26,8	6,7	21,3	40,8
- Erresuma Batua	6,5	5,0	15,9	17,0
- Suedia	1,6	4,1	8,4	7,9
Gipuzkoa 2012	6,1	4,5	9,1	13,0

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 eta Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions) 2011.

Pobrezia energetikoaren tasaren neurketari dagokionez, etxeko diru-sarrera garbien eta etxeko energiaren gastuen arteko erlaziotik abiatuta, Gipuzkoarako 2012an lortutako emaitzek adierazten dute etheen % 9,4k beren diru-sarreraren % 10 baino gehiagoko gastua egiten dutela. Hala ere, pobrezia energetikoari buruzko azterlan berri baten arabera<sup>24</sup> horrela kalkulaturako pobrezia energetikoaren tasak 2010ean Espainiako etheen % 12,4ri eragin zion.

<sup>24</sup> TIRADO HERRERO, Sergio (dir.) (2012). Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas. Madrid: Asociación de Ciencias Ambientales. 41. or.

#### **4. POBREZIA, BAZTERKETA ETA BIZI BALDINTZAK**

Kapitulu honen helburua gipuzkoar biztanleriak oro har dituen bizi baldintzei buruzko datu batzuk eskaintzea da. Datu horiek hainbat arlo ukitzen dituzte, hala nola hezkuntza, lan baldintzak, aurrekia eta zorpetzea, osasuna eta mendekotasuna, krisiaren eragina, etxebizitzarako aukera eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak, gizarte harremanak edo partaidetza soziala.

Kapitulu honetan jasotzen diren datuek modua ematen dute, batetik, gipuzkoar biztanleriak oro har esparru horietan duen egoera ezagutzeko baina, batez ere, oinarrizko aldagai soziodemografikoen arabera -funtsean sexu, adin eta herritartasunaren arabera- eta, bereziki, pertsonak edo familiek pobrezia/ongizatearen eskalan duten kokapenaren edo gizarteratze mailaren arabera sortzen diren aldeak identifikatzeko. Horretarako, kapitulu honetan biltzen den informazio guztia biztanleria osoari dagokionez ematen da alde batetik, eta aipatutako aldagai horien arabera bananduta bestetik. Eta informazioa banantze horren bidez egiazta dezakegu biztanleria pobreak edota gizarte bazterketa egoeran dagoenak zein neurritan jasaten dituen - biztanleriaren beste parteak baino neurri handiago batean inolaz ere- sarrera mailak ezinbestez baldintzatu beharko ez lituzkeen egoera arazotsu edo negatiboak.

Datuak banantzeko edo bereizteko kontuan hartu beharreko aldagaiak aukeratzeko unean, esan bezala oinarrizko hiru aldagai soziodemografiko –sexua, adina eta herritartasuna- erabiltzera eta pobrezia-ekin eta bazterketarekin lotutako hiru adierazle erabiltzera jo dugu:

- pobrezia erlatiboa (sarrera baliokideen erdiko balioaren % 60koa erabiliz atalase gisa),
- mantentze dimentsioko pobrezia, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) metodologiatik ondorioztatua eta biztanleriaren artean etxe pobreak, ongizaterik gabeak eta ongizate egoerakoak bereizten dituen; eta
- eskala barruko egoera, muturreko bazterketatik erabateko gizarteratzera baitoa, FOESSA Fundazioak garatutako metodologiatik abiatuta, bazterketa konpentsatuko eta gizarteratze prekarioko egoerak ere jasotzen dituen bera.

Oro har datuak hiru aldagai horien arabera bereizita aurkezten badira ere, kasu batzuetan, deskripzioa arintzearen, aldagaietako bat edo besteri buruzko datuak bakarrik aurkezten dira. Neurri batean bat datozen adierazleak izanik, adierazlearen beren sendotasuna agerian geratzen da, esate baterako pobrezia egoerako pertsonen –erdiko balioaren % 60ko adierazlearen bidez identifikatuei- dagozkien datuetan mantentze pobrezia-ko egoeran daudenekiko edo bazterketa egoeran daudenekiko aldeak ikusten direnean; eta agerian geratzen da, era berean, atalase jakin baten araberrako sarrera gabeziatik edo sarreraren erabilgarritasunetik haratago, bizi baldintza antzekoak partekatzen dituzten kolektiboak biltzeko duten gaitasuna.

Bestetik, ondoren zehazten diren emaitzak interpretatzeko unean, kontuan hartu behar dira metodologiako bi elementu garrantzitsu. Alde batetik, ez dela orain aztertzen diren elementuetan –hezkuntza, etxebizitza, osasuna, mendekotasuna, etab.- bereziki biltzen den inkesta bat; horrenbestez, emaitzak halako zuhurtzia puntu batez hartu behar dira. Bestetik, laginaren beraren mugak, neurriaren eta bertan pobrezia eta bazterketa egoerek duten presentzia txikiaren ondoriozkoak, lortutako emaitzen analisi zehatzagoa egitea eragozten baitute.

#### **4.1. Hezkuntzari eta hizkuntz ezaguerari lotutako alderdiak**

##### **4.1.1. Hezkuntza maila eta prestakuntza jardueretako partaidetza**

Eurostat-en datuen arabera, Europar Batasun osoan 2011ko urtean 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean guztira 7,5 milioi (guztiaren % 13) eta 25 eta 29 urtekoen gazteen artean beste 6,5 milioi (% 20) langabezian zeuden eta ez zuten inolako prestakuntza jarduerarik; beraz, ‘NEET’ edo ‘ni-ni’ belaunaldia (ikasten ari ez diren eta lanik ere egiten ez dutenak) deitu zaion horren parte ziren<sup>25</sup>. Espainian, egoera horretan dagoen gazte portzentajea, Eurostat-en datuen arabera, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 18,5koa da.

Gipuzkoan, ni-nien fenomenoak 16 eta 24 urte bitarteko 6.500 gazte ingururi eragiten die; biztanleria tarte horren % 11,7 dira. Beraz, Europar Batasunean oro har ematen den portzentajearen oso antzekoa da, eta oso tasa txikiak dituzten herrialdeen (Danimarkak % 6,3ko tasa du) eta Europa hegoaldeko herrialdeen eta, bereziki, Italia, Irlanda, Grezia eta Espainiaren artean kokatzen da.

<sup>25</sup> 2011n, gazteak lan merkatutik at geratzeak eragindako galera ekonomikoak 153.000 milioi eurokoak izan ziren Europan oro har. Zenbatespen kontserbadorea da, eta europar BPGren % 1,2ra iristen da. Estatu kideen arteko aldeak nabarmenak dira, baina herrialde batzuk prezio bereziki altua ari dira ordaintzen: bere BPGren % 2 edo gehiago, esaterako Bulgaria, Txipre, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia eta Poloniaren kasuan. ‘NEET’ belaunaldikoek arrisku handiagoa dute politikoki eta sozialki alienatuta egoteko. Ikasten edo lan egiten duten gazteekin alderatua, ‘NEET’ horiek askoz interes politiko baxuagoa dute, askoz partaidetza maila baxuagoa alderdi politiko edo jarduera sozialetan, eta baita konfiantza maila txikiagoa ere (Mascherini et al., 2012).

Ezaugarri pertsonalen ikuspegitik, ikusten da egoera honen prebalentzia antzekoa dela gizonezkoen eta emakumezkoen artean, eta, azterketa honetan analizatutako adierazleetako kasu gehienetan ez bezala, baxuagoa da atzerriko herritartasuna duten pertsonen artean bertakoan baino. Edonola ere, alde handienak familien (edo, emantzipatuta dauden kasuetan, gazteen beren) egoera sozioekonomikoari lotuta daude: familia pobreetan diren 16 eta 24 urte bitarteko gazteetatik ia-ia % 30, PGDIren mantentze pobrezia adierazlearen arabera, egoera horretan dago, aldiz, pobre ez direnen artean % 10,3 dira egoera horretan daudenak.

**53. taula. Ikasten ez eta lanik egiten ez duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentajea, hainbat ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Eragina
Sexua	Gizonezkoa	11,4
	Emakumezkoa	11,9
Herritartasuna	Bertakoak	13,3
	Atzerritarrak	4,8
Pobrezia erlatiboa	Bai	16,3
	Ez	10,1
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	29,6
	Ongizaterik eza	7,6
	Ongizatea	10,3
Guztira		11,7

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Hezkuntza mailaren eta pobrezia arteko erlazioa argia da. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestako datuen arabera, 16 urtetik gorako biztanleria hiru multzo handitan banatzen da, lortutako hezkuntza mailaren ikuspegitik: % 45,1ek gehienez ere lehen mailako ikasketak ditu; % 35,2k bigarren mailakoak, eta % 20,7k unibertsitate mailako ikasketak egin ditu. Alabaina, biztanleria pobreen barnean banaketa bestelakoa da, askoz presentzia handiagoa baitute asko jota ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak. Hala, biztanleria osoa harturik lehen mailako ikasketak dituztenak % 45,1 direlarik, pobrezia egoeran dagoen biztanleria hartuz gero % 61,5era igotzen da portzentajea. Adierazi behar da, halaber, sarrera baliokideen erdiko balioreen % 60koaren atalasearen arabera pobrea den biztanleriaren % 11,7k unibertsitate mailako ikasketak dituela.

**54. taula. Biztanleriaren banaketa hezkuntza mailaren eta hainbat pobrezia egoeraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrezia erlatiboa	Mantentze dimentsioko pobrezia	Biztanleria oro har
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	61,5	58,2	45,1
Bigarren mailako ikasketak	26,9	28,8	34,2
Unibertsitateko ikasketak	11,7	13,0	20,7
Guztira	100,0	100,0	100,0

Inkesta honetako datuek, bestetik, agerian jartzen dute 24 urtetik gorako biztanleria pobreen artean ikasten duen portzentajea handiagoa dela –duen langabezi maila handiagoagatik seguruenik- pobrezia egoerarik bizi ez duen biztanleriaren artean baino. Izan ere, 24 urtetik gorako 20.000 pertsona pasatxo dira gaur egun Gipuzkoan prestakuntza jardueraren batean ari direnak, hau da, biztanleria-tarte horren % 3,9. Alabaina, pobrezia erlatiboko egoeran dauden pertsonen artean portzentajea % 5,8koa da. Pobreziaren definizio zorrotzago bat, PGDI metodologiatik ondorioztatzen dena alegia, erabiliz gero, prestakuntza jardueretan ari diren pertsonen tasa % 9,3ra iristen da. Aitzitik, biztanleria ez pobreen artean tasa % 3,3koa da, eta ongizaterik gabeko egoeran dauden artean, berriz, % 4,9koa.

**55. taula. 24 urtetik gorako biztanleriaren banaketa, mantentze dimentsioko pobrezia/ongizate eskalaren eta ikasketak egitearen arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrea	Ongizaterik eza	Ongizatea	Biztanleria oro har
Ikasten ari da	9,3	4,9	3,3	3,9
Ez da ikasten ari	90,7	95,1	96,7	96,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Oharra: PGDI pobrezia.

#### 4.1.2. Hizkuntzak jakitea

Lurralde elebidun batean, Gipuzkoa horietakoa da, zer neurritan lotzen zaio hizkuntzak jakitea pobrezari?

Horri dagokionez inkesta honek ematen duen lehen datuaren arabera, 2012an biztanleriaren % 36,5ek euskara du ama hizkuntza<sup>26</sup>, % 51,5ek gaztelania, % 7,7k biak, eta % 4,3k beste hizkuntza batzuk. Ama hizkuntzaren arabera egiten den biztanleriaren banaketa ez da, baina, orain aipatua pertsona pobreen, ongizaterik gabeko egoeran dauden eta ez pobreen artean: izan ere, ikusten da euskara ama hizkuntza izateko probabilitatea txikiagoa dela pobrezia/ongizate eskalako posizioa zenbat eta txarragoa izan, eta handiagoa da, aldiz, ama hizkuntza gaztelania eta, batez ere, beste batzuk izateko probabilitatea (hau guztia lotuta dago, noski, pobrezia egoeran dauden pertsonen artean immigranteek duten pisu handiagorekin).

**56. taula. Biztanleriaren banaketa, mantentze dimentsioko pobrezia/ongizatea eskalaren eta ama hizkuntzaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrea	Ongizaterik eza	Ongizatea	Biztanleria oro har
Euskara	14,0	27,7	39,9	36,5
Gaztelania	63,3	56,4	49,7	51,5
Euskara eta gaztelania	5,7	6,1	8,1	7,7

<sup>26</sup> Galdesortako galderak aipatzen du zein izan zuten haurtzaroko lehen hizkuntza, eta lau aukera ematen ditu: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat.

Beste bat edo batzuk	17,0	9,8	2,3	4,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Oharra: PGDI pobrezia.

Ama hizkuntza dena dela, pertsonen hizkuntz jakintzak harreman estua du, halaber, etxeek eskala sozioekonomikoan duten egoerarekin. Alde batetik, biztanleria osoa hartuz gero, ikusten da gipuzkoar biztanleriaren % 28,9k bakar-bakarrik gaztelaniaz hitz egiten duela, % 45,8k gure lurraldeko bi hizkuntza ofizialak ditu adierazpide, eta % 23,9k –bere ama hizkuntzaz edo hizkuntzez gain- atzerriko hizkuntzaren batez hitz egiten du. Pobreen eta ez pobreen arteko aldeak, edonola ere, lotuago daude hizkuntza ofizialekin atzerrikoekin baino: izan ere, ez pobreen % 27aren aurrean, pobreetatik % 40k gaztelaniaz soilik hitz egiten du, eta kolektibo horretan gaztelaniadunak dira talde nagusia. Aitzitik, biztanleria ez pobreen artean elebidunak % 46,8 dira, eta pobreen artean, aldiz, elebidunak % 38,2 dira. Ama hizkuntzaz bestelako atzerriko hizkuntzei dagokienez, ikusten da ezen, eskala sozioekonomikoko posizioa zenbat eta hobetagoa izan, hainbat eta handiagoa dela atzerriko hizkuntzaren bat hitz egiteko aukera, aldeak hain nabarmenak ez badira ere.

**57. taula. Biztanleriaren banaketa, mantentze dimentsioko pobrezia/ongizatea eskalaren eta hizkuntz ezagueraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrea	Ongizaterik eza	Ongizatea	Biztanleria oro har
Gaztelaniaz soilik	39,8	34,5	27,1	28,9
Gaztelaniaz eta euskaraz	38,2	43,6	46,8	45,8
Ama hizkuntza eta atzerriko hizkuntzaren bat	19,5	21,3	24,7	23,9
Beste egoera batzuk	2,5	0,5	1,4	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Oharra: PGDI pobrezia.

## 4.2. Osasun egoera eta mendekotasun egoerak

### 4.2.1. Osasun egoera eta tabako kontsumoa

2012an, gipuzkoar biztanleriaren % 83k dio osasun ona edo oso ona duela, % 10,8k hala-moduzko deritzo, % 4,8 txar, eta % 1,8k oso txar. Erabiltzen den neurria dena dela, pertsona pobreek maizago adierazten dute, besteek baino, osasun hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra dutela: biztanleria ez pobreen artean % 15,4 da hala-moduzko osasuna, osasun txarra edo oso txarra duela dioen portzentajea; pobrezia egoeran daudenen artean, berriz, % 24,8koa da portzentajea.

**58. taula. Biztanleriaren banaketa, pobrezia erlatiboaren eta norberak sumatutako osasun mailaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrea	Ez pobrea	Guztira
Oso ona	35,1	31,8	32,4

Ona	40,2	52,8	50,6
Hala-moduzkoa	14,7	10,0	10,8
Txarra	7,5	4,2	4,8
Oso txarra	2,5	1,2	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Ona edo oso ona</i>	<i>75,2</i>	<i>84,6</i>	<i>83,0</i>
<i>Hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra</i>	<i>24,8</i>	<i>15,4</i>	<i>17,0</i>

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Norberak sumatutako osasuna ona ez den egoeren prebalentzia nabarmen aldatzen da, ez soilik pobrezia egoeren arabera, baizik eta baita ezaugarri soziodemografiko batzuen, hala nola sexuaren eta adinaren arabera. Izan ere, emakumezkoen kasuan osasun egoera hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra dutela uste dutenen portzentajea % 19,2koa da, eta gizonezkoen artean, aldiz, % 14,6koa. 65 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, portzentajea % 47,8koa da, orokorra baino ia-ia hiru aldiz handiagoa. Herritartasunaren arabera ere ikusten dira aldeak, ezen atzerritarren artean sumatutako osasun egoera hobetua da, batez besteko adina txikiagoa izatearen eraginez agian. Bazterketaren kasuan, aldeak agerikoak dira; dena den, kontuan hartu behar da bazterketa adierazlea eraikitzeke erabiltzen den ezaugarrietako bat osasunari buruzko autobalorazio negatiboa dela, hain zuzen ere.

**59. taula. Biztanleriaren osasuna, norberak sumatutako osasun mailaren eta hainbat ezaugarri pertsonalen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Ona edo oso ona	Hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra
Sexua	Gizonezkoa	85,4	14,6
	Emakumezkoa	80,8	19,2
Adina	0-17 urte	98,2	1,8
	18-34 urte	96,1	3,9
	35-49 urte	88,5	11,5
	50-64 urte	81,9	18,1
	65 urte eta gorakoak	52,2	47,8
Herritartasuna	Bertakoak	82,5	17,5
	Atzerritarrak	90,5	9,5
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	86,5	13,5
	Gizarteratze prekarioa	83,0	17,0
	Bazterketa konpentsatua	73,8	26,2
	Bazterketa larria	62,3	37,7
Guztira		83,0	17,0

Osasun egoerarekin argi eta garbi lotzen diren portaera edo ohituretako bat tabako kontsumoa da. Eta ez dirudi ohitura hori pobrezia eta bazterketa egoerekin argi lotzen denik, ez behintzat hasiera batean. Izan ere, inkestako datuekin bat, erretzaile ohikoak dira –egunean bost zigarro baino gehiago- Gipuzkoako 15 eta 74 urte bitarteko 120.000 pertsona pasatxo, hau da, 15 eta 74 urte bitarteko gipuzkoar biztanleriaren % 22,9<sup>27</sup>. Pertsona pobreen artean, tabako kontsumoaren tasa baxuagoa da ez pobreen artean baino. Aitzitik, bazterketaren kasuan kontsumo tasa txikiak ematen dituztenak gizarteratze egoeran dauden pertsonak dira<sup>28</sup>.

**6o. taula. Tabako kontsumo ohikoaren eragina, pobrezia eta bazterketako hainbat egoeraren arabera. Gipuzkoa 2012**

(15 eta 74 urte bitarteko biztanleria)

		Eragina (%)
Pobrezia erlatiboa	Bai	18,6
	Ez	23,7
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrezia	17,9
	Ongizaterik eza	24,4
	Ongizatea	23,2
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	18,8
	Gizarteratze prekarioa	27,3
	Bazterketa konpentsatua	34,0
	Bazterketa larria	24,2
Guztira		22,9

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

4.2.2. Mendekotasuna eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza

Kapitulu honen sarreran adierazi den moduan, txosten honen helburu nagusia Gipuzkoan dauden pobrezia eta bazterketa mailak identifikatzea da, biztanleria pobreen –edo bazterketa egoeran dagoenaren- eta beste biztanleen artean bizi baldintzei dagokienez dauden aldeekin batera. Era berean, inkesta beste hainbat konturi buruzko informazioa ere biltzeko moduan diseinatu da,

<sup>27</sup> Portzentajea txikixeagoa da *Euskadi eta Drogak Inkesta 2012* lanak EAerako ematen duena baino; honek, izan ere, % 25,7ko tasa ematen du ohiko tabako kontsumoari dagokionez.

<sup>28</sup> SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarentzat egindako *Euskadi eta Drogak 2012* azterketaren arabera, behereneko talde sozioekonomikoetan sartutako pertsonen 1,6 aldiz handiagoko probabilitatea dute ohiko tabako kontsumitzaileak izateko. Edonola ere, kontuan hartu behar da multzo horietan sartutako pertsonak ez datozela ezinbestean bat pertsona pobreekin edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonekin, inkesta honetan definitzen denaren arabera. Inkesta honetako datuak, bestetik, bat datoz Schaap et al.-ek (2007) adierazten dituztenekin; izan ere hauen iritziz, egia bada ere aldagai sozioekonomiko eta hezkuntzari lotutako batzuek eragina duela tabako kontsumoan, ez dago daturik sarrera maila eta tabako kontsumoa zuzenean lotu ahal izateko. Gainera, estatus ekonomikoaren eta tabako kontsumoaren arteko erlazioa ahulagoa da Europa hegoaldeko herrialdeetan, kontinenteko erdi eta iparraldeko herrialdeetan baino.



inolaz ere, batez ere eskumen mailan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuari dagozkion esparruei dagokienez. Ildo honetatik, galdesortak hainbat galdera jasotzen zituen elbarritasun eta mendekotasun egoeren prebalentziari eta egoera horretan dauden pertsonen jasotzen duten laguntza motari –formal eta informalar- buruz<sup>29</sup>.

Inkestak agerian jartzen duen lehen datua zera da, 30.000 gipuzkoar baino gehiago direla eguneroko bizimoduko oinarritzko jardueretarako eragozpena edo zailtasunak eragiten dizkien ezintasun, gaixotasun kroniko edo osasun arazo larriren bat dutela diotenak. Biztanleriaren % 4,3 da<sup>30</sup>. Taulan ikusten den moduan, mendekotasun egoera sumatuen prebalentziaren inguruko desberdintasunak aldatu egiten dira sexuaren eta adinaren arabera, baina baita herritartasunaren arabera ere.

**61. taula. Eguneroko bizimoduko jardueretarako eragozpen edo mugek biztanlerian duten prebalentzia, hainbat ezaugarri pertsonalen arabera. Gipuzkoa 2012**

		%
Sexua	Gizonezkoa	3,5
	Emakumezkoa	5,1
Adina	0-17 urte	1,3
	18-34 urte	1,0
	35-49 urte	2,0
	50-64 urte	2,3
	65 urte eta gorakoak	14,6
Herritartasuna	Bertakoak	4,5
	Atzerritarrak	0,7
Guztira		4,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gaur egun, mendekotasunaren balorazioa duten pertsonak 33.000 baino gehiago dira Gipuzkoan; dena den, horietatik guztietatik 5.000 inguru, familia-etxebizitzetan ez baizik eta egoitzetan bizi direnez, ez lirateke kontuan hartu beharko kalkulu hauen ondorioetarako, ez baitira lagin honen unibertsoaren parte. Beraz, muga edo dependentzia motaren bat dutela dioten 30.395 pertsonako kolektiboa izaki, Gipuzkoako Foru Aldundiak 28.000 inguru dituzke baloratuta; beraz, pentsatzekoa da mendekotasuna duten edo laguntza beharrean dauden pertsonetatik parte oso handi bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuek baloratu dutela, eta, ikuspegi horretatik, behar bezala identifikatuta daudela.

30.395 pertsona hauetatik, % 85,5ek dio laguntza motaren bat behar duela eguneroko bizimoduko jardueretarako: guztira 25.994 pertsona dira. Horietatik guztietatik ia-ia denek jasotzen dute jarduera horietarako laguntzaren bat. Hurrengo taulak pertsona horiek etxean jasotzen dituzten laguntza motak biltzen ditu, inkestako datuen arabera:

<sup>29</sup> Datu hauek interpretatzeko unean, kontuan hartu behar dira laginaren ezaugarriak eta mendekotasun arazoak dauden kasu kopuru txikia; gauzak horrela, datuak orientagarriak dira.

<sup>30</sup> Kontu honi buruz EAEn egindako azken azterketetako batek (Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika. Gizarte Beharrei buruzko Inkesta 2010, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jauriaritza) % 3,1eko portzentajea ematen zuen mendekotasun erabatekoa, larria edo moderatua duen biztanleriari dagokionez, % 2,1ekoa mendekotasun arina duen biztanleriari dagokionez. Kopuruak biztanleriaren % 5,2 hartzen du, baina azpimarratu behar da galderaren formula oso desberdina dela: GZEEren kasuan pertsona inkestatuei eskala batzuk jartzen zitzaizkien, baina kasu honetan inkesta mugatu egiten da familia-unitateko pertsonen mugei buruz informatzaileak duen iritzia jasotzera.

**62. taula. Eguneroko bizimoduko jardueretarako laguntza jasotzen duen biztanleria portzentajea, etxean jasotako laguntza motaren arabera. Gipuzkoa 2012**

Laguntza mota	Laguntza behar eta laguntza jasotzen duten pertsonen gaineko %
Etxeko beste batek emana	65,0
Beste etxe batean bizi den senide batek emana	16,6
Etxeko laguntza zerbitzua	13,8
Arreta pribatua	29,3
Telelaguntza*	6,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Inkestak, argi eta garbi, gutxietsi egiten du telelaguntza zerbitzuaren erabiltzaile den pertsona kopurua ezen, erregistro administratiboen arabera, ia-ia lau aldiz handiagoko estaldura du. Zerbitzuen baturak ez du % 100 ematen, zeren eta pertsona batek berak zerbitzu bat baino gehiago jaso baitezake.

Kontu hau aztertzen duten beste azterketek (gure inguruan Gizarte Zerbitzuen Eskararen Estatistika edo Biztanleria Helduaren Bizi Baldintzei buruzko Inkesta dira, 2010ekoak biak) agerian jartzen duten moduan, familiaren arreta informala eta arreta pribatua -sarritan modu irregularrean kontratatua- pertsonak bere etxean jasotzen dituzten laguntza modalitate behinenak dira, inolako zalantzarik gabe. Datu hauekin bat, eta telelaguntzako zerbitzuaren erabiltzaileei dagokionez ikusten den detekzio baxuegia kontuan harturik, bere etxean laguntza jasotzen duten pertsonetatik % 84,3k bakar-bakarrik zaintza informalak edota pertsona kontratatuek emandakoak dituzkete; aldiz, % 7,6k bakar-bakarrik zerbitzu publikoak dituzke sostengu -telelaguntza edota Etxeko Laguntza Zerbitzua-, eta % 8,1ek laguntza mota biak.

Edonola ere, adierazitakoez gain mendekotasuna edo bere autonomia mugatua duten pertsonak, etxean bizi direnak, beste bi laguntza mota jaso ditzakete: prestazio ekonomikoak eta, funtsean, Familia Ingurunekeo Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa (FIZPE) alde batetik, eta eguneko arreta zerbitzuak bestetik. Baliabide hauek kontuan hartuz gero, motaren bateko laguntza publikoak jasotzen dituzten pertsonen portzentajea ezintasunen bat dutelarik laguntza beharrean dauden pertsona guztietatik % 60,7koa da. Hauetatik, ia-ia bi herenek FIZPE jasotzen dute, familia zainketekin batera, eta % 37k arreta zuzeneko zerbitzuak jasotzen ditu, prestazioaren osagarriaz edo gabe.

**63. taula. Eguneroko bizimoduko jardueretarako laguntza jasotzen duen biztanleriaren portzentajea, jasotako laguntzaren sorburuaren arabera. Gipuzkoa 2012**

Laguntza mota	Kop.	% bertikala	Laguntza publikoak jasotzen dituen biztanleriarekiko %
Bakarrik familia zainketak edo pribatuak	10.154	39,3	-
Familia zainketak edo pribatuak eta prestazio ekonomikoa	9.764	37,8	62,1
Arreta zuzeneko zerbitzu publikoren bat prestazio ekonomikoaz edo gabe*	5.937	23,0	37,2
Guztira	25.855	100,0	100,0

\* Kategoria honetan sartzen dira aipatzen diren arreta zuzenerako zerbitzu publikoetakoren bat (etxeko laguntza zerbitzuak, telelaguntza eta eguneko arreta) jasotzen duten pertsonak, zainketa informalik edo, esaterako, FIZPE prestazioa edo bestelakorik jasotzen duten alde batera utzita.

### 4.3. Lan baldintzak

#### 4.3.1. Lanaldia eta kontratazioa

Lan merkatuan ari diren gipuzkoar pertsonetatik % 12,6k lanaldi partziala du, astean 25 ordu baino gutxiagokoa. Hurrengo taulan ikusten den moduan, lanaldi partzialaren prebalentzia askoz handiagoa da emakumeen artean (% 21,5) gizonen artean baino (% 4,3). Adinarekin edo herritartasunarekin lotutako aldeak ere badiren arren, kasu hauetan alde horiek askoz txikiagoak dira.

Eta une honetan lanean ari diren pertsonak bakarrik aztertu beharrean azken urtean lan egin duten pertsona guztiak hartzen baditugu kontuan, egoera antzekoa da, lanaldi partzialaren prebalentzia handixeago batez kasu guztietan. Gainera, ikusten da zer neurritan lotzen den okupazio bat duten pertsonen arteko pobrezia pertsona horiek egindako lanaldiarekin: familia pobreetan bizi ez diren pertsona okupatuaren artean lanaldi partziala dutenen portzentajea % 11,5ekoa da; aldiz, pobreziaaren atalasearen azpitik dauden familietakoen artean portzentajea % 25,5ekoa da.

**64. taula. Lanaldi partziala (astean 25 ordu baino gutxiago) duen biztanleria okupatuaren portzentajea, ezaugarri indibidualen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Gaur egungo pertsona okupatuak	Azken urtean lan egin duten pertsonak
Sexua	Gizonezkoa	4,3	5,7
	Emakumezkoa	21,5	23,2
Adina	<35 urte	14,6	18,0
	35-54 urte	12,1	12,9
	55 urte eta gorakoak	11,1	12,5
Herritartasuna	Bertakoak	12,3	13,7
	Atzerritarrak	15,5	20,1
Pobrezia erlatiboa	Bai	25,5	28,3
	Ez	11,5	12,7
Guztira		12,6	14,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Osterantzean, inkestako emaitzen arabera, Gipuzkoako soldatapeko biztanleriaren % 22k aldi baterako kontratua du, edo obra edo zerbitzuko kontratua; % 76,5ek kontratu mugagabea, eta %

1,4k kontraturik gabe egiten du lan. Emakumezkoen kasuan, % 25 baino gehiagok aldi baterako kontratua edo obra eta zerbitzuko kontratua du; portzentaje hau, gazteen artean, % 34koa da, eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean % 56koa. Soldatapeko pertsona pobreen artean, kontratu mugagabeen portzentajea txikiagoa da (% 48,2), eta horietako gehienek gainera okupazio ez egonkorrak (% 40,1) edo irregularrak (% 11,7) dituzte.

**65. taula. Soldatapeko biztanleriaren portzentajea aldagai indibidualen eta kontratu moten arabera. Gipuzkoa 2012**

		Mugagabea	Aldi baterakoa, obra edo zerbitzuko edo besteren bat	Kontraturik gabe
Sexua	Gizonezkoa	83,2	16,6	0,2
	Emakumezkoa	69,7	27,7	2,7
Adina	<35 urte	63,1	34,7	2,2
	35-54 urte	79,9	19,0	1,1
	55 urte eta gorakoak	91,1	7,8	1,1
Herritartasuna	Bertakoak	80,4	18,6	0,9
	Atzerritarrak	36,7	56,5	6,8
Pobrezia erlatiboa	Bai	48,2	40,1	11,7
	Ez	78,8	20,6	0,6
Guztira		76,5	22,0	1,4

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

#### 4.3.2. Soldatak eta kotizazio sozialak

Kotizazio sozialei dagokienez, eta inkesta egin zaien pertsonen emandako informazioaren arabera, biztanleria okupatuaren % 96 ari da Gizarte Segurantzari kotizatzen, eta % 4k –guztira 11.800 pertsona Gipuzkoa osoan- ez du kotizatzen. Aztertutako beste kasuetan bezala, kotizatzen ez duen pertsona okupatuaren portzentajea bereziki txikia da gizonezkoen, 55 urtetik gorako pertsonen eta bertakoen artean; aitzitik, egoera kezkarriena atzerriko herritartasuna duten pertsonena da, zeren eta horien artean % 29,2k baito ez duela Gizarte Segurantzari kotizatzen. Pertsona pobreen kasuan, portzentajea % 8,5koa da.

**66. taula. Biztanleria okupatuaren banaketa Gizarte Segurantzako kotizazioaren eta hainbat ezaugarri indibidualen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Kotizatzen dute	Ez dute kotizatzen
Sexua	Gizonezkoa	97,9	2,1
	Emakumezkoa	93,9	6,1
Adina	<35 urte	93,8	6,2
	35-54 urte	97,1	2,9


	55 urte eta gorakoak	95,2	4,8
Herritartasuna	Bertakoak	97,9	2,1
	Atzeritarrak	70,8	29,2
Pobrezia erlatiboa	Pobreak	91,5	8,5
	Ez pobreak	96,4	3,6
Guztira		96,0	4,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gipuzkoako biztanleria okupatuaren batez besteko soldata garbia, oro har, 1.538 eurokoa da, eta soldataren erdiko balioa 1.400eko<sup>31</sup>. Kantitate hauek pobrezia erlatiboaren edo sarrera txikien atalasea gainditzen dute, % 83 eta % 66 batez hurrenez hurren; atalase hori, beste kapitulu batean adierazi dugun moduan, 842,5 eurokoa da pertsona bakarra den kasuetan. Lanean ari diren pertsona pobreen soldataren erdiko balioa 750 eurokoa da, eta batez besteko soldata 820 eurokoa da hilean.

Hurrengo grafikoak biztanleria okupatua lau multzotan biltzen du, sarrera garbien arabera. Grafikoan ikusten den moduan, biztanleriaren % 26,5 mileurista deitua da –kasurik onenean-, 1.050 eurotik beherako sarrera garbiez. Multzo horren barnean erdia ia-ia (guztira 40.000 pertsona inguru) 750 eurotik beherako soldatak dituzten pertsonak dira; horiek, normalean, lanaldi partzialei daude lotuta. Soldatapeko biztanleriaren % 27,9k 1.050 eta 1.500 euro bitarteko soldatak ditu. Multzo nagusiak –soldatapeko biztanleriaren % 37,6k edo, kopuru absolutuak emanez, ia-ia 80.000 pertsonak- 1.500 eta 2.100 euro arteko soldatak ditu. Azkenean, biztanleriaren % 19k 2.100 eurotik gorako soldatak hartzen ditu.

**6. grafikoa. Biztanleria okupatuaren banaketa, laneko hileko sarrera garbien arabera. Gipuzkoa 2012**



<sup>31</sup> Soldatei buruzko adierazleak kalkulatzeko, kontuan hartzen da elkarrizketa egindako pertsonen deklaraturako soldata garbia, bakoitzaren lanaldiaren iraupena kontuan hartzeke. Ildo horretatik ez da orduko soldatarik kalkulatu, eta ez dira soldatak lanaldiaren iraupenera egokitu; hori egin beharrean, egiaz jasotako ordainsariak hartu dira kontuan. Kalkuluak soldata arruntak zein aparteko pagak jasotzen ditu.

Laneko sarrera garbien banaketa, alabaina, desberdina da generoaren edo pobrezia-eraketiko egoeraren ikuspegitik aztertuz gero. Emakumeen artean, mileuristen portzentajea % 40koa da; gizonezkoen artean, aldiz, % 13koa. Emakumeetatik % 14,5ek bakarrik dio hilean 2.100 eurotik gorako sarrerak dituela; gizonezkoen artean portzentajea % 23,1koa da.

**68. taula. Biztanleria okupatuaren banaketa laneko hileko sarrera garbien arabera, sexua eta pobrezia erlatiboaren egoera bereizita. Gipuzkoa 2012**

	Sexua		Mantentze dimentsioko pobrezia		Biztanleria okupatua oro har
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Pobrezia	Pobreziarik eza	
1.050 baino gutxiago	13,7	40,4	72,6	22,7	26,5
1.050 eta 1.500 bitartean	30,3	25,2	14,4	29,0	27,9
1.500 eta 2.100 bitartean	45,8	28,7	18,3	39,2	37,6
2.100 baino gehiago	23,1	14,5	0,0	20,5	19,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Mantentze pobrezia-eraketan dauden pertsonen kasuan, % 72,6k 1.050 eurotik beherako soldata du. Datu horiek, halaber, erakusten dute ezen, pertsona pobreetatik ia-ia % 20k 1.500 eta 2.100 euro bitarteko soldatak dituela; kasu horietan, pobrezia ez litzateke izango soldata baxu baten ondorioa, baizik eta dependentzia bai baina sarrera osagarririk ez duen pertsona kopuru handi batekin bizi izatearena. Kontrako zentzuan, pobre ez diren pertsonetatik % 22,7k 1.050 eurotik beherako sarrerak ditu, baina pobrezia-eraketatik gora dago, bai bere ardurapean mendekotasuna duen pertsonarik ez duelako, bai familia-unitatea sarrera handiagoak dituzten beste pertsona batzuekin partekatzen duelako.

#### 4.4. Gastua eta zorpetzea

##### 4.4.1. Etxebizitzako gastuak

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 laneko datuekin bat, gipuzkoar etxeetatik % 55ek bakar-bakarrik etxebizitza erabiltzeak sortzen dituen gastuak ditu (gasa, elektrizitatea, komunitatea, etab.), erabat ordainduta dagoen etxebizitza batean bizi direlako. Alabaina, etxeetatik % 31k hipoteka bat ordaindu behar du, eta % 13,2k errenta.

Taulan ikusten den moduan, banaketa hau aldatu egiten da familiek pobrezia-eraketiko edo bazterketarekiko duten egoeraren arabera: gizarteratze egoeran dauden etxeen artean etxebizitza ordainduta duten familien portzentajea % 68koa da, baina bazterketa larriko egoeran dauden artean proportzioa % 38koa da, eta etxe hauetatik ia-ia erdia errenta erregimeneko etxebizitzetan

daude (% 49,1). Erabiltzen diren adierazleen arabera egon daitezkeen aldeak bazterrean utzirik, begi-bistakoa da errentak pisu handiagoa duela egoera desfavoratuagoan dauden etxeen artean; era berean, hipotekak ordaindu beharrekiko esposizio txikiagoa dute.

**69. taula. Etxeen banaketa pobrezia eta bazterketa egoera zenbaiten eta etxebizitzarekin lotutako ordainketa moten arabera. Gipuzkoa 2012**

		Hipoteka mailegua	Errenta	Bat ere ez
Pobrezia erlatiboa	Bai	14,9	28,5	56,6
	Ez	35,1	9,9	55,0
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrezia	23,6	42,1	34,3
	Ongizaterik eza	12,4	19,6	68,0
	Ongizatea	35,7	8,8	55,4
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	31,9	6,0	62,1
	Gizarteratze prekarioa	37,0	16,3	46,7
	Bazterketa konpentsatua	21,4	23,0	55,6
	Bazterketa larria	12,9	49,1	38,0
Guztira		31,5	13,2	55,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gipuzkoar familiek hipoteka edo errenta dela-eta egiten duten batez besteko ordainketa berdina da kasu bietan: ia-ia 600 euro hipoteka mailegua ordaintzen ari diren etxeen kasuan, eta 535 euro errentan hartutako etxebizitzetan bizi direnen kasuan. Kasu guztietan, familia pobreek edo bazterketa egoeran daudenek egiten dituzten ordainketak baxuagoak dira egoera favoratuagoan dauden etxeek egiten dituztenak baino.

**70. taula. Etxebizitzarako egiten diren hileko batez besteko ordainketak, pobrezia eta bazterketa egoera batzuen eta ordainketa motaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Hipoteka mailegua	Errenta	Guztira
Pobrezia erlatiboa	Bai	424,1	485,0	464,1
	Ez	612,2	566,5	602,1
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrezia	423,1	470,5	453,5
	Ongizaterik eza	442,5	438,9	440,3
	Ongizatea	618,6	607,1	616,3
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	608,2	511,7	593,0
	Gizarteratze prekarioa	602,7	534,5	581,9
	Bazterketa konpentsatua	438,2	509,7	475,2

	Bazterketa larria	527,4	572,2	562,9
Guztira		596,5	535,4	578,5

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gaur egun hipoteka mailegu bat ordaindu behar duten gipuzkoar etxeak aintzat hartuz gero, oro har horiek bere sarreretatik % 28 bideratzen dute ordainketa horretara; errentaren kasuan, aldiz, portzentajea % 34koa da. Etxebizitza-gastuek sarrerekiko pisu handiena duten kasua ongizaterik gabeko egoeran dauden pertsonen dagokien batez beste bere sarreretatik % 51 bideratzen dute eta errenta ordaintzera. Errentan bizi diren eta pobrezia erlatiboaren atalasearen azpitik dauden familien kasuan, portzentajea % 44koa da.

**71. taula. Etxebizitza-gastuaren batez besteko pisua familiaren sarrerekiko, ordainketa motaren eta pobrezia eta bazterketarekiko egoeraren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Hipoteka mailegua	Errenta
Pobrezia erlatiboa	Bai	36,3	44,8
	Ez	21,2	24,7
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrezia	22,4	31,7
	Ongizaterik eza	38,6	51,2
	Ongizatea	32,7	31,1
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	20,7	23,4
	Gizarteratze prekariora	22,4	31,7
	Bazterketa konpentsatua	20,5	22,7
	Bazterketa larria	24,1	31,0
Guztira		28,8	34,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Inkestako datuek agerian jartzen dute, halaber, 30.000 pertsona inguru pobrezia erlatiboko egoeran geratzen direla –biztanleriaren % 4-, hain zuzen ere etxebizitza-gastuen eraginez. Beste 35.000 pertsona (biztanleriaren % 5) pobrezia larriko egoeran geratzen dira gastu mota horren eraginez, hau da, egoera honen eragina bikoiztu egiten da<sup>32</sup>. Adierazle hau lortzeko, birkalkulatu egin dira etxe guztietako sarrerak, konputu horretatik kenduz etxebizitza ordaintzera bideratzen diren kopuruak; eta pobrezia atalasea ere birkalkulatu egin da aldi berean. Horrela kolektibo bat identifikatzen da eta horrek, pobrezia atalasetik gorako sarrerak baditu ere, erabilgarri dituen sarrera errealak –etxebizitzari lotutako gastuak ordaindu ondoren- atalase berri horren azpitik daude, hau da, ezkutuko beste pobrezia mota bat dugu parean<sup>33</sup>. Etxebizitza-gastuei aurre egin

<sup>32</sup> Kolektibo biak ezin dira batu, elkar estaltzen baitute neurri batean. Bestetik, 30.022 pertsona igaro dira pobreziarik gabeko egoera batetik behintzat pobrezia erlatibokoa den batera (izan ere, pobrezia erlatiboko egoeren artean sartzen da pobrezia larria). Gainera, 35.467 igarotzen dira pobreziarik gabeko edo pobrezia erlatibo ez larriko egoera batetik pobrezia larriko batera.

<sup>33</sup> Garrantzitsua da kontuan hartzea pobrezia atalasea birkalkulatu egin dela, sarrera balioaren erdiko balioaren % 60 eta % 40 balioetan finkatuz hori, biztanleria guztiaren kasuan kendurik, betiere, etxebizitza-gastuak. Beraz, pertsona horien gastu ahalmena, etxebizitza ordaindu ondoren, gizarteak oro har –eta etxebizitza-gastu guztiak ordaindu eta gero duen gastu ahalmenaren erdiko balioaren % 60 edo % 40ren azpitik dago. Atalasea egonkor mantendu balitz, etxebizitza-gastuen eragina askoz handiagoa izango zen: pobrezia erlatiboan murgilduko zen pertsona kopurua 71.000koa izango zen,



beharrak, beraz, ia-ia heren batez areagotzen ditu pobrezia erlatiboaren tasak, eta pobrezia larriarenak bikoizten.

**72. taula. Biztanleriaren sarrera txikien tasa etxebizitza-gastuak kendu ondoren Gipuzkoa 2012**

		Pertsonak	
		Tasa (%)	Kop.
Pobrezia erlatiboaren tasa	Guztira	16,8	119.124
	Etxebizitza-gastuak kendu ondoren	21,1	149.146
	Aldea	+4,3	30.022
Pobrezia larriaren tasa	Guztira	4,3	30.589
	Etxebizitza-gastuak kendu ondoren	9,3	66.056
	Aldea	+5,0	35.467

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Etxebizitza guztiak hartuz gero kontuan, hipoteka edo errenta ordaintzeko atzerapenen bat izan dutenen portzentajea txiki samarra da: hipoteka ordaintzeko unean familietatik % 1ek izan du atzerapena, eta etxebizitzetatik % 3,3 atzeratu da errenta ordaintzeko garaian. Guztira 2.600 eta 8.800 etxe dirateke, hurrenez hurren. Gainera, etxeetatik % 1,7k adierazten du atzerapena izan duela ur, gas, berokuntza eta elektrizitate erreziiboak edota komunitateko kuotak ordaintzeko unean.

**73. taula. Hipoteka, errenta edo etxebizitzarekin lotutako erreziiboak ordaintzeko atzerapena izan duten etxeak, etxe erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren hainbat ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2012.**

		Hipoteka	Errenta	Erreziiboak
Sexua	Gizonezkoa	0,8	2,9	1,5
	Emakumezkoa	1,3	4,3	2,2
Adina	44 urte arte	1,8	7,2	2,6
	45-64 urte	1,1	2,3	1,9
	65 urte eta gehiago	0,1	0,8	0,6
Herritartasuna	Espainiarra	1,0	1,5	1,7
	Atzerritarra	0,3	31,2	2,0
Pobrezia erlatiboa	Bai	0,7	11,8	3,7
	Ez	1,0	1,5	1,3
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	0,8	22,2	7,2
	Ongizaterik eza	0,8	2,3	4,1
	Ongizatea	1,0	1,3	0,7
Gizarteratze/bazterketa	Gizarteratua	0,7	0,2	0,5

eta pobrezia larrian murgildutakoa 50.000koa. Kasu horretan, pobrezia erlatiboa 1,6z biderkatuko zen, biztanleriaren % 27ra iritsiz, eta larria 2,6z, % 11,2raino zehazki.

maila	Gizarteratze prekarioa	1,6	3,1	2,8
	Bazterketa konpentsatua	0,7	12,9	5,0
	Bazterketa larria	1,1	20,2	3,2
Guztira		1,0	3,3	1,7

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Errentaren ordainketako atzerapenak egoera sozioekonomikoaren mende daude, erabat, eta ongizate egoeran dagoen biztanleriaren artean gutxienez arazo bada ere, biztanleria pobreaken artean eragin garrantzitsu samarra du. Izan ere, mantentze pobreakiako egoeran dauden etxeetatik % 22,2k adierazten du noizbait atzeratu dela errenta ordaintzeko garaian. Taulan ikusten den moduan, errentaren ordainketan atzerapen garrantzitsuak ikusten dira, halaber, atzerriko herritartasuna duten pertsonak buru diren etxeen artean eta erreferentziako pertsona 44 urtez azpikoa dutenetan.

Aitzitik, hipotekaren kasuan aldeak txikiagoak dira, eta ordainketarako atzerapenak ere oso gutxi etxebizitza pobreaken artean. Azkenean, erreziboen ordainketari dagokionez, ezberdintasun garrantzitsu samarrak ikusten dira multzoen artean, errentaren kasuan ikusten direnak baino txikiagoak hala ere.

#### 4.4.2. Aurrezteko ahalmena eta kredituetara jotzea

2012ko urtean, Gipuzkoako etxebizitza guztietatik % 65,8k halako aurrezki maila bat zuen; beste % 35ak ez zuen inolako erreserba ekonomikorik. Kontsulta egindako pertsonen emandako erantzunekin bat, aurrezki erabilgarriek aukera emango liekete etxe horiei beste sarrerarik ezean egungo gastuari ia-ia urte eta erdiz eusteko, batez beste. Pentsatzekoa den moduan, aurrezteko ahalmena estu lotzen zaie pobreaki (edo sarrera erregular eskasia) eta bazterketa egoerei, adin, sexu eta, batez ere, herritartasunari bezalaxe. Hala, esate baterako, mantentze dimentsioko pobreaki egoerako etxebizitzetatik % 28k dio aurrezkiak badituela; ongizate egoeran daudenen artean, berriz, % 73 dira. Atzerriko herritartasuna duen pertsona bat buru den etxeetan, aurrezkiak badituzten etxeen portzentajeaz gain txikiagoa da, halaber, beste sarrerarik ezean familiek bere egungo gastu mailari eutsi ahal izango lioketen batez besteko hilabete kopurua.

**74. taula. Aurrezki erabilgarriak badituzten etxeen portzentajea, eta beste sarrerarik gabe egungo gastuari eutsi ahal izango lioketen batez besteko hilabete kopurua, etxeen erreferentziako pertsonaren eta etxebizitzaren ezaugarrien arabera. Gipuzkoa 2012.**

		Aurrezki-erabilgarritasuna:	Hilabete kopurua
Sexua	Gizonezkoa	68,0	17,2
	Emakumezkoa	60,4	17,8
Adina	44 urte arte	61,8	11,6
	45-64 urte	62,8	16,1
	65 urte eta gehiago	72,9	23,2
Herritartasuna	Espainiarra	67,7	17,6

	Atzerritarra	35,4	8,4
Pobrezia erlatiboa	Bai	39,0	14,1
	Ez	71,5	17,7
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	28,2	14,4
	Ongizaterik eza	44,0	12,9
	Ongizatea	73,7	17,9
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	75,0	19,7
	Gizarteratze prekarioa	59,1	13,7
	Bazterketa konpentsatua	43,5	10,8
	Bazterketa larria	41,1	12,7
Guztira		65,8	17,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Bestetik, gipuzkoar etxeetatik % 23,9 egungo baliabideez hileko 800 euroko ustekabeko gastu bati aurre egiterik ez izateko moduan dagoke. Atzerriko herritartasuna duen pertsona bat buru duten etxebizitzaren artean, proportzioa % 56koa da, eta mantentze pobrezia egoeran dauden artean, berriz, % 71koa.

Osterantzean, ez dirudi etxeetako aurrezki eta sarrerei dagokienez ikusten diren gabeziak konpontzen ari direnik kreditu pertsonalen edo kreditu-txartelaren aukeraren bidez; ikusten da, ordea, kontu korronteko zorpeko edo zenbaki gorrietarako joera handiagoa dela. Hurrengo taulako lehenbiziko bi zutabeek agerian jartzen dute kreditu pertsonal bat duela dioten etxebizitza portzentajea, eta horren hileko ordainketaren batez besteko zenbatekoa, aurreko tauletan aztertutako aldagaien arabera.

**75. taula. Kreditu pertsonalak dituzten etxeak, eta hileko ordainketen eta etxeko kontu korrante nagusiko zorpekoen batez besteko zenbatekoa, etxeko erreferentziazko pertsonaren eta etxebizitzaren hainbat ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Kreditu pertsonalak	Kreditu pertsonalaren batez besteko hileko ordainketa	Kontu korronteko zorpekoa
Sexua	Gizonezkoa	12,4	421,5	11,1
	Emakumezkoa	12,4	224,4	11,6
Adina	44 urte arte	17,0	353,7	16,3
	45-64 urte	15,0	375,9	13,5
	65 urte eta gehiago	5,3	349,3	4,0
Herritartasuna	Espainiarra	12,8	371,6	8,9
	Atzerritarra	7,5	139,3	48,9
Pobrezia erlatiboa	Bai	9,0	195,4	22,7
	Ez	13,2	387,7	8,8

Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	11,5	163,8	33,4
	Ongizaterik eza	12,1	254,5	16,8
	Ongizatea	12,6	401,7	7,9
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	10,0	371,2	4,2
	Gizarteratze prekarioa	17,3	312,7	15,0
	Bazterketa konpentsatua	15,9	648,1	23,4
	Bazterketa larria	7,0	220,9	41,1
Guztira		12,4	363,1	11,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Inkestako datuen arabera, etxeetatik % 12,4k une honetan kreditu pertsonalak ditu ordaintzeko, eta horiei dagokien hileko batez besteko kuota 363,1 eurokoa da. Taulako datuek agerian jartzen dute, edonola ere, alde handirik ez dagoela, kreditu pertsonaletara jotzeari dagokionez, pobrezia egoeren arabera; etxebizitza pobreek edo gizarte bazterketako egoeran daudenek, dena den, pobre ez direnek baino gutxiago jotzen dute kreditura. 44 urtez azpiko pertsonak edo espainiar herritartasuna dutenak buru diren etxebizitzek ere neurri handiago batean jotzen dute kreditu pertsonaletara, erreferentziazko pertsona zaharragoa edo atzerriko herritartasuna duena den etxebizitzek baino. Edonola ere, alderik nabarmenenak hileko batez besteko ordaintetari lotuak dira (hau, normalean, eskatutako zenbatekoaren arabera izaten da), ezen pobre ez diren etxebizitzek kasuan askoz ere handiagoa da.

Aurreko taulako azken zutabeak erakusten du, halaber, Gipuzkoako etxebizitzetatik % 11,3k urteko uneren batean zenbaki gorriak edo zorpekoren bat izan duela kontu korrontean. Kasu honetan, kreditu pertsonalekin gertatzen denaz bestela, pobrezia –etxeke erreferentziazko pertsonaren adinarekin eta herritartasunarekin batera- eragin garrantzitsua du zenbaki gorriak izateko aukerari dagokionez: atzerriko herritartasuna duen pertsona bat buru duten etxeetatik erdiak eta mantentze dimentsioko pobrezian dauden familietatik heren batek diote azken urtean zehar zorpekoren bat izan dutela kontuan. Mantentze pobrezia ikuspegitik ongizate egoeran dauden etxebizitzek kasuan portzentajea % 8koa da.

**76. taula. Aurrezkietara edo aparteko kredituetara eta kreditu-txartelera jo duten etxeetan dagoen pertsona portzentajea, pobrezia mailaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Norberaren aurrezkietara jo beharra	Aparteko kredituetara edo kreditu-txartelera jotzea
Pobrezia erlatiboa	Bai	22,9	6,8
	Ez	13,3	4,8
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	31,5	8,9
	Ongizaterik eza	20,4	5,5
	Ongizatea	12,2	4,7
Guztira		15,0	5,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Orain arte adierazitakoaren ildotik, ikusten da halaber azken urtean zehar etxe pobreek maizago jo behar izan dutela, ez pobreek baino, bere aurrezkiatara. Kreditu-txarteletara edo aparteko kredituetara jotzeko joera handiagoa ere ikusten da etxe horietan, nahiz horietara jo dutenen portzentajea, baita familia pobreen artean ere, oso txikia den.

#### 4.5. Krisialdiak bizi baldintzetan eta pobrezia pertzepzioan duen eragina

##### 4.5.1. Krisiaren eragina

Pertzepzio subjektiboen ikuspegitik, zer eragin izan du krisialdi ekonomikoak Gipuzkoako etxeetan?

Hurrengo taulan ikusten den moduan, eragin negatiboa garrantzitsua izan da, eta etxe pobreetan eragin du bereziki. Dena den, galdesortaren egitura dela eta ezin da jakin eragin edo inpaktu horrek pobrezian erortzea ekarri ote duen berekin edo, aitzitik, krisialdiak dagoeneko pobrezian zeudenei eragin dien. Egia, dena den, zera da, gaur egun pobreak diren etxeek maizago adierazten dutela bere egoerak okerrera egin duela krisialdiaren ondorioz.

Izan ere, etxeei galdetuz gero nolako bilakaera izan duen beren bizi-maila duela hiru urte zutenarekiko, % 16k dio asko egin duela okerrera, eta % 43k pixka bat okerrera egin duela. % 34k dio berdin mantendu dela, eta % 5ek hobetu egin dela. Hondatze egoera orokorra bada ere, pobrezia egoeran eta bazterketa egoeran dauden etxeak dira bizi-mailan atzerapena izan dutela maizen diotenak. 65 urte eta gehiagokoak buru dituzten etxeak, ez pobreak eta inklusio edo erabateko gizarteratze egoeran daudenak dira bere bizi-maila egonkor mantendu dela maizen diotenak.

**77. taula. Etxeak duela 3 urtekoarekiko sumatzen duten bizi-mailaren aldaketen arabera, etxeok erreferentziatzeko pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarri kontuan hartuta. Gipuzkoa 2012**

		Asko egin du okerrera	Pixka bat egin du okerrera	Berdin mantendu da	Hobetu egin da*
Sexua	Gizonezkoa	17,0	43,4	34,6	5,1
	Emakumezkoa	16,6	42,1	35,2	6,1
Adina	44 urte arte	21,2	37,2	33,0	8,5
	45-64 urte	19,1	46,4	30,7	3,8
	65 urte eta gehiago	10,2	44,5	41,1	4,3
Herritartasuna	Espainiarra	15,6	43,1	36,3	5,0
	Atzerritarra	36,6	41,6	10,7	11,1
Pobrezia erlatiboa	Bai	31,6	44,3	22,9	1,2
	Ez	13,7	42,8	37,3	6,3
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	44,2	35,2	20,6	0,0
	Ongizaterik eza	26,3	47,4	22,6	3,8
	Ongizatea	12,1	43,2	38,5	6,2
Gizarteratze/bazterketa eta maila	Gizarteratua	10,2	42,2	41,7	5,9
	Gizarteratze prekarioa	21,9	47,0	26,6	4,5
	Bazterketa konpentsatua	31,9	33,0	24,7	10,4

	Bazterketa larria	34,3	41,5	24,3	0,0
Guztira		16,8	43,0	34,8	5,4

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.\* Galdesortak aukera ematen zuen bere bizi-maila pixka bat hobetu dela uste dutenak eta asko hobetu dela uste dutenak bereizteko. Askok hobetu dela uste dutenen kopuru txikia ikusirik, batu egin dira multzo biak.

Emaitzak desberdinxeak dira, bizi-mailak duela hiru urtekoarekiko izan duen bilakaerari buruz galdetu beharrean krisiak etxearen egoera ekonomikoari nola eragin dion galdetuz gero, eta erantzunak bi kategoriatan biltzen dira: erabat edo nahikoa, eta gutxi edo batere ez. Kasu honetan, balorazioa ez da hain negatiboa, eta etxeetatik % 55ek dio krisiak gutxi edo batere ez diola eragin. Kasu honetan ere, pobrezia eta bazterketa egoerak jasaten dituzten etxeek eraman dute parte txarrena. Mantentze pobrezia ikuspegitik pobre diren etxeetatik % 78,8k adierazi du krisiak erabat edo nabarmen eragin diola bere egoera ekonomikoari; ongizate egoeran dauden etxeen artean, aldiz, portzentaje hori % 38,4koa da.

**78. taula. Biztanleriaren banaketa krisiak etxearen egoera ekonomikoan izandako eraginaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Erabat edo nahikoa	Gutxi edo batere ez
Sexua	Gizonezkoa	42,9	57,1
	Emakumezkoa	48,2	51,8
Adina	44 urte arte	47,4	52,6
	45-64 urte	48,1	51,9
	65 urte eta gehiago	37,6	62,4
Herritartasuna	Espainiarra	43,3	56,7
	Atzerritarra	61,9	38,1
Pobrezia erlatiboa	Bai	67,9	32,1
	Ez	39,5	60,5
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	78,8	21,2
	Ongizaterik eza	57,1	42,9
	Ongizatea	38,4	61,6
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	34,8	65,2
	Gizarteratze prekarioa	52,0	48,0
	Bazterketa konpentsatua	60,7	39,3
	Bazterketa larria	73,8	26,2
Guztira		44,5	55,5

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Ikusi dugun moduan etxeetako batzuek –bereziki pobreenek- aipatzen duten bizi baldintzen hondatze horren pertzepzioa eguneroko bizimoduarekin lotutako adierazle askoren hondatze erreal baten ondorio zuzena da. Hurrengo taulak azken urtean hainbat arazo izan dituzten etxebizitzaren portzentajea jasotzen du, mantentze dimentsioko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren arabera.

**79. taula. Arrazoi ekonomikoengatik arazoak izan dituzten etxeen portzentajea, pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren eta eragindako pertsona kopuruaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Arazoak izan dituzten etxeak (%)				Eragindako pertsona kop.
	Pobrezia	Ongizaterik eza	Ongizatea	Guztira	
Aisialdiko eta denbora libreko gastuak murriztea	82,4	51,3	28,7	36,4	267.737
Etxeko energia-gastuak murriztu behar izatea	66,4	37,0	16,7	23,8	169.718
Jantzi eta oinetako gastu oinarrizkoak murriztea	59,9	36,3	12,9	20,1	137.600
Laguntza ekonomikoa eskatzea gizarte erakunde publiko edo pribatuei	53,9	13,5	2,7	8,6	55.499
Oinarrizko elikadura-gastuak murriztea	45,6	14,7	3,3	8,5	56.855
Ohiko gizarte harremanak galtzea	38,2	20,5	7,6	12,0	84.856
Lagun, bizilagun edo familiakoei laguntza ekonomikoa eskatu beharra	33,8	12,0	3,1	7,0	43.663
Janari-dieta egokirik ez izatea	18,1	4,8	1,7	3,6	23.320
Argia, ura, gasa edo telefonoa mozteko abisuak	17,8	8,6	1,8	4,1	29.343
Botikaren bat erosteari utzi edo medikuak agindutako tratamendu bat eten beharra	7,5	2,8	0,7	1,6	9.085
Jabetzak saltzea edo etxebizitzaz aldatzea gastuak estaltzeko	4,3	3,2	0,6	1,2	10.360
Etxebizitzatik kanporatua izateko mehatxu motaren bat jasatea, berehalakoa izan ala ez	4,3	0,0	0,0	0,4	2.390
Ondasunen bahitura	3,0	0,7	0,2	0,5	4.458

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Taulan ikusten den moduan, aisialdiko gastuen murrizketa da arazorik komunen edo ohikoena, eta etxeetatik heren bati pasatxo (% 36,4) eragiten dio. Hurrenak energia-gastuen eta etxebizitza edo oinetako gastu oinarrizkoen murrizketa datoz. Ongizate egoeran dauden etxebizitzaren artean –ez dezagun aiantzi horixe dela, nabarmen gainera, multzo nagusia, guzti-guztietatik % 77,8 jartzen baitu- gabezia horiek % 13 eta % 28 bitarteri eragiten diote; aldiz, etxebizitza pobreen artean portzentajeak % 60 eta % 82 bitartekoak dira. Ildo honetatik, etxe pobreetatik % 45,6k adierazten du oinarrizko janari-gastuak murriztu behar izan dituela; portzentajea % 3,3koa da ongizate egoeran dauden etxeen artean.

Portzentaje gisa ikusirik arazo hauetako batzuen eragina txikia dela pentsa badaiteke ere, kopuru absolutuetan egoera horiek eragiten dien etxeetan bizi den pertsona kopurua ez da inolaz ere txikia: 56.800 pertsona baino gehiago dira bere oinarrizko janari-gastuak murriztu beharrean egondakoak, 29.000 baino gehiago hartu dituzte ura, argia edo telefonoa moztuko dieten abisuak, eta 9.000tik gora dira botikaren bat erosteari utzi edo medikuak jarritako tratamenduren bat medikamentuen kostuagatik eten beharra izandakoak.

#### 4.5.2. Pobreziaren pertzepzioa eta epe luzeko eboluzioa

Hurrengo taulak etxeen banaketa jasotzen du, inkestatutako pertsonen ikuspegi sozioekonomikotik bere etxearen egoerari buruz egiten duten balorazioaren arabera. Ikuspegi horretatik, Gipuzkoako etxeak bi multzo nagusitan banatu daitezke: batean moldatzen diren baina batez bestekoaren azpitik daudenak, etxeetatik % 46 baitira, eta bestean egoera eroso aipatzen dutenak, batez bestekoaren gainetikoa alegia, % 41 baitira hauek. Muturretan, berriz, bere etxea oso pobre, pobre edo pobre samarren artean kokatzen dutenak daude (guztiaren % 7,8), eta aberats edo oso aberatsen artean kokatzen dutenak (hauek ez dira % 5era iristen).

Txosten honetan erabiltzen ari diren pobreziari buruzko sailkapen objektiboak ez datoz ezinbestean bat etxeek bere egoerari buruz duten pertzepzioarekin, batzuk beste batzuk baino gehiago hurbiltzen badira ere. Izan ere, etxe pobreetatik % 26k bakarrik ikusten du bere burua pobretzat; % 64k, aldiz, moldatzen dela usten du, batez bestekoaren azpitik egon arren. Gauza bera adierazten du pobrezia larriko egoeran dauden etxeetatik % 53k, gabezia material larriko egoeran daudenetatik % 48k, mantentze dimentsioko pobrezian dauden etxeetatik % 59k, eta pobrezia arrisku eta bazterketa egoeran daudekeenetatik (AROPE tasa) % 65ek.

**80. taula. Hainbat pobrezia, gabezia eta bazterketa egoerak eragindako etxeak, bere egoeraz duten pertzepzioaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Oso pobrea, pobrea edo pobre-antzekoa	Ahal moduan, batez bestekotik behera	Batez bestekotik gora, eroso	Oso aberatsa, aberatsa edo aski diruduna	Guztira
Pobrezia erlatiboa	26,6	64,9	8,5	0,1	100,0
Pobrezia larria	39,1	53,3	7,6	0,0	100,0
Gabezia material larria	52,0	48,0	0,0	0,0	100,0
AROPE tasa	25,5	65,0	9,4	0,1	100,0
PGDI pobrezia	37,5	59,0	3,5	0,0	100,0
Guztira	7,8	46,1	41,3	4,9	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gipuzkoako etxeek, bestetik, egungo egoera sorburu duten familiarena baino hobexegoa dela adieraztera jotzen dute. Hala, % 7,8k bakarrik uste du pobre edo pobre samarra dela, eta sorburuko familia pobrea zutela diotenen portzentajea % 15koa da ia-ia. Ildo beretik, % 47 baino gehiagok bere burua oparotasun, are gehiago, aberastasuneko egoera batean ikusten duelarik, bakar-bakarrik % 40k uste du bere sorburuko familia ere egoera horretan zegoela.

**81. taula. Etxeen banaketa bere egoeraz eta bere sorburuko familiarenaz duten pertzepzioaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Oso pobrea, pobrea edo pobre-antzekoa	Ahal moduan, batez bestekotik behera	Batez bestekotik gora, eroso	Oso aberatsa, aberatsa edo aski diruduna	Guztira
Gaur egun	7,8	46,1	41,3	4,9	100,0
Sorburuko familia	14,4	45,2	36,7	3,6	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.



Etxeek gaur egun bizi duten egoeraren pertzepzioa jatorriko etxeari atxikitzen diotenarekin gurutzatuz gero, ikuste da gehienak (etxeetatik % 60) egoera berean mantentzen direla, eta ez dutela, beraz, gizarte mugikortasun ez beheranzkorik ez goranzkorik sumatzen. Etxeetatik laurden batek uste du bere jatorriko familia zuen egoera baino hobea duela orain (goranzko mugikortasuna), aldiz, % 14,6k bere jatorriko familiarena baino egoera okerragoan dagoela uste du, eta hau beheranzko mugikortasuntzat har liteke, betiere pertzepzio subjektiboetatik abiatuta, ez datu objektiboetatik. Gizarte mailan behera egin dutela dioten etxeen artean, gehienak (% 60) egoera erosoan zegoen familia batetik batez bestekoaren azpitik moldatzen den beste familia batera igaro dira. Ildo beretik, bere egoerak jatorriko familiaren egoerarekiko hoherentz egin duela uste dutenak alderantzizko bidea egin duten etxeak dira nagusiki (multzo horretako % 45), hau da, batez bestekoaren azpitik moldatzen zen familia batetik egoera eroso batean, batez bestekotik gora, bizi den familia batera igaro dira.

**82. taula. Etxeen banaketa mantentze dimentsioko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren eta jatorriko familiaren egoerari buruz duten pertzepzioaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Oso pobrea, pobrea edo pobre-antzekoa	Ahal moduan, batez bestekotik behera	Batez bestekotik gora, eroso	Oso aberatsa, aberatsa edo aski diruduna	Guztira
Pobrea	29,7	42,0	27,6	0,7	100,0
Ongizaterik eza	18,6	53,6	27,3	0,5	100,0
Ongizatea	12,0	44,1	39,4	4,5	100,0
Guztira	14,4	45,2	36,7	3,6	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Logikoaenez, gaur egun pobrezia egoeretan bizi direnak dira bere jatorriko familia pobretzat hartuz gehien jotzen dutenak. Aitzitik, gaur egun ongizate egoeran daudenak bitan banatzen dira nagusiki, batetik bere jatorriko familia batez bestekoaren azpitik moldatzen zela diotenak baitaude (% 44), eta, bestetik, egoera eroso batean, batez bestekoaren gainetik, zegoela uste dutenak (% 39).

#### 4.6. Etxebizitzarako aukera eta honen bizigarritasun baldintzak

##### 4.6.1. Bizigarritasun baldintzak: neurria, antzintasuna, tipologia eta ekipamenduak

Familia pobreen etxebizitzak txikiagoak dira pobreak ez direnenak baino. Inkestaren emaitzekin bat, pobrezia egoeran dauden pertsonen etxebizitzaren batez besteko neurria 73,7 metro koadrokoa da; aldiz, ongizate egoeran dauden pertsonen kasuan ia-ia 94 metrokoa da. Biztanleriarentzat oro har, batez besteko neurria 90 metro koadrokoa da ia-ia.

**83. taula. Etxebizitzaren azalera guztira, pobrezia/ongizate eskalako egoeraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Azalera guztira
Pobrea	73,7
Ongizaterik eza	76,8

Ez pobrea	93,9
Guztira	89,8

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gainera, pertsona pobreen etxebizitzak zaharragoak dira, batez beste. Zehatzago esanda, familia pobreak neurri handiago batean bizi dira 1979 baino lehen eraikitako etxebizitzetan, nahiz etxebizitza berrietan ere proportzio handiagoan bizi diren; azken kasu honetan, baina, aldeak txikiagoak dira.

**84. taula. Etxeen banaketa mantentze dimentsioko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren eta bizi diren etxebizitzaren eraikuntza-urtearen arabera. Gipuzkoa 2012**

	1979 baino lehen	1979 eta 2005 bitartean	2005etik aurrera
Pobrea	69,6	22,4	8,0
Ongizaterik eza	67,8	26,8	5,4
Ongizatea	56,2	38,1	5,7

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Aldeak ikusten dira, halaber, etxeek pobrezia/ongizate eskalan duten tokiaren arabera, etxebizitza tipologiari dagokionez. Hala, etxe pobreek neurri handiagoan jotzen dute, ongizate egoeran daudenak baino, neurri handiko etxebizitza-blokeetan bizitzera (hamar etxebizitza baino gehiago), eta neurri txikiagoan, berriz, familia bakarreko etxebizitzetan –baserriak barne- bizitzera<sup>34</sup>.

**85. taula. Etxeen banaketa bizi diren etxebizitza motaren eta mantentze dimentsioko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrea	Ongizaterik eza	Ongizatea	Guztira
Etxebizitza familiabakarra (txaleta, landetxea, baserria, atxikia)	3,8	6,2	11,2	10,1
Apartamentua 10 etxebizitza baino gutxiagoko eraikinean	20,7	30,5	27,5	27,3
Apartamentua 10 edo etxebizitza gehiagoko eraikinean	75,5	63,3	61,1	62,5

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Bestetik, gipuzkoar etxeetatik ia-ia % 10ek bi arazo edo gehiago ditu bere etxebizitzaren egoerari dagokionez; akatsik ohikoenak kutsadura akustikoa eta arkitekturako hesiak dira. Zaratari dagokionean izan ezik, pobrezia egoeran dauden etxeek arazo eta akats gehiago dituzte bere etxebizitzetan, ongizate egoeran daudenek baino.

**86. taula. Etxebizitzako zenbait akatsek etxeetan duten eragina, hauek mantentze**

<sup>34</sup> Datu hau, edonola ere, gune urbanizatuenetan ematen diren pobrezia tasa handiagoekin dago lotuta; horietan etxebizitza familiabakarren edo neurri txikiagoko enportzentajea txikiagoa da.

**dimentsioko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Pobrea	Ongizaterik eza	Ongizatea	Guztira
Eraikuntzan akats larriak edo erortzeko zorian	5,1	4,7	2,4	3,0
Itoginak, hezetasuna pareta, zoru, sabai edo zimenduetan, edo zoru, leiho- eta ate-marko ustelduak.	20,5	7,3	8,2	9,2
Argi natural gutxi	7,8	6,8	5,2	5,6
Bizilagunek egindako zaratak edo kanpotik datozenak (trafikoa, negozioak, inguruko fabrikak, etab.)	12,2	13,6	17,1	16,2
Arkitekturako hesiak eta etxebizitzan minusbaliotasun fisikoa duten pertsonak izatea	12,3	13,6	8,1	9,2
2 arazo baino gutxiago	83,6	91,9	91,0	90,5
Bi arazo edo gehiago	16,4	8,1	9,0	9,5

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

**4.6.2. Etxebizitzarako aukera**

Etxebizitzarako aukerak aldatu egiten dira, aztertutako beste elementuak bezalaxe, familiek pobrezia eta ongizatearen eskalan duten kokapenaren arabera. Izan ere, analisia bakar-bakarrrik mantentze pobrezia dimentsioan bilduz gero, etxe pobreetatik % 42 merkatu librean erositako bere jabetzako etxebizitza batean bizi da; ongizate egoeran dauden etxeen artean proportzioa % 76koa da.

**87. taula. Etxeen banaketa etxebizitza eskuratzeko formulen eta mantentze dimentsioko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Jabetzako*, merkatu librea	Jabetzako*, BOE	Lagatako a, dohaintza akoa edo jarauntsi a	Errenta librea	Errenta soziala
Pobrezia erlatiboa	Bai	59,3	10,6	1,6	24,8	3,7
	Ez	74,5	13,8	2,0	8,6	1,1
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	42,6	13,4	1,9	34,8	7,4
	Ongizaterik eza	60,2	15,3	4,9	18,0	1,6
	Ongizatea	76,9	13,0	1,4	7,7	0,9
Gizarteratze/bazterket a maila	Gizarteratua	80,1	12,2	2,0	4,9	0,8
	Gizarteratze prekariora	66,8	15,3	1,6	15,3	1,0
	Bazterketa konpentsatua	64,1	9,5	3,4	17,4	5,6
	Bazterketa larria	29,5	19,5	1,9	42,0	7,1
Guztira		71,7	13,3	1,9	11,5	1,6

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. \* Jabetzako etxebizitza erabat ordainduta edo

Alabaina, alde handirik ez dago babes ofizialeko etxebizitza propioetan bizi den familia portzentajea: etxe pobreen artean BOEko esleipendunen portzentajea % 13,4koa da, eta gaur egun ongizate egoeran dauden artean portzentaje hori % 13,0koa da. Datu hau laginketak berak eragina izan daiteke; izan ere, laginean baliteke familia bat baino gehiagori elkarrizketa egindako babes ofizialeko eraikin kopuru handiegia, edo txikiegia sartu izana. Alabaina, etxebizitza nagusien parte osoarekiko detektatu den BOE portzentajea eta iturri ofizialek ematen dutena antzeko samarra denez (inkestak % 13koa ematen du, eta Etxebizitza Sailaren datuen arabera % 8koa da EAE osorako), pentsatzekoa da horren atzean babes ofizialeko etxeak esleitzeko irizpideak daudela, oso-oso gutxi lotzen baitzaizkio une honetan jabeek duten egoera ekonomikoari. Aitzitik, pobrezia egoeran dauden etxeek pobre ez direnek baino gehiago jotzen dute errenta libreria eta, batez ere, errenta sozialera.

#### 4.7. Gizarte harremanak eta gizarte partaidetza

##### 4.7.1. Gizarte harremanak

Gipuzkoako etxe gehienek diote harreman onak dituztela bere inguruko pertsonekin. Dena den, pentsatzekoa da ezen, pobrezia egoeran dauden kasuan, harreman hauek txarxeagoak direla. Hurrengo taulan, etxeok besteekin, beste senide batzuekin, lagunekin edo bizilagunekin harreman onak edo on samarrak dituztela dioen etxe portzentajea jasotzen dugu. Ohar bat egin behar da pertsona horiekin harreman onik dutenik aipatzen ez dutenak bi multzotan bereizten direla: harreman txarrak edo txar samarrak dituztenak, eta pertsona horiekin harremanik ez dutenak (hau da, bakarrik bizi dira, ez dute seniderik, bizilagunik edo adiskiderik).

Hurrengo taulan ikusten da emakume bat edo 64 urtetik gorako pertsona bat buru duten etxeetan, etxe pobre eta ongizaterik gabeko egoeran daudenetan eta bazterketa egoeraren batean daudenetan besteetan baino gutxiagotan dituztela harreman onak etxeokoen artean, bai harreman horiek onak ez direlako, bai bakarrik bizi direlako. Senideekiko harremanei dagokienez, bakar-bakarrik gizarte bazterketa larriko egoeran dauden etxeak bereizten dira neurri batean besteetatik (ezin bestela izan gainera, harreman pertsonal txarrak direlako adierazle hori ezartzeko unean kontuan hartzen den elementuetako bat). Gauza bera esan daiteke adiskideekiko harremanei dagokienez, nahiz kasu honetan aldea txikia betiere- etxe pobreetara ere iristen den. Bizilagunekiko harremanak ez dira gogobetegarriak izaten, neurri handiago batean, eta badirudi hemen ere halako harreman bat dagoela pobrezia eta gizarte harremanen artean, zeren eta etxe pobreetatik % 90ek soilik baitio harreman onak dituela bizilagunekin, portzentajea % 97koa denean ongizate egoeran dauden kasuan.

**88. taula. Bere inguruko pertsonekin harreman onak edo oso onak dituzten etxeak, etxeok erreferentziatzko pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Etxekoak	Beste senide batzuk	Adiskideak	Bizilagunak
Sexua	Gizonezkoa	88,4	99,2	98,8	96,0
	Emakumezkoa	58,3	97,3	98,2	94,7
Adina	44 urte arte	82,4	99,0	99,3	93,2
	45-64 urte	85,9	99,0	98,9	96,1
	65 urte eta gehiago	69,5	97,9	97,8	97,3

Herritartasuna	Espainiarra	78,9	98,6	98,6	95,6
	Atzeritarra	88,9	100,0	98,9	95,4
Pobrezia erlatiboa	Bai	72,4	97,9	95,5	91,8
	Ez	81,0	98,8	99,3	96,5
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	73,2	98,0	94,1	90,6
	Ongizaterik eza	64,9	97,9	97,5	92,2
	Ongizatea	82,7	98,9	99,3	96,8
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	80,2	99,0	99,5	97,0
	Gizarteratze prekarioa	82,4	98,7	98,4	94,9
	Bazterketa konpentsatua	65,4	99,2	96,9	93,2
	Bazterketa larria	73,7	94,3	94,2	90,0
Guztira		79,5	98,6	98,6	95,6

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Iritzi bera ageri da etxeei kontu zehatzago bat galdetzen zaienean: Ba al duzu arazoak gertatzean lagunduko dizun pertsonarik<sup>35</sup>? Etxeetatik % 8tan ezezkoa da galdera honen erantzuna eta, adinaren, sexuaren edo etxeko erreferentziatzko pertsonaren ikuspegitik honen inguruan alderik ikusten ez bada ere, badira aldeak pobrezia eta gizarte bazterketaren ikuspegitik.

**89. taula. Laguntza eska diezaioketen inor ez duten etxeen proportzioa, etxeko erreferentziatzko pertsonaren eta etxeen hainbat ezaugarriren arabera. Gipuzkoa 2012**

		%
Sexua	Gizonezkoa	7,9
	Emakumezkoa	8,3
Adina	44 urte arte	8,3
	45-64 urte	7,7
	65 urte eta gehiago	8,1
Herritartasuna	Espainiarra	7,9
	Atzeritarra	9,2
Pobrezia erlatiboa	Bai	14,6
	Ez	6,6
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	15,6
	Ongizaterik eza	10,4
	Ongizatea	6,8
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	5,1

<sup>35</sup> Laguntza esatean zera esan nahi da, dirua mailegatzea, pertsona inkestatua edo beronen ardurapean dagoen mendeko pertsonaren bat zaintzea, sostengu emozionala edo gestioak egitekoa ematea...

	Gizarteratze prekarioa	7,7
	Bazterketa konpentsatua	22,4
	Bazterketa larria	19,7
Guztira		8,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Txosten honetan erabiltzen den bazterketaren adierazle sintetikoak, lantzeko unean, kontuan hartzen du familiek, azken hamar urtean, hainbat egoera jasan izanaren aukera, esate baterako alkoholarekin edo legez kanpoko drogekin edo jokoarekin lotuak, aurrekari penalak, tratu txar fisiko edo psikologikoak edo nerabezaroko haurdunaldiak. Eta galdesorta honen helburua ez da hainbeste egoera horiek modu independentean identifikatzea edo kuantifikatzea, baizik eta egoera horietako bat behintzat jasan duten etxeak identifikatzea, bazterketa prozesuetarako bide edo prozesu horien parte direla iritz dakiekeen neurrian<sup>36</sup>. Horregatik, logikaren bidetik, eta adierazle horren berorren eraikuntza dela eta, bazterketa egoeran dauden etxeen artean egoera horietakoren baten prebalentzia askoz altuagoa da oro har etxeetan ematen dena baino. Baina altuagoa da, halaber, pobrezia egoeran dauden etxeen artean, eta horrek agerian lagatzen du zer neurritan dauden loturik pobrezia eta bazterketa, baliabide ekonomikorik ez izate hutsetik haratago edota pobrezia zer neurritan lotzen zaien bazterketa prozesuetarantz doazen, edo bazterketa prozesuak sendotzen dituzten, egoerei.

**90. taula. Droga kontsumoarekin, tratu txarrekin edo Justiziarekin lotutako arazoren bat behintzat izan duen biztanleriaren portzentajea. Gipuzkoa 2012**

		Planteatutako zazpi arazoetako bat behintzat
Pobrezia erlatiboa	Bai	4,7
	Ez	2,7
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	5,7
	Ongizaterik eza	4,8
	Ongizatea	2,5
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	-
	Gizarteratze prekarioa	-
	Bazterketa konpentsatua	15,4
	Bazterketa larria	30,5
Guztira		3,1

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

#### 4.7.2. Gizarte eta politika arloko partaidetza

<sup>36</sup> Aipatutako zazpi arazo horietatik, halako prebalentzia bat duen bakarra (biztanleria osoaren % 1,4) legez kanpoko drogekin lotutako arazoak izanari lotua da.

Gizarte eta politika arloko partaidetza funtsezko osagaia da bazterketa eta inklusio prozesuetan eta, halakotzat hartzen da kontuan inkesta honen esparruan, bazterketa adierazleak eraikitzeke unean. Aurreko puntuak aztertutako jarrera arazotsuen kasuan gertatzen zen moduan, bazterketa egoeran dauden etxeek partaidetza politiko eta sozialeko tasa txikiagoak dituzte, besteak beste partaidetza txiki horrexek jartzen dituelako bazterketa egoeran. Alabaina, jarrera arazotsuen kasuan gertatzen zen moduan, pobrezia partaidetza politiko eta sozial txikiago batekin ere lotzen da.

Hala, esate baterako, hauteskundeetako partaidetzari dagokionez, etxeetatik % 11k adierazten duelarik inoiz ez duela parte hartzen hauteskundeetan, % 8,7k batzuetan, eta % 80k beti edo ia beti, mantentze dimentsioko pobrezian dauden etxeen kasuan % 31koa da hauteskundeetan inoiz parte hartzen ez dutenen portzentajea. Era berean, pobre ez diren etxeetatik % 83k beti edo ia-ia beti parte hartzen duelarik hauteskundeetan, etxe pobreetatik % 66k bakarrik hartzen du.

**91. taula. Etxeen banaketa pobrezia eta bazterketa egoera zenbaiten eta hauteskundeetan duten partaidetzaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Inoiz ez	Batzuetan	Beti edo ia-ia beti
Pobrezia erlatiboa	Bai	21,6	11,7	66,7
	Ez	8,8	8,0	83,2
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	31,3	11,5	57,2
	Ongizaterik eza	14,3	11,7	73,9
	Ongizatea	8,2	7,8	83,9
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	2,3	7,3	90,3
	Gizarteratze prekariora	18,4	10,4	71,2
	Bazterketa konpentsatua	23,1	13,1	63,8
	Bazterketa larria	38,1	7,8	54,1
Guztira		11,1	8,7	80,3

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Bestetik, ezin da esan pobrezia edo bazterketak eragiten dutenik etxe erreferentziako pertsonak duen jarrera politikoan. Pertsona hauei bere jarrera politikoari buruz galdetu zaielarik zero eta hamar bitarteko eskala baten bidez –horretan zeroa ezker muturra da eta hamarra eskuin muturra-, eta kontuan hartuz horietatik guztietatik % 70ek soilik erantzun diotela galdera honi, atera den batez besteko puntuazioa 4,3koa izan da; hau da, pertsona hauek oro har zentro-ezkerreko jarrera batean daudeke.

**92. taula. Inkesta egindako pertsonen jarrera politiko pobrezia/ongizate eskalan duten kokapenaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Batez besteko puntuazioa	Ezkerra	Zentroa	Esquina
Pobrezia erlatiboa	Bai	4,6	41,1	33,9	25,0
	Ez	4,2	49,8	30,4	19,8
Mantentze	Pobrea	4,5	46,4	31,2	22,4

dimentsioko pobrezia	Ongizaterik eza	4,4	41,4	35,7	22,9
	Ongizatea	4,2	49,8	30,2	20,1
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	4,3	48,8	28,1	23,1
	Gizarteratze prekarioa	4,2	48,5	36,3	15,2
	Bazterketa konpentsatua	4,1	44,3	39,7	16,0
	Bazterketa larria	4,3	47,6	27,9	24,5
Guztira		4,3	48,4	31,0	20,6

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Eta inpresio bera ateratzen da multzo bakoitzeko pertsonen artean ezkerrekoak (otik 4ra), zentrokoak (5) eta eskuinekoak (6tik 10era) bereiziz gero. Pertsona ez pobreen artean ia-ia erdiak ezkerrekotzat definitzen du bere burua, eta % 20k eskuinekotzat; pobreen artean, aldiz, portzentajeak % 41ekoa eta % 25ekoa dira hurrenez hurren.

**93. taula. Etxeen banaketa hainbat pobrezia eta bazterketa egoeraren eta horietako erreferentziako pertsonak elkarte eta erakundeetan duen partaidetzaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Batean berean ere ez	Batean behintzat
Pobrezia erlatiboa	Bai	75,0	25,0
	Ez	60,5	39,5
Mantentze dimentsioko pobrezia	Pobrea	81,0	19,0
	Ongizaterik eza	70,9	29,1
	Ongizatea	59,7	40,3
Gizarteratze/bazterketa maila	Gizarteratua	60,3	39,7
	Gizarteratze prekarioa	64,4	35,6
	Bazterketa konpentsatua	70,2	29,8
	Bazterketa larria	73,1	26,9
Guztira		63,1	36,9

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gizarte partaidetzari dagokionez, inkestako datuek erakusten dute etxeetan buru diren pertsonetatik % 36k elkarte edo erakunde motaren batean behintzat parte hartzen duela, horien artean sarturik erlijiosoak, kirol arlokoak, sindikalak, politikoak, auzoari lotuak, artistikoak, hezkuntzakoak, gazteenak, aisiakoak edo profesionalak. Aztertutako beste adierazleekin gertatzen den moduan, elkarteetako partaidetza nabarmen txikiagoa da bazterketa egoeran dauden pertsona pobreen artean, egoera eroso edo gizarteratze egoeran daudenen artean baino.



## **5. GIPUZKOAKO POBREZIAREN KONTRA BORROKATZEKO POLITIKAK. HORIEN GAINEKO EZAGUERA, ETA HORIEN ERABILERA, ESKAERA ETA ERAGINKORTASUNA**

Kapitulu honetan, gaur egun gure lurraldean gizarteratze politiken erdigunea diren zerbitzu eta prestazioekin lotutako hainbat kontu aztertzen dira. Aztertzen diren datuak, gehien-gehienak, *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012* laneko galdesortako modulu tematikoetako batean pobreziaren kontra borrokatze politikari buruz sartutako galderetatik atera dira. Datu horien osagarri, gizarte babeseko sistemaren eraginkortasunari buruzko azterketa orokor bat, eta beste espezifikokoago bat sarrerak bermatzeko sistemak gure lurraldean duen eraginari buruz.

Kapitulua hiru atal handitan egituratzen da. Horietako lehenean aztertu egiten da gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuek eta Lanbideak betetzen dituzten eginkizunei dagokienez gipuzkoar biztanleriak duen ezaguera maila, zerbitzu horien ikusgarritasun sozialaren mailarekin batera. Bigarren apartatuan, gainera, batez ere aipatutako zerbitzu horien erabilera-mailarekin lotutako hainbat kontu aztertzen dira, laguntza eta prestazio ekonomikoen gaineko egungo eta etorkizuneko eskaerarekin eta gipuzkoar biztanleriak adierazitako lehentasunekin batera. Azkenik, hirugarren kapituluan gizarte babeseko sistemaren eta gutxieneko errenta sistemaren eraginkortasuna neurtzeko erabili ohi diren adierazleetako batzuen gaineko analisisa egiten da.

Metodologiaren ikuspegitik, alde zuzeneko zehaztapen batzuk egin behar dira. Lehenik, adierazi behar da lehen eta bigarren apartatuan aurkezten diren emaitzak bat datozela etxe bakoitzeko erreferentziako pertsonak (edo, bestela, horren ezkontide edo bikotekideak) emandako erantzunekin; horregatik, kasu batzuetan –galderak pertsonalak direnean eta etxe osoari buruzkoak ez direnean-, emaitzak ezin dira biztanleria osora estrapolatu. Era berean, kapitulu honetako hirugarren apartatuan ematen diren emaitzei eta, zehatzago esanda, sarrerak bermatzeko sistemaren eraginkortasunari lotuta daudenei dagokienez, adierazi behar da, halaber,

orientazio gisako interpretazioa egin dela, ezinbestean, horiek atera diren lagina ez delako hain biztanleria-talde txikiei buruzko emaitza adierazgarriak lortzeko berariaz diseinatu.

## 5.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren gaineko ezaguera

### 5.1.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren eginkizunei buruzko ezaguera maila

Oinarrizko gizarte zerbitzuek eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gero eta garrantzi handiagoa hartu dute azken urteotan gure lurraldeko herritarrentzat. Lanbideren kasuan, horretan berariaz lagundu dute enplegu politika aktiboen kudeaketa bere gain hartzeak eta Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskualdatzeak, ezen orain arte, eta sortu zutenez geroztik, udaletako eta foru aldundietako gizarte zerbitzuetatik kudeatzen zuten. Oinarrizko gizarte zerbitzuek, bere aldetik, normalizazio prozesu eztabaida ezina igaro dute gure komunitatean, neurri handi batean gizarte zerbitzuen sistemaren multzo osoa finkatzearen, haztearen eta dibertsifikatzearen eraginez, dagoeneko ez da eta ezinbestean biztanleria desfaboratuenarekin edo gizarte mailan baztertuarekin identifikatzen.

Horren guztiaren froga dugu gipuzkoar etxeetatik proportzio txiki bat besterik ez izatea oinarrizko gizarte zerbitzuei (% 4,5) edo Lanbideri (% 6,2) buruz hitz egiten inoiz entzun ez duela dioena. Baina, gipuzkoar biztanleriak zerbitzu horien gaineko ezaguera ona duela esan al daiteke? Hamar etxetatik lauk uste dute zerbitzu horietako bakoitzak garatzen dituen eginkizunei buruzko ezaguera ona edo oso ona dutela, eta hamarretik hiruk hala-moduzkoa. Aitzitik, gipuzkoar etxeetatik laurden batek inguru, 67.000 etxe gutxi gorabehera, ezaguera kaxkarra duke, argi eta garbi, bai oinarrizko gizarte zerbitzuei bai Lanbideri buruz. Edonola ere, ez dago alderik herritarrek gizarte zerbitzuei buruz duten ezagueraren eta Lanbideri buruz dutenaren artean.

94. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren eginkizunei buruzko ezaguera mailaren arabera. Gipuzkoa 2012

	Oinarrizko gizarte zerbitzuak		Lanbide	
	%	Kop.	%	Kop.
Oso ona	4,1	11.032	3,6	9.723
Ona	37,5	100.528	37,2	99.786
Hala-moduzkoa	28,8	77.358	27,8	74.642
Eskasa	14,8	39.724	12,7	34.190
Oso eskasa	10,2	27.439	12,4	33.329
Ez du hortaz aditu izan	4,5	12.153	6,2	16.566
Guztira	100,0	268.235	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Ezaguera maila etxeko erreferentziako pertsonaren hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera aztertzen denean, ikusten da erreferentziako pertsona emakumezkoa den etxeetan eta, batez ere, atzeritar bat buru dutenetan ezaguera maila handiagoa dela etxe guztiak kontuan harturik erregistratzen dena baino, bai oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez bai Lanbideren kasuan. Era berean, kasu batean zein bestean, ezaguera eskasagoa duten, are zerbitzu horiei buruz

hitz egiten inoiz entzun ez duten etxeak gehiago dira 65 urte edo gehiagoko pertsona bat buru duten familien kasuan, eta baita Ekialdeko sektorean, hots, lurraldearen zonarik urbanoen – honetan, hiriburuz gain, Bidasoa, Oarsoaldea eta Buruntzalea sartzen dira-, bizi direnen artean.

Zerbitzu baten eta bestearen gaineko ezagueren arteko aldeei dagokienez, Lanbideren kasuan alderantzizko erlazio bat ikusten da adinaren eta ezaguera mailaren artean; oinarrizko gizarte zerbitzuetan ez da horrelakorik ikusten. Izan ere, ikus daitekeen moduan, Lanbideren eginkizunei buruzko ezaguera mailak behera egiten du, nabarmen, etxeetan buru diren pertsonen adinak gora egin ahala; aldiz, oinarrizko gizarte zerbitzuen kasuan pertsona helduak buru dituzten etxeak dira gizarte zerbitzuen sistemarako sarrerako atea ondoen ezagutzen dutela diotenak.

**95. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren eginkizunei buruzko ezaguera mailaren eta erreferentziako pertsonaren hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera. Gipuzkoa 2012**

			Oso ona edo ona	Hala-moduzkoa	Eskasa edo oso eskasa	Ez du hortaz aditu izan
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Sexua	Gizonezkoak	40,5	29,6	24,9	5,0
		Emakumezkoak	44,2	27,1	25,3	3,4
	Adina	44 arte	44,5	26,7	25,2	3,6
		45etik 64ra	46,3	29,0	21,5	3,2
		65 urte eta gehiago	33,5	30,6	29,0	6,9
	Herritartasuna	Bertakoak	41,0	29,1	25,2	4,6
		Atzerritarrak	51,3	24,1	21,9	2,7
	Sektorea	Ekialdeko sektorea	40,5	26,4	26,7	6,4
		Mendebaldeko sektorea	43,1	32,3	22,7	1,9
	Guztira	Guztira	41,6	28,8	25,0	4,5
	Lanbide	Sexua	Gizonezkoak	39,4	30,3	25,0
Emakumezkoak			44,3	22,0	25,7	8,1
Adina		44 arte	52,5	29,0	15,7	2,8
		45etik 64ra	46,4	28,8	22,5	2,3
		65 urte eta gehiago	23,5	25,6	37,0	13,8
Herritartasuna		Bertakoak	40,1	28,3	25,2	6,4
		Atzerritarrak	52,1	20,5	24,7	2,7
Sektorea		Ekialdeko sektorea	36,6	26,1	29,2	8,0
		Mendebaldeko sektorea	46,7	30,2	19,5	3,6
Guztira		Guztira	40,8	27,8	25,2	6,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Zerbitzu horien gaineko ezaguera maila etxean pobrezia edo gizarte bazterketa egoera zenbait gertatzearen arabera aztertzen badugu, ikusten da Lanbideren gaineko ezaguera handiagoa dela mantentze dimentsioko pobrezia egoerak jasaten dituzten etheen artean, eta baita pobrezia larriko egoerak jasaten dituztenen artean ere, hau da, dituzten sarrerek errenta baliokidearen erdiko balioaren % 40tik gora egiten ez dutenen artean.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen gaineko ezagueraren kasuan, joeraren arabera etxe pobreen artean ezaguera handiagoa dela dirudien arren, erlazioa ez da hain garbia, eta estatistikoki ere ez du aparteko garrantzirik ere. Hala eta guztiz, kezagarria da inolako erlaziorik ez egotea FOESSA Fundazioak erabilitako metodologiaren arabera aurrez definitu diren gizarte bazterketa larrireneko egoeren eta zerbitzu horien gaineko ezagueraren artean. Bazterketa egoera larriak jasaten dituzten hamar etxetatik hiruk ez dituzte ezagutzen, neurri handi batean, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren eginkizunak (edonola ere, biztanleriak oro har erakusten duen ezagupen faltaren maila bera). Datu hauen arabera, beraz, zerbitzu horiei buruzko ezaguera maila mugatua dateke, hain zuzen ere zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzu eta prestazioen onuradun potentzialak diren etxeetan.

**96. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren eginkizunei buruzko ezaguera mailaren eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera.**

**Gipuzkoa 2012**

		Oinarrizko gizarte zerbitzuak		Lanbide <sup>+</sup>	
		Ona, oso ona edo hala-moduzkoa	Eskasa, oso eskasa edo inoiz aditu ez	Ona, oso ona edo hala-moduzkoa	Eskasa, oso eskasa edo inoiz aditu ez
Pobrezia larria <sup>+</sup>	Bai	77,3	22,7	83,3	16,7
	Ez	70,1	29,9	68,0	32,0
Mantentze dimentsioko pobrezia <sup>+</sup>	Bai	81,6	18,4	87,0	13,0
	Ez	69,4	30,6	66,9	33,1
Gizarte bazterketa larria	Bai	70,6	29,4	69,7	30,3
	Ez	70,4	29,6	68,6	31,4
Guztira		70,4	29,6	68,7	31,3

Oharra: aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, Lanbideri buruzko ezaguera mailan, (+) sinboloa daramaten aldagaien kasuan.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 5.1.2. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren kokapenaren gaineko ezaguera

Zentro hauen eginkizunari buruzko ezaguera orokorraz aparte, gipuzkoarrek ezagutzen al dute horien kokapen zehatza?

*Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika – Gizarte Beharrei buruzko Inkesta* lanaren lehen edizioaren arabera –Eusko Jaurlaritzaren lehengo Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak argitaratu zuen-, 2006an euskal etxeetatik % 57,3k besterik ez zekien oinarrizko gizarte zerbitzurik zegoenik, eta horietatik % 19,6k ez zekien non zegoen, behar izanez gero joan beharko lukeen oinarrizko gizarte zerbitzuen zentroa. Azterketa horren arabera, bakar-bakarrik etxeetatik % 46,1 izango

lirateke “gizarte zerbitzuen errealitatearen gaineko ezaguera zehatza dutenak, biztanleria egoiarrarentzako laguntzako zerbitzu gisa”<sup>37</sup>.

Kontu honi beroni buruz 2012an Gipuzkoarako jasotako datuak kontuan hartzen badira, esan genezake ezen, azken sei urte honetan, mamizko aldaketa gertatu dela oinarrizko gizarte zerbitzuen ikusgarritasun eta identifikazioari dagokionez. Ildo honetatik, *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012* laneko emaitzek agerian uzten dute –inkesta egindako pertsonen behar izanez gero joan beharko luketen oinarrizko gizarte zerbitzua non dagoen badakiten galdetu ondoren- ezen % 64,8k, hau da, gipuzkoar etxeetatik ia-ia bi herenek, badakitela nora joan beharko luketen. Lanbideren bulego hurbilenaren kokapenari dagokionez, non dagoen badakiela adierazitako etxe proportzioa oso antzekoa izan zen (% 65,5); beraz, gaur egun zerbitzu horien bien ikusgarritasun soziala ia-ia berdina dela esan dezakegu.

Zerbitzu horiek biak non dauden jakiteari dagokionez, esan daiteke gipuzkoar etxeetatik erdia pasatxok (% 53,3) dioela badakiela zehazki horiek biak non dauden; aldiz, laurdena eskas dira (% 23) joan beharko luketen oinarrizko gizarte zerbitzuen zentroa zein Lanbideren bulegoa non dauden ez dakitenak.

**97. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren kokapenaren gaineko ezagueraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Oinarrizko gizarte zerbitzuak		Lanbide	
	%	Kop.	%	Kop.
Bai	64,8	173.839	65,5	175.628
Ez	35,2	94.396	34,5	92.607
Guztira	100,0	268.235	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen zein Lanbideren kokapenaren gaineko ezaguerari dagokionez, alderik nagusienak etxeetan buru diren pertsonen adinari daude lotuta, eta bereziki bizilekuari. Izan ere, ikus daitekeen moduan, hurrenez hurren 65 urte edo gehiagoko pertsona bat buru duten hamar etxeetatik lautan, eta osaketa bera duten hamar etxeetatik ia-ia seitan, ez dakite zehatz non dauden beharra fortunatuz gero joan beharko luketen oinarrizko gizarte zerbitzuen zentroa eta Lanbideren bulegoa. Ondoko taulako datuek agerian uzten dute, halaber, gauza nabarmen samar bat, honakoa: zerbitzu bi horien kokapenari buruzko ezaguera, hau da, horien ikusgarritasun soziala, askoz handiagoa da Gipuzkoan urbanotik gutxien duen inguruan, mendebaldeko sektorean, Debagoieneko eta Debabarreneko eskualdeetan, Urola Kostan, Tolosaldean eta Goierriin alegia. Esate baterako, oinarrizko gizarte zerbitzuen kasuan zertzelada hau sendoturik ikusten da, Gipuzkoako udalerrri guztietan dagoelako bai zentro bat bai, bestela, zentro baten eginkizunak garatzeko prestatutako arreta punturen bat<sup>38</sup>.

**98. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren kokapenari buruzko ezaguera mailaren eta erreferentziazko pertsonaren hainbat ezaugarri soziodemografikoren arabera.**

**Gipuzkoa 2012**

			Bai	Ez	Guztira
Oinarrizko gizarte	Sexua	Gizonezkoak	63,6	36,4	100,0

<sup>37</sup> JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (2007). *Gizarte zerbitzuen eskaeraren estatistika. Gizarte Beharrei buruzko Inkesta 2006*. Emaitza txostena orokorra. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 181. or.

<sup>38</sup> SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (2010). *Txosten berezia: Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako aparteko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa. 480. orrialdea.

zerbitzuak		Emakumezkoak	67,6	32,4	100,0
	Adina	44 arte	65,2	34,8	100,0
		45etik 64ra	70,0	30,0	100,0
		65 urte eta gehiago	58,5	41,5	100,0
	Herritartasuna	Bertakoak	64,4	35,6	100,0
		Atzerritarrak	71,1	28,9	100,0
	Sektorea	Ekialdeko sektorea	56,8	43,2	100,0
		Mendebaldeko sektorea	76,1	23,9	100,0
	Guztira	Guztira	64,8	35,2	100,0
	Lanbide	Sexua	Gizonezkoak	66,7	33,3
Emakumezkoak			62,5	37,5	100,0
Adina		44 arte	78,4	21,6	100,0
		45etik 64ra	76,3	23,7	100,0
		65 urte eta gehiago	41,0	59,0	100,0
Herritartasuna		Bertakoak	64,3	35,7	100,0
		Atzerritarrak	83,2	16,8	100,0
Sektorea		Ekialdeko sektorea	58,3	41,7	100,0
		Mendebaldeko sektorea	75,5	24,5	100,0
Guztira		Guztira	65,5	34,5	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Une honetan pobrezia edota gizarte bazterketa egoeren eraginpean dauden pertsonen ezaguera handiagoa dute, oro har, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren kokapenari buruz, horrelako egoera batean ez daudenek baino. Horixe erakusten dute ondorengo taulako datuek, ikusten baita ezen prekarietate edota bazterketa egoeren eraginpean dauden etxeetan zerbitzu horiek dauden lekuari buruzko ezaguera beste etxeetan baino % 30 handiagoa dela gutxi gorabehera. Gainera, ondoriozta daiteke ezen, pobrezia egoeren eraginpean dauden etxeetan –bai pobrezia larriko egoerak bai mantentze pobrezia egoerak izan- Lanbideren kokapenari buruzko ezaguera beste oinarrizko gizarte zerbitzuen zentroenari buruzkoa baino handixeagoa delarik, bazterketa larriko egoerak jasaten dituzten etxeetan kontrakoa gertatzen dela.

**99. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren kokapenari buruzko ezaguera mailaren eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Oinarrizko gizarte zerbitzuak*		Lanbide <sup>+</sup>	
	Bai	Ez	Bai	Ez

Pobrezia larria*	Bai	77,2	22,8	84,9	15,1
	Ez	64,3	35,7	64,7	35,3
Mantentze dimentsioko pobrezia*	Bai	83,1	16,9	87,9	12,1
	Ez	63,1	36,9	63,3	36,7
Gizarte bazterketa larria*	Bai	83,0	17,0	78,3	21,7
	Ez	63,5	36,5	64,5	35,5
Guztira		64,8	35,2	65,5	34,5

Oharra: aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, oinarritzko gizarte zerbitzuei buruzko ezaguera mailan (\*) edo Lanbideri buruzkoan (+), sinbolo horietako bat daramaten aldagaien kasuan.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 5.1.3. Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den lekuaren gaineko ezaguera

2011ko urtearen amaieraz geroztik, eta Eusko Jaurlaritzak eta, bereziki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu zituelarik eskubide diren prestazio ekonomikoak, hau da, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarria tramitatzearekin eta erabakitzearekin lotutako eskumenak, ordura arte oinarritzko gizarte zerbitzuetan eskatzen ziren prestazio horiek Lanbidetik kudeatzen dira erabat. Praktikan, horrek funtsezko aldaketa bat ekarri du, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerei buruzko maiatzaren 3ko 2/1990 Legeaz geroztik –eta, beraz, dagoeneko bi hamarkada baino gehiago hasita- udalak baitziren, oinarritzko gizarte zerbitzuen bidez, eskaerak jasotzeko eta kudeatzeko arduradunak.

Hori dela eta, galdesortan galdera bikoitz bat sartzea erabaki zen: lehen-lehenik, inkesta egindako pertsonen zitzaien ea bazekiten nora joan beharko zuten, behar ekonomikorik sortuz gero, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatu nahi izanez gero (lehen Oinarritzko Errenta edo Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera), eta ondoren, baietz erantzundakoei, galdetzen zitzaien ea bazekiten, zehatz, gestio hori non egin beharko zuten.

Eta galdera bi horietan lortutako emaitzetatik, hiru konklusio garbi atera ditzakegu.

- Horietako lehena zera da, gipuzkoar etxe gehienek, zehatz esanda bi herenek, ez dakitela non eskatzen den Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, DBE dagoeneko 20 urtetik gorako bidea egindako eskubide subjektiboko prestazio bat bada ere (kontuan hartuz gero behintzat lehen GGD eta, gero, Oinarritzko Errenta izana), gipuzkoar etxeetatik % 34k besterik ez zuen uste hori eskatzeko nora joan behar zuen bazekiela.
- Bigarren konklusioaren arabera, egiaz ezaguera maila askoz baxuagoa da, zeren eta joan beharko luketen tokia ezagutzen dutela dioten etxeetatik heren horren erdiak bakarrik baitaki eskaera Lanbiden egin beharko lukeela. Izan ere, jasotako erantzunetatik abiatuta, ondoriozta dezakegu gipuzkoar etxeetatik parte garrantzitsu batek, 42.000 etxe inguruk, oraindik ere uste duela oinarritzko gizarte zerbitzuak direla Diru-sarbideak Bermatzeko Errentarako eskaerak jasotzeko ardura duten zentroak.

- Eta egiaz, eta hauxe genuke hirugarren konklusioa, kontsulta egindako pertsonetatik % 17 bakarrik da Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatu behar den lekuari buruzko galderari erantzun zehatza emateko gai.

**100. taula. Etxeak, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den lekuaren gaineko ezagueraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Kop.	Etxe kopuru osoaren gaineko %	Baiezko erantzuna emandako etxe guztien gaineko %
Ez dakitela diotenak	176.942	66,0	--
Badakitela diotenak	91.293	34,0	100,0
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetan	42.044	15,7	46,1
- Lanbiden	46.737	17,4	51,2
- beste leku batzuetan	654	0,2	0,7
- ez daki esaten	1.858	0,7	2,0
Guztira	268.235	100,0	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Labur bada ere kontuan hartzen badira etxe bakoitzeko erreferentziazko pertsonaren ezaugarri soziodemografiko nagusiak, ikusten da jatorriz atzerritarra den pertsona bat buru duten etxeak direla beharrezko tramite honen gaineko ezaguera maila handiena dutenak. Bestetik, adieraz daiteke ezen, erreferentziazko pertsonaren sexuari dagokionez alde adierazgarririk ez badago ere, adinak erlazioa duela, alderantzizko erlazioa argi eta garbi, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den tokia ezagutzearekin. Lehen azaldu dugun moduan gipuzkoar etxeetatik % 17,4k gaur egun badaki DBE Lanbiden eskatzen dela, baina 64 urtetik gorako pertsona bat buru duten etxeetan proportzio hori % 6,7ra arte jaisten da.

**101. taula. Etxeak, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den lekuaren gaineko ezagueraren eta erreferentziazko pertsonaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Ezaguera subjektiboa <sup>1</sup>	Ezaguera erreala <sup>2</sup>
Sexua	Gizonezkoak	33,0	16,8
	Emakumezkoak	36,6	19,0
Adina	44 arte	41,4	27,7
	45etik 64ra	37,8	18,4
	65 urte eta gehiago	22,9	6,7
Herritartasuna	Bertakoak	32,5	15,9
	Atzerritarrak	57,2	40,4
Sektorea	Ekialdeko sektorea	29,7	18,0
	Mendebaldeko sektorea	40,0	16,7



Guztira	Guztira	34,0	17,4
---------	---------	------	------

<sup>1</sup> Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzeko nora jo behar duten badakitela dioten etxeen proportzioa adierazten du.

<sup>2</sup> Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzeko nora jo behar duten badakitela dioten eta, gainera, entitate zehatza zein den galdetuta "Lanbide" erantzuten duten etxeen proportzioa adierazten du.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Arrazoizkoa bada ere pentsatzea gipuzkoar etxe gehienentzat prestazio hau eskatzea urrun samarreko kontua izan daitekeela –gaur egun ez dute planteatzen Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzea-, pentsatzekoa da ezen, jasaten ari diren pobrezia edota prekarietate egoera dela eta eskatzaile potentzialak izan daitezkeen pertsonen artean tramite horren gaineko ezaguera handiagoa izango dela. Emaitzak, alta, argi samarrak dira kontu honen inguruan, ez baina erabatekoak. Izan ere, pobrezia egoerak jasaten dituzten pertsonen artean eskaerak jasotzeko instantziaren gaineko ezaguera subjektiboaren edo errealearen irismena askoz handiagoa da egoera horretan ez dauden pertsonen artean baino; alabaina, etxe proportzio handi batek –erdia inguru da-, prekarietate ekonomikoko egoera batean egon arren, ez daki Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta Lanbiden eskatzen dela.

**102. taula. Etxeak, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den lekuaren gaineko ezagueraren eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Ezaguera subjektiboa <sup>1*</sup>	Ezaguera erreal <sup>2+</sup>
Pobrezia larria <sup>**</sup>	Bai	68,6	51,7
	Ez	32,6	16,0
Mantentze dimentsioko pobrezia <sup>**</sup>	Bai	72,6	46,3
	Ez	30,3	14,7
Gizarte bazterketa larria <sup>**</sup>	Bai	48,4	33,1
	Ez	33,0	16,3
Guztira		34,0	17,4

<sup>1</sup> Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzeko nora jo behar duten badakitela dioten etxeen proportzioa adierazten du.

<sup>2</sup> Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzeko nora jo behar duten badakitela dioten eta, gainera, entitate zehatza zein den galdetuta "Lanbide" erantzuten duten etxeen proportzioa adierazten du.

Oharra: aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta eskatzen den lekuari buruzko ezaguera mailan, ezaguera subjektiboan (\*) edo errealean (+), sinbolo horietako bat daramaten aldagaien kasuan.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

## 5.2. Zerbitzuen erabilera, laguntza eta prestazioen eskaera eta etorkizuneko beharrak

### 5.2.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren erabilera

Gipuzkoar etxeetatik % 13k eta ia-ia % 27k adierazten du azken hamabi hilabeteetan zehar oinarrizko gizarte zerbitzuetara eta Lanbidera jo duela, hurrenez hurren. Bestetik, etxeetatik % 11,8k eta % 13,1ek adierazten du duela urtebete baino gehiago jo dutela horietara. Beraz, esan dezakegu gipuzkoar etxeetatik laurden bat inguruk jo duela noizbait oinarrizko gizarte zerbitzuetara, eta Lanbideren kasuan, hamar etxetatik ia-ia lauk erabili dituela bere zerbitzuak.

**103. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren erabileraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Oinarrizko gizarte zerbitzuak		Lanbide	
	%	Kop.	%	Kop.
Noizbait	24,9	66.656	40,0	107.181
- azken 12 hilabeteetan	13,0	34.954	26,9	72.050
- duela urtebete baino gehiago	11,8	31.702	13,1	35.131
Inoiz ez	75,1	201.579	60,0	161.054
Guztira	100,0	268.235	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Zerbitzu bien erabilerari dagokionez, etxeetatik % 8,8k, hau da, 23.570 etxek, adierazten du azken urtean oinarrizko gizarte zerbitzuetara zein Lanbidera jo duela, eta erdia pasatxok (% 51,3) adierazten du ez dela inoiz joan zerbitzu horietara.

Zerbitzu publikoak gipuzkoar etxeetan buru diren pertsonen ezaugarrien arabera aztertzen direnean, ikusten da zerbitzu horietarako joera handiagoa dela erreferentziako pertsona emakumezkoa den etxeen artean, erreferentziako pertsona 45 urtetik beherako pertsona bat denetan eta, batez ere, erreferentziako pertsonak atzerriko herritartasuna duenetan. Bakar-bakarrik azken urtean oinarrizko gizarte zerbitzuez egindako erabilera hartzen badugu kontuan, esan dezakegu ezen atzerriko pertsona bat buru duten etxeek horietara jotzeko duten probabilitatea besteena baino 3 aldiz handiagoa dela. Erreferentziako pertsona emakumezkoa den etxeen kasuan, probabilitatea 1,6 aldiz handiagoa da, eta 44 urte arteko pertsonak buru diren etxeetan probabilitatea 1,4z biderkatzen da. Eta Lanbideren kasuan alde berberak ikusten badira ere, horien intentsitatea txikiagoa da, hau da, aipatutako taldeen arteko aldeak, konparazio mailan, txikiagoak dira.

**104. taula. Etxeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren erabileraren eta**

**erreferentziako pertsonaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2012**

			Noizbait*	Azken 12 hilabeteetan	Inoiz ez
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Sexua	Gizonezkoak	21,2	11,1	78,8
		Emakumezkoak	33,6	17,6	66,4
	Adina	44 arte	25,1	16,3	74,9
		45etik 64ra	26,2	13,4	73,8
		65 urte eta gehiago	23,1	9,5	76,9

	Herritartasuna	Bertakoak	23,0	11,6	77,0
		Atzerritarrak	53,1	35,2	46,9
	Sektorea	Ekialdeko sektorea	23,1	13,3	76,9
		Mendebaldeko sektorea	27,2	12,7	72,8
	Guztira	Guztira	24,9	13,0	75,1
Lanbide	Sexua	Gizonezkoak	38,9	24,5	61,1
		Emakumezkoak	42,5	32,4	57,5
	Adina	44 arte	53,6	35,2	46,4
		45etik 64ra	46,7	31,7	53,3
		65 urte eta gehiago	19,5	13,5	80,5
	Herritartasuna	Bertakoak	38,7	25,2	61,3
		Atzerritarrak	58,7	53,2	41,3
	Sektorea	Ekialdeko sektorea	37,4	26,8	62,6
		Mendebaldeko sektorea	43,6	27,0	56,4
	Guztira	Guztira	40,0	26,9	60,0

\* Kategoria honetan noizbait zerbitzuetara jo duten etxeen proportzioa jasotzen da, azken 12 hilabeteetan horietara jo duten ala ez alde batera utzita.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Espero zitekeen moduan, gizarte zerbitzuen zein Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabilera –berariaz pertsona pobre edo baztertuei zuzendutako zerbitzuak ez diren arren- nabarmen handiagoa da pobrezia edota gizarte bazterketa egoerak jasaten dituzten etxeen artean. Horixe erakusten dute ondoko taulako datuek, erakusten baitute aipatu egoerek eragindako etxeetatik % 45 inguruk jo duela azken 12 hilabeteen oinarrizko gizarte zerbitzuetara. Lanbideren bulegoei dagokienez, horietara jo dute pobrezia egoeran –pobrezia larriko edo mantentze pobreziakoan- dauden pertsonetatik hiru laurdenek, eta gizarte bazterketa egoera larriek eragindako hamar etxetatik seik.

**105. taula. Etxeak, azken 12 hilabeteen oinarrizko gizarte zerbitzuez eta Lanbidez egindako erabilerearen eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012 (Portzentaje horizontalak)**

		Oinarrizko gizarte zerbitzuak*		Lanbide <sup>+</sup>	
		Bai	Ez	Bai	Ez
Pobrezia larria*	Bai	45,3	54,7	73,8	26,2
	Ez	11,7	88,3	24,9	75,1
Mantentze dimentsioko	Bai	45,5	54,5	74,7	25,3

pobrezia+*	Ez	9,9	90,1	22,3	77,7
Gizarte bazterketa larria*	Bai	44,4	55,6	58,2	41,8
	Ez	10,7	89,3	24,6	75,4
Guztira		13,0	87,0	26,9	73,1

Oharra: aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, oinarrizko gizarte zerbitzuen (\*) edo Lanbideren (+) erabileren artean, sinbolo horietako bat daramaten aldagaien kasuan.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Zertzelada hau beste ikuspegi batetik ere ikus daiteke, aztertuz gero azken 12 hilabetean oinarrizko gizarte zerbitzuetara eta Lanbidera jo duten etxeetatik zenbateko proportzioa dagoen pobrezia edo gizarte bazterketako egoeren eraginpean. Taulako datuek agerian uzten dute pertsona pobreek edo gizarte bazterketa egoeran daudenek zein neurritan ez diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ez Lanbideren “bezeria” nagusia. Hala, esate baterako, bakar-bakarrik gizarte zerbitzuen erabiltzaileetatik % 23,2 eta Lanbideren erabiltzaileetatik % 14,8 daudeke bazterketa egoeran. Pobrezia larriaren kasuan, portzentajeak % 14koa eta % 11koa izango genituzke, eta PGDIren adierazleen bidez neurtutako pobrezia % 30 eta % 8,7koa.

**106. taula. Etxeak, azken 12 hilabetean oinarrizko gizarte zerbitzuez eta Lanbidez egindako erabilaren eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012**  
(Portzentaje bertikalak)

		Oinarrizko gizarte zerbitzuak			Lanbide		
		Bai	Ez	Guztira	Bai	Ez	Guztira
Pobrezia larria	Bai	14,0	2,5	4,0	11,1	1,4	4,0
	Ez	86,0	97,5	96,0	88,9	98,6	96,0
Mantentze dimentsioko pobrezia	Bai	30,4	5,5	8,7	24,2	3,0	8,7
	Ez	69,6	94,5	91,3	75,8	97,0	91,3
Gizarte bazterketa larria	Bai	23,2	4,4	6,8	14,8	3,9	6,8
	Ez	76,8	95,6	93,2	85,2	96,1	93,2
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 5.2.2. Laguntza eta prestazio ekonomikoen eskaera

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 lanak, osterantzean, behar egoeran dauden pertsonentzako babeste eta gizarteratze laguntza edota prestazio ekonomiko zenbaiten eskaera espezifikoak jasotzen du. Hemendik abiatuta, inkestako datuek agerian uzten dute azken urtean zehar 26.413 gipuzkoar etxe inguruk eskatu dituztela –etxe kopuru osoaren % 3,7k alegia- erakunde publikoetan laguntza edo prestazio ekonomikoak, bai sarrerak bermatzeko laguntza gisakoak (DBE, EPO edo DBL), bai orokorrak edo osagarriak, era berean sarrerak

bermatzera zuzenduak (PAGAMIren hondarrak edo kotizatu gabekoen pentsioak), bai langabeziagatikoak edo laguntza motakoak, langabezi sorospen bera esaterako.

**107. taula. Etxeak, hainbat laguntza eta prestazio ekonomikoren eskaeraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Azken 12 hilabeteak		Duela urtebete baino gehiago		Inoiz ez	
	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.
Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta	6,2	16.518	2,2	5.933	91,6	245.784
Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntza	0,2	519	0,2	661	99,6	267.055
Gizarte Larrialdiko Laguntzak	0,4	955	1,3	3.367	98,4	263.912
KGP/PAGAMI (Gutxieneko Bermerako Laguntza Prestazioa)	0,4	1.108	0,6	1.597	99,0	265.529
Langabezi sorospena	4,2	11.249	3,1	8.355	92,7	248.631

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Diru-sarbideak Bermatzeko Errentari dagokionez, guztietan eskari handiena duena baita, azken hamabi hilabeteetan gipuzkoar etxe guztietatik % 6,2k eskatu dute, eta noizbait eskatu dutenak % 8,4 dira. Diru-sarbideak Bermatzeko Errentaren ondotik, langabezi sorospena (azken urtean gipuzkoar etxeen % 4,2ren kideren batek eskatua), GLL eta kotizatu gabekoen pentsioak (etxeetatik % 0,4k eskatuak) eta duela gutxi sortutako Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntza<sup>39</sup> (% 0,2k eskatua) daude.

**108. taula. Etxeak, hainbat laguntza eta prestazio ekonomikoren eskaera mailaren<sup>1</sup> eta erreferentziako pertsonaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Noizbait <sup>2</sup>	Azken 12 hilabeteetan	Inoiz ez
Sexua	Gizonezkoak	6,7	4,3	93,3
	Emakumezkoak	16,4	12,7	83,6
Adina	44 arte	15,9	11,3	84,1
	45etik 64ra	9,2	7,2	90,8
	65 urte eta gehiago	4,1	2,0	95,9
Herritartasuna	Bertakoak	7,1	4,8	92,9
	Atzerritarrak	47,4	36,8	52,6
Sektorea	Ekialdeko sektorea	10,6	6,6	89,4

<sup>39</sup> Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntza ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Gipuzkoako lurraldean. Dekretua bera 2012ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean. Prestazio ekonomikoko bat da, Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzeko 4/2011 Legeak, azaroaren 24koak, ekarri dituen aldaketan eraginez Diru-sarbideak Bermatzeko Errentarako aukerarik gabe geratutako egoerak estaltzekoa, batez ere EAEn hiru urtez errolatuta egotearen eskakizunari dagokionez.

	Mendebaldeko sektorea	8,0	7,0	92,0
Guztira	Guztira	9,5	6,8	90,5

<sup>1</sup> Taula honetan bakar-bakarrik EAeko babes sistemaren barnean (DBE, EPO, DBL, GBLP edo sarrerak bermatzera bideratutako beste batzuk) emandako laguntza eta prestazioei buruzko emaitzak jasotzen dira.

\* Kategoria honetan noizbait aipatu prestazioetakoren bat eskatu duten etxeen proportzioa jasotzen da, azken 12 hilabeteetan horietara jo duten ala ez alde batera utzita.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Euskadiko administrazio publikoek kudeatzen duten prestazio sistemako laguntza eta prestazio ekonomikoen eskaera dena batera aztertuz gero (langabezi sorospenari dagokion eskaera kendu beharko litzateke, langabeziaren esparruko politika pasiboen kudeaketa administrazio zentralari dagokiolarako), ateratzen diren emaitzek agerian uzten dute, berriro ere, alde handiak daudela etxeke erreferentziatzeko pertsonaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Azken urtean zehar aipatutako laguntza edo prestazioetakoren bat behintzat eskatu izanari dagokionez, datuek erakusten dute atzerriko pertsona bat buru duten etxe guztietatik % 36,8k mota honetako eskaera bat egin duela. Bestetik, emaitzek agerian jartzen dute, halaber, emakumezko bat buru duten etxeetatik % 12,7k eskatu dutela azken urtean prestazio ekonomikoren bat (gizonezkoak buru direnetan, % 4,3ko proportzioa), eta proportzio hau eta 45 urtetik beherako pertsonaren bat buru duten etxeei dagokiena oso antzekoak direla. Alderik apenas dagoen etxeen artean, egoitzaren sektoreei dagokienez duela gutxiko eskaera aztertzen dugunean (azken 12 hilabeteetako); alabaina, datuen arabera noizbait egindako eskaerak aztertzen direnean, ekialdeko sektoreak prestazio eskaera maila handiagoa erakusten du.

**109. taula. Etxeak, hainbat laguntza eta prestazio ekonomikoren eskaeraren<sup>1</sup> eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Noizbait <sup>2*</sup>		Azken 12 hilabeteetan <sup>*</sup>	
		Bai	Ez	Bai	Ez
Pobrezia larria <sup>**</sup>	Bai	53,9	46,1	46,7	53,3
	Ez	7,7	92,3	5,1	94,9
Mantentze dimentsioko pobrezia <sup>**</sup>	Bai	59,1	40,9	50,4	49,6
	Ez	4,8	95,2	2,6	97,4
Gizarte bazterketa larria <sup>**</sup>	Bai	42,2	57,8	36,9	63,1
	Ez	7,2	92,8	4,6	95,4
Guztira		9,5	90,5	6,8	93,2

<sup>1</sup> Taula honetan bakar-bakarrik EAeko babes sistemaren barnean (DBE, EPO, DBL, GBLP edo sarrerak bermatzera bideratutako beste batzuk) emandako laguntza eta prestazioei buruzko emaitzak jasotzen dira.

<sup>2</sup> Kategoria honetan noizbait aipatu prestazioetakoren bat eskatu duten etxeen proportzioa jasotzen da, azken 12 hilabeteetan horietara jo duten ala ez alde batera utzita.

Oharra: aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, laguntza eta prestazio zenbaiten kasuan, azken urtean zehar (+) edo noizbait (\*) izandako eskaeren eta sinbolo horietako bakoitzaz adierazitako aldagaien artean.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Pobrezia ekonomiko edota gizarte bazterketako egoeren eta gizarteratzeko zerbitzu publikoen erabileraren artean erlazio garbia dagoen bezalaxe, esan daiteke maila bereko erlazioa ezartzen dela egoera mota honen eta sarrerak bermatzeko laguntza edota prestazioen egoera espezifikoaren artean. Izan ere, lortutako emaitzetatik ondoriozta daitekeen moduan, azken urtean izandako eskaera hartzen bada kontuan ikusten da pobrezia larriko egoerak jasaten dituzten etxeen joera eta, *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren* ikuspegiaren arabera, mantentze pobrezia deitua jasaten dutenen joera bederatzi eta ia-ia hogeitaz handiagoa dela, hurrenez hurren, egoera horiek jasaten ez dituzten etxeena baino. Era berean, gizarte bazterketa larriko egoerak jasaten dituztenen artean, eskaera hau zortzi aldiz handiagoa da beste etxeetako baino.

Guztiarekin ere, beste bat da azpimarratu behar den ikuspegia: egia den arren prestazio horien eskaera handiagoa dela pertsona pobre eta baztertuen artean biztanlerian oro har baino, adierazi behar da pertsona pobreetatik % 46k inoiz ez duela prestazio horietarako eskatu. Datu honek azaltzen ditu, neurri handi batean, laguntza horietarako eskubidea ez baliatzearen tasa altuak, hurrengo orrialdeotan identifikatzen den moduan.

### 5.2.3. Etorkizunean laguntza eta prestazio ekonomikoen beharra

Gipuzkoako etxeetatik % 15,4k (41.437 elkarbizitza-unitate inguruk) uste dute datozen 12 hilabeteetan agian jo beharko dutela aurreko apartatuan aipatutako laguntza eta prestazio ekonomikoetaren batera. Horietatik guztietatik, % 50,4k inguru dagoeneko eskatua duke, inkesta egin aurretiko urtean zehar, laguntza edo prestazio motaren bat, eta beste % 49,6 hori, hau da, gipuzkoar etxe guztietatik % 7,7, eskatzaile berriak izango dira.

**110. taula. Etxeak, laguntza eta prestazio ekonomikoen etorkizuneko beharraren arabera. Gipuzkoa 2012**

	Etxebizitza kopuru osoaren gaineko %	Etxebizitza kop.
Bai	15,4	41.437
Ez	84,6	226.797
Guztira	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Epe laburrean laguntza eta prestazio ekonomikoen beharra, batez ere atzerriko herritartasuna duten pertsonak buru diren etxeetan ikusten da (% 54,5), eta erreferentziazko pertsonak 45 urte baino gutxiago dituenetan (% 21) edo emakumezkoa denetan (% 20,7). Eskaera txikiena, bestetik, pertsona nagusiak buru diren etxeei dagokie (% 9,4).

**111. taula. Etxeak, laguntza eta prestazio ekonomikoen etorkizuneko beharraren eta erreferentziazko pertsonaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2012**

		Bai	Ez	Guztira
Sexua	Gizonezkoak	13,2	86,8	100,0
	Emakumezkoak	20,7	79,3	100,0
Adina	44 arte	21,0	79,0	100,0
	45etik 64ra	16,2	83,8	100,0

	65 urte eta gehiago	9,4	90,6	100,0
Herritartasuna	Bertakoak	12,9	87,1	100,0
	Atzerritarrak	54,5	45,5	100,0
Sektorea	Ekialdeko sektorea	16,4	83,6	100,0
	Mendebaldeko sektorea	14,1	85,9	100,0
Guztira	Guztira	15,4	84,6	100,0

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Pobrezia larriko egoerek edo mantentze pobrezia-egoerek eragindako hamar etxetatik seik baino gehiagok (Gipuzkoako etxe guztietatik % 15,4ren aurrean) uste dute 12 hilabeteko epean laguntza edo prestazio ekonomikoak eskatu beharrean egon daitezkeela. Gizarte bazterketa larriko egoerek eragindako pertsonen kasuan, eskaera hau txikixeagoa da (% 53,5); baliteke bai joera txikiagoa izatea mota honetako laguntzak eskatzeko, bai bazterketaren etiologia ez egotea faktore ekonomikoetan oinarrituta.

**112. taula. Etxeak, laguntza eta prestazio ekonomikoaren etorkizuneko beharren eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Etorkizunean laguntza eta prestazio ekonomikoaren beharra <sup>†</sup>	
		Bai	Ez
Pobrezia larria*	Bai	61,9	38,1
	Ez	13,5	86,5
Mantentze dimentsioko pobrezia <sup>†</sup>	Bai	67,4	32,6
	Ez	10,5	89,5
Gizarte bazterketa larria <sup>†</sup>	Bai	53,5	46,5
	Ez	12,7	87,3
Guztira		15,4	84,6

Oharra: aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, laguntza eta prestazio ekonomikoaren etorkizuneko behar pertzepzioaren eta (+) sinboloarekin markatutako aldagaien artean.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

#### 5.2.4. Lehenetsuneko zerbitzua behar ekonomikorik izanez gero

Aztertuz gero herritarrek, behar ekonomikoa izanez gero, zein neurritan dituzten nahiago zerbitzu publikoak dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuak eman dezaketen atentzioa baino, ikus dezakegu, besteak beste, nolako finkapen maila lortu duten lurralde jakin bateko gizarte zerbitzu publikoak. Izan ere, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestako



emaitzek analisi horretarako bidea ematen dute, galdesortan sartutako galdera bati emandako erantzunak aztertzean; galdera honakoa da: “Premia ekonomikoa gertatzen bada, nora joko zenuke lehenago: udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzu eta Lanbidera, edo Caritas, Gurutze Gorria eta antzeko erakunde pribatuetako batera?”.

Galdera honen bidez lortutako emaitzek agerian lagatzen dute gipuzkoar etxeetatik % 28,7 eta 23,4k oinarrizko gizarte zerbitzuak eta Euskal Enplegu Zerbitzua aipatzen dituztela lehentasunezko zerbitzu gisa, hau da, gehiengo batek (etxe guztietatik % 52,1ek) zerbitzu publikoak nahiago ditu. Analisi zehatzago batek, baina, eskatuko luke kontuan hartzea ezen, etxeetatik % 5,6 batek bakarrik joko balu ere lehenik erakunde pribatuetara, etxe proportzio oso handi batek, zehatz esanda hamarretik ia-ia hiruk, ez lukeela jakingo lehenengo nora joan (% 24,2) edo aipatu zerbitzuetako batera ere ez litzatekeela joango (% 5,6).

**113. taula. Etxeak, premia ekonomikorik izanez gero lehenengo joko luketen tokiaren arabera. Gipuzkoa 2012**

	%	Kop.
Oinarrizko gizarte zerbitzuetara	28,7	76.898
Lanbidera	23,4	62.808
Erakunde pribatuetara	5,6	14.902
Inora ere ez	5,6	14.958
Beste batzuetara	12,6	33.833
Ez daki	24,2	64.837
Guztira	100,0	268.235

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Behar ekonomikoa sortuz gero izaera publikoko zerbitzuetara jotzeko lehentasuna bereziki agerikoa da herritartasunez atzerritarrak diren pertsonak buru dituzten etxeetan. Ikus daitekeen moduan, etxe mota honetan buru diren pertsonetatik % 53,4k adierazten dute lehen-lehenik oinarrizko gizarte zerbitzuetara joko luketela, eta % 26,5ek dio lehenik Lanbidera joko luketela. Bitxia bada ere, etxe mota honetantxe ikusten da, era berean, erakunde pribatuetarako joera handiagoa, Caritas edo Gurutze Gorriakoa esaterako: etxe hauetatik % 14,6 inguruk, gipuzkoar etxe guztietarako erregistratutako % 5,6ren aurrean, adierazten du lehen-lehenik mota horretako erakundeetara joko lukeela. Zerbitzu publikoak pribatuen aurretik jartzeko joera hori handiagoa da, halaber, etxe guztientzat ikusia baino, 45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familia-unitateen eta erreferentziako pertsona emakumezkoa den familia-unitateen kasuan. Aitzitik, 65 urte eta gehiagoko pertsonak buru dituzten etxeetan oinarrizko gizarte zerbitzuetara edo Lanbidera jo nahiago zutenen proportzioa (% 37) nora jo jakingo ez luketenaren berdina da ia-ia (% 36,1).

**114. taula. Etxeak, premia ekonomikorik izanez gero joango diren lehen tokiaren eta erreferentziako pertsonaren ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2012**

		1	2	3	4	5	6
Sexua	Gizonezkoak	27,6	23,1	5,4	5,6	14,0	24,2
	Emakumezkoak	31,2	24,1	5,9	5,4	9,2	24,2
Adina	44 arte	26,1	34,3	3,6	6,6	12,5	17,0
	45etik 64ra	30,4	28,1	4,9	4,1	12,9	19,6

	65 urte eta gehiago	29,1	7,9	8,2	6,3	12,4	36,1
Herritartasuna	Bertakoak	27,1	23,2	5,0	5,9	13,4	25,5
	Atzerritarrak	53,4	26,5	14,6	1,2	0,8	3,4
Sektorea	Ekialdeko sektorea	29,8	23,8	5,5	7,2	9,6	24,1
	Mendebaldeko sektorea	27,0	22,8	5,6	3,4	16,9	24,3
Guztira	Guztira	28,7	23,4	5,6	5,6	12,6	24,2

Dharrak: taulako zutabeek hasieran duten zenbakia erantzun hauek dagokie: (1) Oinarrizko gizarte zerbitzuetara. (2) Lanbidera. (3) Erakunde pribatuetara. (4) Inora ere ez. (5) Beste batzuetara. (6) Ez daki.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Prekarietate ekonomikoaren edota gizarte bazterketaren eraginpean dauden pertsonen –eta, horrenbestez, zerbitzu hauen onuradun potentzialak direnek- adierazi dituzten lehentasunei dagokienez, lortutako emaitzek agerian lagatzen dute ez soilik etxe horiek oinarrizko gizarte zerbitzuetara edo Lanbidera joko luketela nagusiki, baizik eta hamar etxetik ia-ia zazpik joko luketela horietara kasu bietan.

**115. taula. Etxeak, premia ekonomikorik izanez gero joango diren lehen tokiaren eta pobrezia eta bazterketa egoeren presentziaren arabera. Gipuzkoa 2012**

		Premia izanez gero joango diren lehen tokia	
		Zerbitzu publikoak*	Beste erantzun batzuk
Pobrezia larria	Bai	67,8	32,2
	Ez	51,4	48,6
Mantentze dimentsioko pobrezia <sup>+</sup>	Bai	66,7	33,3
	Ez	50,7	49,3
Gizarte bazterketa larria <sup>+</sup>	Bai	70,6	29,4
	Ez	50,7	49,3
Guztira		52,1	47,9

\* “Oinarrizko gizarte zerbitzuetara” eta “Lanbidera” erantzunak biltzen ditu.

<sup>+</sup> Aldeak badira, estatistikoki adierazgarriak, Chi-Cuadrado probaren arabera,  $p < 0,05$ entzat, zerbitzu publiko batekiko lehentasunik izatearen edo ez izatearen eta (+) sinboloa daramaten aldagaien artean.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 5.3. Gizarte transferentzien sistemaren eta gutxieneko errenta sistemaren eraginaren adierazleak

Azterketa honen bigarren kapituluari jaso egin dira pobrezia, prekarietate eta gizarte bazterketarekin lotutako hainbat egoerak gipuzkoar biztanleriarengan duten prebalentziari

buruzko oinarritzko datuak. Horretan azertu egin da, era berean, aipatutako egoera horiek hainbat ezaugarri soziodemografikoren eta Gipuzkoak europar testuinguruan duen egoeraren arabera duten eragin desberdina. Panoramika hau osatzeko, kapitulu honetan datu interesgarri batzuk ematen dira, ez bakarrik une honetan Euskadin gizarteratze politiken gunea osatzen duten bi zerbitzuen gaineko ezaguera eta erabilerari buruz, baizik eta baita gizarte sorospenerako laguntza eta prestazio ekonomiko garrantzitsuenek gaur egun duten eskaerari buruz ere. Analisi hau amaitzeko, apartatu honetan gizarte transferentziek pobrezia tasen murrizketan duten eraginari eta egungo gutxieneko errenta sistemak pobrezia prebentzioan duen eraginari buruzko ebaluazio labur bat proposatzen da.

### 5.3.1. Gizarte transferentzien eraginkortasuna pobrezia larria murrizteari dagokionez

Gizarte transferentzien aurretiko eta ondorengo pobrezia tasen alderaketa da gizarte babeseko sistemaren birbanatze eragina neurtzeko eta, horrenbestez, gizarte babeseko neurriek pobrezia murrizteko unean duten eragin zehatza neurtzeko gehien erabiltzen den adierazleetako bat. Ikuspegi honetatik, apartatu honetan gizarte transferentziek pobrezia tasaren murrizketan duten eragina aztertzen da, Gipuzkoako lurraldeari dagokionez. Horretarako, bi gauza behintzat zehaztu behar dira: zein pobrezia-adierazle aukeratu den, eta zein transferentzia sozial mota hartzen den kontuan aurretiko eta ondorengo egoerak definitzeko unean.

Lehen kontuari dagokionez, pobrezia larriaren tasa erabiltzea aukeratu da -errenta baliokide garbia errenta baliokidearen erdiko balioaren % 40 baino txikiagoa den etxeetan bizi den pertsona proportzia ematen du adierazle horrek-, zeren eta sarrera txikien edo pobrezia arriskuaren tasak baino askoz hobeto islatzen baititu -hauetan arrisku atalasea urteko sarrera baliokideen % 60ko mailan finkatzen da- sozialki pobrezia errealarari lotutako egoerak. Bestetik, ez dira PGDItik ondorioztatutako bazterketa edo pobrezia adierazleak erabili, ez baitira egokiak kontu honen inguruan nazioarteko alderaketak egiteko unean.

Bigarren kontuari dagokionez, gizarte transferentzien aurretiko pobrezia tasa, kasu honetan, bakarrik biztanleriaren sarrera propioak kontatuz kalkulatu da; sarrera horiek, normalean, lanetik eta erretiro eta biziraupenerako pentsioetatik datoz. Gizarte transferentzien ondoko tasan sartu egin dira sistema publikoaren transferentziak, bai gizarteratzeari lotuak (DBE/EPO/DBL etab.), bai gizarte segurantzari eta langabeziari lotuak (langabeziagatiko prestazioak, familia babestekoak, seme-alabaren arduragatiko prestazioak, gaixotasunekoak, elbarritasun prestazioak 65 urtez azpiko kasuan eta enpresa-birmoldaketatik edo berregituraketatik ondorioztatutako aurretiko erretirokoak).

Zehaztapen hauek eginda, 2012rako lortutako emaitzek agerian uzten dute ezen gizarte transferentziarik egongo ez balitz (edo, esan bezala, bakar-bakarrik erretiroko eta biziraupenerako prestazioak baleude), pobrezia larriaren tasak Gipuzkoako biztanleria osoaren % 10ri eragingo liokeela, eta etxeetatik % 11,4ri. Aipatutako prestazio sozialen bidez (langabezia, gutxieneko errentak, etab.), tasa hauek % 4,3ra murrizten dira pertsonen kasuan, eta % 7,4ra etxeen kasuan. Guztira, esan daiteke pobrezia larria % 56,6 murrizten dela Gipuzkoan pertsonen dagokionez, hau da, erdia pasatxo, eta % 64,6 etxeei dagokionez. Datu hauek, beraz, erakusten dute sarrerak bermatzeko prestazioek 40.000 pertsona inguru ateratzen dituztela pobrezia larritik edo, beste modu batez esanda, beste era batean pobrezia larriko egoeran egongo liratekeen pertsonetatik % 57 inguru pobrezia atalasetik gora mantentzea lortzen dutela.

**116. taula. Pobrezia larria gizarte transferentzien aurretik eta ondoren. Eragindako pertsona eta etxe kopurua eta tasak. Gipuzkoa 2012**

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Eragindakoen kop.	Tasa (%)	Eragindakoen kop.

Gizarte transferentzien aurretik	10,0	70.420	11,4	30.512
Gizarte transferentzien ondotik	4,3	30.589	4,0	10.811
Aldea (portzentaje puntuz emana)	5,7	39.831	7,4	19.701
Murrizketa (%)	-56,6	--	-64,6	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gizarte transferentzien aurretiko eta ondotiko pobrezia larriaren tasak aztertzen direnean, 2012an Gipuzkoarako lortutako datuek agerian uzten dute pobrezia murrizketa ez dela talde guztietan modu homogeenoa gertatzen. Horrela, ikus dezakegu ezen, pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusien arabera, murrizketa (termino erlatiboetan adierazia) handiagoa dela bertako pertsonen artean, atzerritarren artean baino, eta baita pertsona helduen artean ere, adingabeen eta 64 urtetik gorakoen artean baino. Hala eta guztiz, azpimarratu behar da gizarte transferentziek, apartatu honetan definitu diren moduan, ia-ia 6,7 portzentaje-puntuz murrizten dutela pobrezia larria atzerritarren artean; aldiz, bertakoen artean –hauek, baina, hiru aldiz txikiagoa dute transferentzien aurretiko tasa- murrizketa hori 5,5 puntuko da.

**117. taula. Pobrezia larriaren tasa gizarte transferentzien aurretik eta ondoren, familia-etxebizitzetako biztanleriaren eta etxeen hainbat ezaugarriaren arabera. Gipuzkoa 2012**

			Gizarte transferentzien aurretik	Gizarte transferentzien ondotik	Aldea
Familia-etxebizitzetako biztanleria	Sexua	Gizonezkoak	9,9	4,5	-55,1
		Emakumezkoak	10,0	4,2	-58,0
	Adina	<18 urte	13,3	6,1	-53,9
		18-64 urte	10,9	4,4	-60,1
		65 urte eta gorakoak	4,1	2,6	-35,0
	Herritartasuna	Bertakoak	8,7	3,2	-63,7
		Atzerritarrak	28,6	21,9	-23,6
	Sektorea	Ekialdeko sektorea	9,9	4,4	-55,3
		Mendebaldeko sektorea	10,0	4,2	-58,2
	Guztira	Guztira	10,0	4,3	-56,6
Etxeak	Sexua	Gizonezkoak	9,2	3,7	-60,0
		Emakumezkoak	16,6	4,9	-70,6
	Adina	44 arte	14,8	4,8	-68,0
		45etik 64ra	14,7	4,7	-68,2
		65 urte eta gehiago	4,3	2,6	-39,7
	Jarduerarekiko erlazioa	Lanean	3,8	1,9	-49,3
		Langabea	69,6	24,2	-65,3

		Aktibitaterik gabea	9,2	2,6	-72,2
	Osaketa	14 urtez azpikoren bat.	13,8	5,5	-60,5
		14 urtez azpikorik ez.	10,5	3,5	-66,4
	Guztira	Guztira	11,4	4,0	-64,6

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Etheen konposizio edo osaketari dagokionez, adieraz daiteke, halaber, pobrezia larriaren murrizketa erlatiboa handixeagoa dela emakumeak buru diren etxeetan -horiek duten tasa, osterantzean, transferentzien aurretikoa, gizonezkoak buru diren etxeena baino ia-ia bi aldiz handiagoa da- eta, logikoa denez, baita pertsona langabetu eta aktibitaterik gabekoen artean ere, hauek baitira aztertzen ari diren transferentzien artean sartutako prestazioetako askoren onuradunak.

Azkenik, Gipuzkoak europar testuinguruan duen posizioa aztertuz gero, gizarte transferentziek pobrezia murrizketan duten eraginkortasunari dagokionez lortzen diren emaitzek funtsezko bi kontu jartzen dituzte agerian. Horietako lehena zera da, Gipuzkoak –Euskadi osoak bezalaxe, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko azken Inkestako (PGDI) emaitzek erakusten duen moduan- transferentzien aurretik duen pobrezia larriaren tasa nabarmen txikiagoa dela bai Espainian bai Europar Batasunean oro har ikusten dena baino. Aintzat harturik adierazle honen kalkuluan bakar-bakarrik laneko eta pentsioetako sarrerak hartzen direla kontuan, eta Gipuzkoak, une honetan, estatu osoko langabezia-tasa txikiena duela –Europako batez besteko tasa baino handiagoa hala ere-, emaitza horiek, europar testuinguruaren barnean, pentsioen eragin birbanatzaile handiago baten eraginaren eta soldata-egitura berdintasunezkoago baten bidetik interpreta daitezke soilik<sup>40</sup>.

**118. taula. Pobrezia larriaren tasa gizarte transferentzien aurretik eta ondoren, Europar Batasuneko hainbat herrialdetan. 2012**

	Aurretik	Ondoren	Aldea	Murrizketa (%)
EB-27 2011 <sup>1</sup>	14,2	5,7	8,5	-% 60
EB-15 2011 <sup>1</sup>	14,5	5,5	9,0	-% 62
- Danimarka	18,8	4,9	13,9	-% 74
- Erresuma Batua	18,8	5,0	13,8	-% 73
- Espainia	17,1	10,1	7,0	-% 41
- Belgika	16,2	3,6	12,6	-% 78
- Suedia	15,3	3,7	11,6	-% 76
- Finlandia	15,1	2,4	12,7	-% 84
- Alemania	14,7	4,3	10,4	-% 71
- Luxenburgo	13,4	2,8	10,6	-% 79

<sup>40</sup> Izan ere, 65 urtez azpiko biztanleriaren pobrezia tasa, prestazio ororen aurretikoa, % 4,1ekoa da Gipuzkoan; EB-27-an, berriz, % 4,9koa.

- Frantzia	12,8	3,1	9,7	-% 76
- Austria	12,0	3,0	9,0	-% 75
- Grezia	11,5	8,2	3,3	-% 29
- Holanda	11,5	2,6	8,9	-% 77
- Portugal	11,3	5,5	5,8	-% 51
- Italia	11,1	8,1	3,0	-% 27
Euskadi 2012 <sup>2</sup>	10,6	3,5	7,1	-% 67
Gipuzkoa 2012 <sup>3</sup>	10,0	4,3	5,7	-% 57


Iturriak: (1) Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions). (2) EOE. Enplegu eta Gizarte Politiketako Departamentua. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012. (3) Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Azpimarratu behar den bigarren kontua zera da, Gipuzkoak gizarte transferentzien aurretik duen pobrezia larriaren tasa txikiagoa bada ere europar herrialdeetan oro har dagoena baino, gizarte transferentziek pobrezia murrizteari dagokionez gure lurraldean duten eragina txikiagoa dela. Horrela, Gipuzkoan pobrezia larriaren murrizketa erlatiboa % 57koa da, eta gaur egun Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetan murrizketa hori % 60a iristen da. Datu horien arabera, Gipuzkoan gizarte transferentzien sistema eraginkorragoa da Europa hegoaldeko herrialdeetan baino –Italian % 27, Grezian % 29 eta Espainian % 41eko murrizketa-, baina lehengo hamabosten Europar Batasuna osatzen zuten beste herrialdeetan ikusten dena baino eraginkortasun txikiagokoa.

### 5.3.2. DBE/EPO/DBL/GLL sistemaren eragina pobrezia larria murrizteko

Helburua badu ere etxeei gutxieneko sarrera batzuk bermatzea oinarrizko gastuak estali ahal izatearren, DBE jasotzeak ez dakar beti onuradunek oinarrizko gastu guztiei aurre egin ahal izatea, ezta pobreziatik irten ahal izatea ere finkatutako gutxieneko atalase bat gainditzetik abiatuta. Horixe erakusten duite gaur egun Diru-sarbideak Bermatzeko Errentaren (edo, hala dagokionean, Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntzaren) onuradun diren etxeei jasotako zenbatekoen eta oinarrizko gastuen arteko egokitasunari buruz galdetuta ateratako datuek. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, etxe horietatik % 19,8k soilik uste du jasotzen duen zenbatekoak erabat estaltzen dizkiola oinarrizko beharrak. Parte handi batek (% 37,5) uste du bere beharrak neurri batean soilik estaltzen dituela Errentak. Aitzitik, DBEri lotutako sarrerak eskasak edo oso eskasak izango liriteke, hurrenez hurren, Diru-sarbideak Bermatzeko Errentaren onuradun diren etxeetatik % 37,1 eta % 11rentzat. Datu hauen argitan, beraz, esan genezake DBE jasotzen duten etxeetatik % 43 inguruk eskas deritzotela horren zenbatekoari.

### 7. grafikoa. DBE-EPO/DBLren etxebizitza onuradunak, oinarrizko beharrak estaltzera begira zenbatekoaren egokitasunari buruzko pertzepzioaren arabera. Gipuzkoa 2012



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Argigarria bada ere, pertsona onuradunek prestazioaren nahikotasunari buruz duten iritzia ez da horren egokitasun edo eraginkortasuna baloratzeko unean kontuan hartu beharreko elementu bakarra. Ildo honetatik, apartatu honetan aurkezten diren datuak –mota honetako beste azterketa batzuek erabilitako metodologia bera erabiliz prestatuak- prestazio ekonomikoaren sistemak gure lurraldean pobrezia gainean duen eraginari buruzko analisi espezifiko baten emaitza dira; prestazio sistema horren barnean Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta (DBE), Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO), Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntza (DBL), eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) dira.

Hala eta guztiz, zehaztapen bat egin behar da alde aurretik; izan ere, datu hauek erabilgarriak izan daitezke Gipuzkoan sarrerak bermatzeko sistemak duen funtzionamenduaren gaineko ikuspegi zabala izateko, baina beharrezko zuhurtziaz interpretatu behar dira, ezinbestez. Analisi mota hau, neurri handi batean, laguntza edo prestazio sozial jakin batzuk jasotzen dituzten etxeak erreferentzia harturik egiten da, baina horiek pisu erlatibo txikia izaten dute etxe multzo osoarekiko. Hala, lurralde jakin bateko etxe multzoari egindako inkestek, etxe pobreez osatutako lagin oso zabalik edota azpilagin espezifikorik ez dutenek –inkesta honen kasuan bezala-, kasu erreal kopuru txikia hartu ohi dute prestazio sozialen onuradun diren etxeei dagokienez eta, horrela, lortu nahi diren emaitzen sendotasun eta oinarria nabarmen ahultzen da. Gipuzkoako Lurralde Historikoko *Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2012ko Inkestaren* kasuan, 1.193ko osoko kopuruan guztira 54 etxe zenbatu dira inkesta egiten ari zen unean edo azken urtean analisi honetan kontuan hartutako laguntza eta prestazio ekonomikoak -Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta Etxebizitza Laguntza Osagarriaz edo gabe, Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntza edota Gizarte Larrialdiko Laguntzak- jasoak.

Beharrezko argibideen ondotik, epigrafe honetan aurkezten diren emaitzek bi galderari erantzun nahi diote funtsean, honakoak baitira: gure lurraldean dugun sarrerak bermatzeko sistematik ondorioztatzen diren prestazioek zer neurritan lortzen dute pobrezia larria murriztea? Eta, horietako pertsona onuradunen zenbateko proportzioak lortzen du pobrezia larritik irtetea, horiek jasotzearen ondorioz?

Lehen galderari erantzuteko, pobrezia larriaren tasak kalkulatu ziren, DBE-EPO/DBL/GLLk osatutako laguntza eta prestazio sistemaren aurretik eta ondotik. Eta emaitzek, hurrengo taulan jasotzen diren moduan, erakusten dute Gipuzkoan pobrezia larriaren tasa, pertsonetatik % 4,3ri eragiten diona, % 6,3raino irits litekeela prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonen sarrera horiek izango ez balituzte. Hori guztia dela eta, ondoriozta daiteke Gipuzkoan prestazio horietarako sarrerak % 31,5 inguru murrizten duela pobrezia larria. Ikuspegi honetatik, zalantzarik ez dago gutxienezko errenten euskal sistemak eginkizun garrantzitsua betetzen duela Gipuzkoan pobrezia egoerak bridatzeari dagokienez.

**119. taula. DBE-EPO/DBL/GLL sistemak pobrezia larriaren tasan duen eraginari buruzko adierazleak. Gipuzkoa 2012**

	Eragindako biztanleria	Biztanleria guztiaren gaineko %
Pobrezia larriaren tasa DBE-EPO/DBL/GLLren aurretik	44.631	6,3
Pobrezia larriaren tasa DBE/EPO/DBL/GLLren ondotik	30.589	4,3
Aldea	14.042	2,0
Pobrezia larriaren murrizketa (%)	% 31,5	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Planteatutako bigarren kontuari dagokionez, DBE-EPO/DBL/GLL sistemak pertsona onuradunen pobrezia larriko egoeretan duen eraginari lotua baita, interes nagusia zera da, biztanleria onuradunaren artean aztertzea pertsona horietatik zenbateko proportzioa ateratzen den pobrezia larritik, eta zenbateko portzentajeak lortzen duen prestazio horietara iritsi ondoren. Kasu zehatz honetan, eta hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, emaitzek erakusten dute ezen sarrerak bermatzeko euskal sistemako laguntzak jasotzen dituzten pertsonetatik % 31,5 inguru ez dela pobrezia larritik irteten laguntza horiek jaso arren; dena den, pentsa daiteke laguntza horiek jasotzeak nabarmen murrizten duela aukeratutako pobrezia atalasearen eta familia horiek eskura dituzten baliabideen artean dagoen tartea.

**120. taula. DBE-EPO/DBL/GLL sistemaren eraginkortasunari buruzko adierazleak. Gipuzkoa 2012**

	Eragindako biztanleria	Biztanleria osoaren gaineko %	Biztanleria atendituaren gaineko %
DBE-EPO/DBL/GLLren pertsona onuradunak	28.070	4,0	100,0
- Pobrezia larritik atereak	14.042	2,0	50,0
- Pobrezia larritik atera ez direnak	8.848	1,3	31,5
- Ez zeuden pobrezia larriko egoeran*	5.180	0,7	18,5

\* Analizatutako laguntza eta prestazioetakoren bat azken urtean jaso duten etxeetan daude pertsona hauek, baina dituzten sarrera baliokide garbien arabera ez daude pobrezia larriko egoeran. Horrek ez du esan nahi pertsona horiek ez zeudenik behar egoeran, edota prestazioetarako baldintzak betetzen ez zituztenik.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

### 5.3.3. Eskatzaile potentziala izaki DBE-EPO/DBL sistemara iristen ez den biztanleria

Eskatzaile potentziala den biztanleriak prestazio ekonomikoetarako aukerarik ez izatearen kontua (ingelesez, literatura zientifikoan, fenomenoari *non take up of benefits* esaten diote) duela urte batzuetatik hona gero eta arreta handiagoa jasotzen ari da europar esparru politiko eta akademikoan, horretan erasota geratu baita arazo honen irismena<sup>41</sup>.

<sup>41</sup> Fenomeno honek Europako hainbat herrialdetan duen irismenari buruzko informazio gehiago izateko, kontsultatu honakoak: EUROSTAT (2009). The Social Situation in the European Union 2008. Brusela: European Commission. New Insights Into Social Inclusion. 42-44. or.; MATSAGANIS, M. et al. (2008). *The take up of social benefits*. European Commission. University of Essex.



Gipuzkoan sarrerak bermatzeko prestazioak onuradun potentzial guztiei iristen al zaizkie? Epigrafe honetan, kontu honi erantzun egin nahi zaio, *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012* lanak ematen duen informaziotik abiatuta. Zehaztu behar da emaitzak aztertu nahi den fenomenorako esplorazio hurbilketa bat direla. Ildo honetatik, ematen diren datuak gipuzkoar etxeetan oro har egindako lagin-azterketa batean daude oinarriturik eta, beraz, laginketa-akats handiak egon daitezke, analisisan kasu kopuru txiki bat hartzen baita kontuan. Gainera, adierazi behar da hemen aurkezten diren datuak aztertu nahi den fenomenorako hurbilketa sinplifikatua direla, ezinbestean, zeren eta inkestaren bidez lortutako datuak ezin baitira parekatu, ez kantitatez ez kalitatez, biztanleriak mota honetako prestazioetarako duen aukera zehazteko unean beharko litzatekeen informazio administratiboarekin.

DBE-EPO/DBLren eskatzaile potentziala den biztanleria zehazteko unean hainbat alderdi hartu dira kontuan metodologiaren ikuspegitik, honakoak:

- Etxeak, inkestan definitu diren moduan, ez datozenez bat Diru-sarbideak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, jasotzen dituen elkarbizitza-unitateekin, lehen-lehenik etxeen kategorizazio berria egin da, etxebizitza berean elkarbizitza-unitate bat baino gehiago dagoela jotzeko aipatzen diren baldintza nagusiak harturik aintzat.
- Horren osagarri, eta galdesortak eskaintzen zituen aukeretan oinarriturik, 147/2010 Dekretuak aurreikusten dituen sarrerarako baldintza ekonomikoen artean, honakoak hartu dira kontuan: (1) Ohiko etxebizitzaz aparteko etxebizitzarik ez izatea. (2) Ez izatea ondare baimendu maximorik, 2012rako estipulatutako kopuruaren arabera, etxearen neurria eta pertsona pentsioduna den ala ez kontuan hartuta. (3) Ez izatea sarrera baimendu maximorik, 2012rako estipulatutako kopuruaren arabera, berriro ere etxearen neurria eta pertsona pentsioduna den ala ez kontuan hartuta. Baldintza honi dagokionez, gainera, neurri handi batean kontuan hartu da Dekretuaren 21. artikuluan sarrera ez konputagarri buruz adierazia.
- Azkenik, Diru-sarbideak Bermatzeko Errentaren hartzaile izateko bete behar den 3 urtez erroldatuta egotearen baldintza hori urtebeteko epera murriztu da, Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntzarako aukera izateko kasuan jasotzen den moduan.

Zehaztuen hauek eginik, pentsa dezakegu Gipuzkoan 45.441 pertsona inguru direla sarrerak bermatzeko prestazioen eskatzaile potentzial diren familia-unitateetan bizi direnak; horietatik % 61,8 inguruk jasotzen duke, une honetan, bai Diru-sarbideak Bermatzeko Errenta (guztien artetik % 98,3k), bai Diru-sarbideak Bermatzeko Laguntza (% 1,7k). Osterantzean, prestazio horien eskatzaile potentziala den biztanleriaren % 38,2k, hau da, 17.371 pertsona inguruk –biztanleria osoaren % 2,4k- ez dituzke laguntza ekonomiko horiek jasotzen, beharrezko baldintzak bete arren.

**121. taula. EPO/DBLren eskatzaile potentziala den biztanleria gutxieneko errenta sistemarako sarreraren arabera Gipuzkoa 2012**

	Eragindako biztanleria	Biztanleria osoaren gaineko %	Eskatzaile potentziala den biztanleriaren gaineko %
DBE-EPO/DBLren eskatzaile potentziala den biztanleria	45.441	6,4	100
- Sistematan atenditutako biztanleria	28.070	4,0	61,8
- Sistematan atenditu gabeko biztanleria	17.371	2,4	38,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012.

Gipuzkoarako ateratako datua bat dator, neurri handi batean, euskal DBEren parekotzat jo daitekeen prestazioari dagokionez Frantzian egindako antzeko ikerketek<sup>42</sup> emandako emaitzekin; horiek, izan ere, % 33ko tasa ematen dute *revenu de solidarité active* (RSA) delakora ez iristeari dagokionez, eta, gainera, erakusten dute demanda potentzialaren % 100 atenditu ahal izateko pertsona onuradunen kopuruak % 50 baino gehiago egin beharko lukeela gora.

Ez dago modurik prestazioetara ez iriste tasa horren atzean zer arrazoi dagoen jakiteko. Edonola ere, garrantzitsua da aipatzea fenomeno orokorra dela, beste herrialde batzuetan ere gertatzen dela, eta beste prestazio batzuetan ere ikusten dela<sup>43</sup>. Ildo horretatik, pentsatu beharko da faktore soziologikoek, kulturelek eta instituzionalek eragiten dutela horretan, eta ez da ahantzi behar ezen, tradizionalki, prestazio honen estaldura Gipuzkoan baxuagoa izan dela beste lurralde batzuetan baino, konparatuz gero hemengo pobrezia mailak baxuagoak direla kontuan harturik ere. Ez dirudi, dena den, egoera honen atzean azken urteotan gizarteratzeko gutxieneko errenten kudeaketan gertatu den eskumen aldaketa dagoenik, baizik eta lehendiko faktore soziologiko eta instituzionalak. Eta garrantzitsua da, halaber, gogoratzea ezen pertsona horien profila baliabide propioetan halako maila bat baduten etxeetan aurkitzen dela; etxe horiek, sarritan, pobreziaaren atalasetik hurbil daude, baina ez dakite sarrera horiek DBEren bidez osa ditzaketarik, are gehiago, osagarri hori eskatzeari uko egiten diote.

Dena dela datu horiek, nolabait aurretiazkoak eta orientagarriak direla azpimarraturik, agerian uzten dute, dagoeneko gure inguruko beste herrialde batzuetarako aipatu den moduan, arazo larria dagoela eskatzaile potentziala den biztanleriaren parte bat diru-sarbideak bermatzeko prestazioetara ez iriste hori dela eta; izan ere, premia egoeran dauden hainbeste pertsonak zenbait arrazoi tarteko bere eskubideak gauzatzetik ez izatea bidegabekeriaz gain gizarte politiken porrota ere bada.

---

<sup>42</sup> ODENORE. OBSERVATOIRE DES NON-RECOURS AUX DROITS ET SERVICES (2012). L'envers de la "fraude sociale". *Le scandale du non-recours aux droits sociaux*. Sailla: Cahiers Libres. Paris: Editions La Découverte. 48. or. Gizarte eskubideetara ez iristearen "eskandalua" iruzurraren arazoaren beste aurpegi askoz kezkarriagotzat planteatzen dute lan honen egileek.

<sup>43</sup> Duela gutxiko azterketa baten arabera, erretiroko kotizatu gabekoen pentsioen ez-erabiltze tasa % 44ra iristen da (Matsaganis, Levy eta Flevotomou, 2010).

### 3. BIBLIOGRAFIA

BOARDMAN, B. (1991). *Fuel Poverty: From Cold Homes to Affordable Warmth*. London: Belhaven Press.

CLINCH J.P. eta J.D. HEALY (1999). "Alleviating fuel poverty in Ireland: A programme for the 21st century", in *International Journal for Housing Science*, 23. lib., 4. zk., 203.-215. or.

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2011). *Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika – Gizarte Beharrei buruzko Inkesta 2010. Emaítza txosten orokorra*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2012). *Pobrezari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012. Emaítza nagusiak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (2007). *Gizarte zerbitzuen eskaeraren estatistika. Gizarte Beharrei buruzko Inkesta 2006. Emaítza txostena orokorra*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

ESPADA NICOLÁS, Rebeca (zuz.) (2012). *Soluciones de rehabilitación energética. Oportunidad de desarrollo económico y empleo verde en Extremadura*. Madril: Asociación de Ciencias Ambientales.

EUROSTAT (2009). *The Social Situation in the European Union 2008*. Brusela: European Commission. New Insights into Social Inclusion.

FERREIRA, E. eta A. GARÍN (1997). "Una nota sobre el cálculo del índice de Gini", in *Revista Estadística Española*. 39. lib., 142. zk., 1997, 207tik a 218ra.

GOERLICH, F.J. eta A. VILLAR (2009). *Desigualdad y bienestar social. De la teoría a la práctica*. Bilbo: BBVA Fundazioa.

LAPARRA, M. eta PÉREZ ERANSUS, B. (koord.) (2010). *El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España*. Colección de Estudios, 32. zk., Madril: FOESSA Fundazioa, Cáritas Española Editores.

LEWIS P. (1982). *Fuel poverty can be stopped*. Bradford: National Right to Fuel Campaign.

MASCHERINI, M. et al. (2012). *NEETs. Young people not in employment, education or training: Characteristics, costs and policy responses in Europe*. Dublin: European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions.

- MATSAGANIS, M. et al. (2008). *The take up of social benefits*. European Commission. University of Essex.
- OBSERVATORIO DE LA SOSTENIBILIDAD EN ESPAÑA (2012). *Informe de Sostenibilidad en España 2012*. Madril: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
- ODENORE. OBSERVATOIRE DES NON-RECOURS AUX DROITS ET SERVICES (2012). *L'envers de la "fraude sociale". Le scandale du non-recours aux droits sociaux*. Saila: Cahiers Libres. Paris: Editions La Découverte.
- RENES AYALA, Víctor (koord.) (2008). *VI Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en España 2008*. Madril: FOESSA Fundazioa.
- RUIZ DE AZUA, N. (2004). *Indicadores para el Estudio de la Exclusión Social en España desde una Perspectiva de Género*. Madril: Instituto de la Mujer.
- SANZO, L. (2009). *1984-2008. 25 Años de estudio de la pobreza en Euskadi. Síntesis de los estudios y trabajos estadísticos desarrollados entre 1984 y 2008 por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- SCHAAP, M.M. eta A.E. KUNST (2009). "Monitoring of socio-economic inequalities in smoking: Learning from the experiences of recent scientific studies", in *Public Health*, 123. lib., 2. zk., 2009, 103.-109. or.
- SIIS-DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA (2010). *Txosten berezia: Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako aparteko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa.
- TIRADO HERRERO, Sergio (zuz.) (2012). *Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas*. Madril: Asociación de Ciencias Ambientales.

# **I. ERANSKINA**

## **POBREZIA, DESBERDINTASUN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ADIERAZLE NAGUSIAK GIPUZKOAN 2012**

## SARRERA

Hurrengo orrialdeotan, modu sintetikoan biltzen dira pobrezia, gizarte bazterketa eta desberdintasuna neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleetako batzuek Gipuzkoarako 2012ko urterako ematen dituzten emaitzak. Eranskin hau sei ataletan dago antolatuta, eta guztira hogeitahiru adierazle pasatxo jasotzen ditu. Atal bakoitzean, ikuspegi edo metodologia zehatz baten barnean koka daitezkeen adierazleak biltzen dira –lehenbiziko hiruren kasuan esaterako-, edo kontu espezifikoak, hala nola gizarte desberdintasuna, pobrezia energetikoa edo politiken eraginkortasuna jorratzen dituztenak. Eranskin honetan sartutako atalen zerrenda honakoa da:

1. Pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko adierazleak, EU-SILC ikuspegiaren arabera. *Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasunaren Estatistikak* –ingelesez *Statistics on Income and Living Conditions (EU-SILC)*- 2004an jarri ziren martxan (*Europar Batasunaren Etxebizitza Panela*, POGHE deituaren ordeztu), eta gaur egun Europar Batasunaren kide guztiak gehi Islandia eta Norvegia hartzen dituzte. Eragiketa estatistiko honen helburu nagusia EBren estatu kideak pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokan egiten ari diren aurrerapenak ikuskatzea da. Metodologiaren ikuspegitik, estatistika hauek ematen dituzten datuak batez ere pobrezia eraldierako eta alderdi materialei daude lotuta. Eragiketa honen emaitza zehatzak uneoro erabilgarri daude Eurostat-en web orrian<sup>44</sup>; horretan informazioa, oro har, herrialdeka bereizita ematen da, baina NUTS2 eskualdekako (estatu autonomiaren erkidegoen baliokideak dira) datu batzuk ere ematen dira, Europar Batasuneko 200 eskualde ingururi buruz.
2. Pobrezia eraldierako adierazleak, mantentze dimentsioan, PGDIren metodoaren arabera. *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* lau urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzak, duela ia-ia 25 urte hasita, eta esparru honetan ez soilik Euskadin, baizik eta estatu osoan sendoen finkatutako lanabesetako bat da. Eragiketa estatistiko honek ematen dituen datuak batez ere pobrezia eraldierako osagaiarekin eta materialarekin daude lotuta, eta bere ezaugarrietako nagusi bat adierazle propioa da (pobrezia eta ongizaterik eza), pobrezia eraldierako ikuspegi subjektibo batetik abiatuta. Ikuspegi honen bidez aztertzen

---

<sup>44</sup> Eskuratzeko lekua:

<[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/income\\_social\\_inclusion\\_living\\_conditions/introduction](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/income_social_inclusion_living_conditions/introduction)> [Kontsulta: 2013ko apirilak 23]

diren pobrezia-aren bi dimentsioei –mantentze eta metatze dimentsioei- dagokienez, horietako lehenari dagozkion adierazleei buruzko datuak ematen dira hemen. Mantentze pobrezia, metodologia honen arabera, oinarriko beharrei -elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastuei- epe laburrean aurre egin ahal izateko baliabide ekonomiko eskasia gertatzen den egoerei lotzen zaie.

3. Gizarte bazterketaren adierazleak, FOESSA Fundazioaren ikuspegiaren arabera. Duela gutxi, FOESSA Fundazioak (Fomento de Estudios Sociales y Sociología Aplicada) sistema espezifiko bat garatu du gizarte bazterketa egoerak neurtzeko, eta bi inkesta egin ditu (2007an bata eta 2009an bestea), fenomeno horren hedadura eta intentsitatea neurtzeko. Hurbilketa horren abantaila nagusia zera da, oinarri dituen bazterketari buruzko adierazleek, alderdi ekonomiko eta materialez gain, bazterketan eragiten duten beste dimentsioak ere (osasuna, etxebizitza eta partaidetza) kontuan hartzea, fenomenoaren dimentsio anitzeko prozesu kontzeptzio batetik –inkestak panel forma duen neurrian- abiatuak.
4. Gizarte desberdintasunaren adierazleak. Pobrezia eta bazterketaren adierazleez gain -horiek fenomeno horien eragina edo fenomenoaren intentsitatea ezagutzera bideratuta daude-, badira beste adierazle batzuk –konplexuagoak eta interpretatzen zailagoak sarritan- ikuspegi hau osatzeko, esate baterako desberdintasunaren adierazleak. Eranskin honetan, gehien erabiltzen diren gizarte desberdintasunaren adierazleetako bi ematen dira: Gini koefizientea eta  $S80/S20$  erlazio edo indizea.
